

MARXISMOA ETA ASKAPEN NAZIONALA



Federiko Engels
Fundazioa

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

MARXISMOA ETA ASKAPEN NAZIONALA

Egilea: Euskal Herria Sozialista

Lehenengo argitalpena: 2010ko Azaroa

ISBN: 978-84-96276-68-0

Lege-gordailua: M-50862-2010

Argitaratzaile eta banatzaileak:

Federiko Engels Fundazioa • Euskal Herria Sozialista
www.fundacionfedericoengels.org • www.euskalherriasozialista.net

AURKIBIDEA

Argitaratzaileen hitzaurrea	7
PNVren sorrera eta politika historian	11
PNVren jokaera politikoa eta traizioak II.	
Errepublikako lehen urteetan	15
Euskal Herriko eta Estatu espainiarreko 1934ko	
Urriko Iraultza	19
Hego Euskal Herriko eta Estatu espainiarreko	
gera zibila zergatik hasi zen?	23
PNV gerra zibilean: Bigarren atala	28
PNV gerra zibilean: Hirugarren atala	32
Arazo nazionala marxismoaren ikuspuntutik	37
Nazio auzia eta kapitalismoaren arazoak:	
jabego pribatua eta estatu nazionala	41
Arazo nazionala historian zehar	45
Arazo nazionala eta klaseen arteko kolaborazioa	50
Arazo nazionala: Alemania eta Italiako bateratze prozesuak ..	54
Marx, engels eta arazo nazionala	59
Arazo nazionala, marxismoa eta internazionalismoa	62
Marx, Engels eta arazo nazionala II: Irlandaren auzia	67
Lenin eta arazo nazionala I	72
Lenin eta arazo nazionala II	77
Lenin eta arazo nazionala III	82
Lenin eta arazo nazionala IV	87
Errusiako iraultza eta arazo nazionala	92
Arazo nazionala Errusiako Urriko iraultzaren ostean I	97
Arazo nazionala Errusiako Urriko iraultzaren ostean II	102
Arazo nazionala urriaren ostean III	107
Arazo nazionala urriaren ostean IV	112
Estatu burges nazionala gerra hotzaren ondoren	116
Lenin, iraultza sozialista eta nazioen	
autodeterminaziorako eskubidea I	121
Iraultza sozialista eta nazioen	
autodeterminaziorako eskubidea II	125
Lenin, iraultza sozialista eta nazioen	
autodeterminaziorako eskubidea III	130
Lenin, iraultza sozialista eta nazioen	
autodeterminaziorako eskubidea IV	135

ARGITARATZAILEEN HITZAURREA

Zer da Nazioa? Edozeini honen inguruan galdetuz gero ziurrenik lurralde baten antolaketa politikoaren, gizarte komunitate baten edota kulturaren inguruko erreferentziaren bat eman go liguke. Hain zuzen ere, nazionalismoen historiaren inguruko edozein testu liburutan nazioaren inguruan ematen diren bi definizio multzo handiak azalduko zaizkigu: *eragin frantziarreko* definizioa, kutsu politikokoa, eskubide zibil eta politiko berdinak dituzten hiritarrek osaturiko komunitate bati erreferentzia egingo liokeena, eta *eragin alemaniarrekoa*, ezaugarri kulturaletan pisua ipiniko lukeena. Ideia hauetatik dator, alegia, nazio kultural batek nazio politiko, Estatu, bilakatzeko eskubidea izatearen beharra. Eta marxismoak hasieratik defendatu zuen langile mugimenduak autodeterminazio eskubide hori defendatzearen beharra.

Esku artean duzun idazlan hau *Euskal Herria Sozialista* aldizkariako artikuluez osaturiko bilduma bat da. Aldizkari hori atera genuen lehen aletik, atal berezi bat eskaini diogu arazo nazionalari. Gure helburua batez ere honakoa zen: askapen nazionalaren aldeko borrokan marxismoak defendatu eta defendatzen dituen ideiak azaltzea. Nazioen zapalkuntzaren aurkako borroka, hau da, nazio guztien berdintasunaren aldekoa, oinarritzkoa da iraultza sozialistaren aldeko borrokan eta horregatik marxismoak funtsezko garrantzia eman dio gai honi.

Marxismoari eta mugimendu komunistari orokorrean egotzi zaien kexetako bat zera izan da: iraultza sozialistaren eginbeharra soziala bada, trakeski laburbilduz, antolaketa sozio-ekonomiko jakin batetik sortzen diren gaitzei aurre egitea baldin bada, auzi nazionalarekin ez du zerikusirik marxismoak, ez dagokio marxismoari auzi nazionalaz aritzea, auzi hori mugimendu “nazionalisten” monopolio baita. Auzi nazional eta kulturala, arazo sozial ororen gaindi, klase desberdintasun ororen gaindi, gose, soldata baxu, langabezia eta pobrezia ororen gaindi dagoen auzi bat da tesi honen arabera, bere borroka

modu propio eta bereziak dituen, eta komunismoak honekin ez du inongo zerikusirik. Tesi honen defendatzaileak zeintzuk diren ikusi behar ordea. Euren “naziokideak” komunismoaren birusarekin gaixotzea nahi ez duten burgesak. Hein horretan du, hain zuzen, interesa marxismoak auzi nazionalaren inguruan. Auzi nazionala auzi politiko bat da, lehen mailako garrantzia duena, gizarte batean ematen den boterearengatik borrokan oinarritzko papera jokatzeko duena, eta klase borrokan duen eraginagatik marxismoari zuzenki eragiten diona. Auzi nazionala, era berean, auzi serioa da, diskurtso nazionalista oso arma arriskutsua bilakatu baitaiteke klase agintariaren edota burgesia txikiaren eskuetan, langile klasearen iraultzailetasuna itzaltzearen bidean.

Horixe da artikuluko zerrenda hauen xedea, klase agintariaren asmo horiei aurre egitea, gure belarriak burgesiaren garrasiarekin bakarrik bete beharrean, gai honen inguruan marxismoak izan dituen iritziak kontrajartzea. Artikuluko hauetan zehar gai ezberdinak jorratuko dira. Euskal burgesia nazionalistaren historiari begirada bat emango zaio gure kasurako duen interes zuzenagatik. Auzi nazionalak historian zehar izan duen bilakabidea agertuko da, marxismoaren ikuspegitik. Auzi nazionalari marxismoak garrantzirik eman ez diola dioten haiei erantzunez, Marxek eta Engelsek gaiaren inguruan izandako iritzia agertuko da. Leninek eta Errusiako Iraultzak gaiari emandako garrantzia agertuko da beste artikuluko azpi-zerrenda batean, eta Urriaren ostean auziak izan zuen bilakaera, stalinismo burokratikoaren garapena eta azken instantzian Gerra Hotzaren amaiera ematen den testuinguru batean. Azkenik berriz, eta marxismoari auzi nazionalaren inguruan egotzi zaizkion gezurrak agerian uzteko, Leninen artikuluko baten itzulpena aurkeztuko dugu, lehen iturrietara jota mito eta kondairekin apurtzeko asmoz.

Leninek azaldu zuenez “Kultura nazional bakoitzean, garrantzirik ez badaude ere, kultura demokratikoaren eta sozialistaren elementuak daude, nazio bakoitzean langile masa zapaldu bat baitago, bere bizi baldintzek ideologia demokratiko eta sozialista bat garatzea ekartzen duelarik nahita ez. Baina nazio bakoitzean aldi berean kultura burges bat dago (eta gainera, kasu gehienetan, ultraerreakzionarioa eta elizkoia), eta ez

‘elementu’ soil baten itxuran bakarrik, kultura agintari bat bezala baizik. Horrexegatik, ‘kultura nazionala’ orokorrean lurjabeen, apaizen eta burgesiaren kultura izan ohi da”. Iraultzaile kontziente ororen eginkizunak burgesiaren aurkako borroka praktiko bat egitearekin batera, borroka teorikoa egin beharra ere planteatzen du. Klase agintariak jakintzaren gainean duen monopolioa gizakiaren erabateko emantzipazioa eskuratzeko beste eginkizun bat da. Gizarteak nazioaren inguruan, orokorrean, eta bere nazioaren inguruan, zehazki, gehien entzun dituen diskurtsoak hain zuzen kultura agintari horretatik etorri dira, kultura burgesetik, eta iraultza sozialistarako bidean langile klaseak apurtu beharko duen beste uztarri bat izango da.

2010eko azaroa

PNVren SORRERA ETA POLITIKA HISTORIAN

Euskal Herriko arazo nazionala eta sozialak ulertzeko beharrezkoa dela uste dugu PNVk bere sorreratik defendatutako politika aztertzea, azken finean herri hau zapaltzen eta traizionatzen pasa baitu bere historia guztia, gutxi batzuen interes ekonomikoak babesteagatik.

Mundu guztiko nazio zapalduetako burgesien moduan euskal burgesiak eta hau ordezkatzeko duen PNVk, herri honen eskubide demokratiko nazionalak ez dituzte inoiz benetan defendatu, multinazional eta bankuen irabaziak guztiaren gainetik jarritz. PNVk sortu zenetik Euskal Herriaren eskubide demokratikoak demagogikoki ustiatu ditu bere negozioak egiten jarraitzeko, herritarren aurrean erakunde nazionalista moderatu baten moduan aurkeztuz. Baina burges nazionalisten nazionalismoa poltsikoa hasten zaien tokian amaitzen da. Ikusi besterik ez dago aurrera eramaten ari diren pribatizazioak, errekorre sozialak... hainbeste “maite” duten herriaren langile klasea eta sektore azpiratuenak zapalduz behin eta berriro.

Gizartea aldatzeko, arazo nazionala eta sozialak konpontzeko, derrigorrezkoa da euskal langileen eta sektore zapalduenen etsaia aztertzea bere sorreratik.

XIX. mendera joan behar gara lan hori egiten hasteko. Hainbat sektore foralistentzat instituzio sekular batzuen galtzea irain bat izan zen eta horren ondorioz nekazal sektoreen artean —jauntxoak, lurjabeak—, hirietako burgesia txikien sektoreetan, intelektualetan eta erregimen zaharraren errentadunetan independentismo bizkaitarra jaiotzen hasi zen, Sabino Arana buru zutelarik. Modu honetan sortu zen euskal nazionalismoa eta laster etorri zen PNVren sorrera, 1895ean.

Sabino Aranak gainbeheran zeuden klase sozialen aspirazioak islatu zituen eta honako hau idatzi zuen 1895ean: “fuese pobre Vizcaya y no tuviera más que campos y ganados y seríamos entonces patriotas y felices”. Aldi berean, Aranak defendatu zuen euskal nazionalismoak etorkinen aurkako arrazismoa

eta xenofobia jariatzen zuen, Lorenzo Espinosaren “Un pueblo en marcha” liburuan azaltzen den bezala: “El rechazo se concretaba en la prohibición expresa del mestizaje racial o en la participación en grupos políticos, sociales, sindicales o culturales en los que colaborasen españoles”.

Hala ere, euskal burgesia handiak azkar ikusi zuen euskal nazionalismoaren potentziala bere interesen defentsarako tresna bezala, burgesia txikiaren eta nekazalgoaren masen deskontentua kilikatuz, Gobernu Zentralari bere buruarentzako abantailak erauzteko. Estrategia politikoaren aldaketa hau 1898tik aurrera joan zen indarra hartzen, urte honetan Arana anaiek Sota multimilioiduna eta talde politiko foralista bat PNVn sartu ondoren. Laguntza hauei esker Sabino Aranak eserleku bat lortu zuen diputatu probintzial moduan, baldintza errepresiboak oso gogorrak zirenean. Ramon de la Sota euskal politika eta ekonomiaren pertsonaia klabea izan zen urte haietan. Multimilioidun, ontzigile, bankari eta enpresari siderurgikoa autonomizalea zen, Gorteein harreman ona zuena eta Estatu espainiarretik banatzearen etsaia, interes garrantzitsuak baitzituen merkatu horretan. PNVn sartu ondoren eta konfiantzazko gizonak postu klabeetan jarritz, Sotak Aranaren heriotza eta gero, nazionalismoaren botere faktikoa lortu zuen autonomismo moderatuari bidea zabalduz. Ia beti itzalpean egon zen politikaria izanez, PNVren eta ELA sindikatuaren plataformak erabiltzen jakin zuen bere interesetarako.

Estatu espainiarrean klase dominatzailea nagusiki nekazal ekonomia atzeratu batean finkatzen zen bitartean, Euskal Herriko kostaldean garapen ekonomiko azkar bat ematen zen. Industria siderurgikoaren, garraioaren eta komunikazioen gorakadaren eraginez burdinaren eskaera handia egon zen Inglaterratik XIX. mendean eta honek Euskal Herriaren industrializazioa asko erraztu zuen.

Kapital komertzialaren gehikuntzak Estatu espainiarrean hiltorian aurkitzen zen feudalismoa indartzen zuen bitartean, ez zen gauza bera gertatu kapital komertzial euskaldunarekin. Hau, kapital berrien etorpenarekin suspertuta, merkatu berrien irekierarekin, burdinaren meatoki berrien aurkikuntzarekin eta itsasaldearen baldintzekin, bere ekoizpenaren oinarriarekin perfektuki artikulatutako indar bezala sortu zen,

erregimen berri baten eraketa laguntzen zuten harreman sozial berriei lekua eginez. Barneko ekoizpenaren eta kanpoko komertzioaren artean ezarritako kontaktu estuarekin Euskal Herria penintsulako "potentzia" bihurtu zen.

Euskal Herrian kapitalismoaren garapenarekin euskal burgesiaren klaseko kontzientzia indartzen joan zen, bere potentzial ekonomikoarekin gizartearen buru jarriz geratzen ziren hondakin feudalak zokoratuz eta suntsituz. Aldi berean, industriaren garapenak langile klasearen pisua handitzen zuen, gero eta jasangaitzagoak ziren patroiei aurre egitearen ondorioz beren kontzientzia hartze prozesua hasi baitzen. Parelaloki, euskal burgesiak botere politikoa zuten Andaluzia eta Gaztelako nekazal jabe handiei egiten zien aurre ahal zuten tarta zati ekonomiko handiena eskuratzeko.

Estatu espainiarrak Lehen Mundu Gerran zuen neutraltasuna eta armak egiteko lehengaien eskaera aprobetxatuz, irabazi handienak Euskal Herriko bankuek lortu zituzten. Ekoizpen siderurgikoa, meatokiak, merkatalontziak, paper ekoizpena... menperatzen zituzten talde familiarrak: Arteche, Chavarri, Zubiria, Zarate, Sota, Basterra, Urquijo, Echevarrieta, Ibarra, Aresti, Herrero... urrezkoak egin ziren. Sektore sozial hau ez zen inoiz identifikatu Euskal Herriaren benetako arazoekin. Baina hori bai, kapitalismo espainiarraren postu klabeak betetzen zituzten, bankuak eta industriak konektatu eta siderurgia eta energia ekoizpena garatu zirenetik. Euskal burgesia nazionalismoarekin besarkatu zen zapaltzen zuen biztanleriaren kontrol politikoa mantentzeko, eta burgesia espainiarrari eta Estatuari eskaerak egiteko hainbat arlotan, baina Estatu espainiarraren barnean egoteari esker lortzen zituen irabaziei uko egin gabe.

Euskal burgesia gerrarekin aberasten zen bitartean, langile klasearen masak zapalduta zeuden Bizkaiko industria eta meategietan soldata eta lan baldintza miserableekin. Patronalak langileen jatorri ezberdinak erabiltzen zituen galiziarrez, andaluziarrez... osatuta zeuden koadrilak eratuz beraien artean banatzeko eta haserrarazteko helburuarekin. Espainiako gobernuarekin zituen gatazkak arreta desbideratzeko eta Euskal Herriko klaseko gatazkak estaltzeko erabiltzen zituen.

Ikus daitekeenez gaur egungo PNVren politika esentzian

orain dela 100 urtekoaren berbera da. PNV euskal burgesiarren instrumentua da eta beti eramango da hobeto burgesia espainiarraren interesak defendatzen dituen Estatu espainiar burgesarekin Euskal Herriko langile klasearekin baino. Akats larria da PNVk paper progresistatik jokatzea daukanaren ideia, bai arazo sozialen gaiean eta gatazka nazionalean ere. Hasieran esan dugun bezala PNVren “traizioak” (azken finean bere helburuak betetzeko politika egiten du) ez dira gutxi izan historian zehar. Hurrengo aleetan Estatu espainiarreko errepublika garaian eta gerra zibilean PNVk izandako jokaera jorratuko dugu. Beharrezkoa da zapaltzaile hauen benetako aurpegia zein den azaltzea! Beharrezkoa da nazio bakoitzeko langile klaseak bere burgesiaren aurkako borroka gupidagabea hastea!

PNVren JOKAERA POLITIKOA ETA TRAIZIOAK II. ERREPUBLIKAKO LEHEN URTEETAN

Aurreko alean azaltzen genuen bezala, PNVren historia Euskal Herriko langileriaren eta gazteriaren askapen nazionalerako nahien traizioaren historia izan da, ez hainbeste nazionalismoa intelektual eta burges txiki zirkulu hartara mugatzen zen garaian (Sabino Aranaren erradikalismo aldia), baizik eta burges talde batek, ideologia haren potentziala ikusi zuelarik, PNVn sarrera egin zuen alditik aurrera batez ere (Ramon de la Sota kapitalistaren eragina eta Aranaren pentsaeraren moderantismo aroa). Alde horretatik, ez dira gutxi II. Errepublikan PNVren eskutik etorritako traizioak eta artikulua honetan 1934ko iraultza arteko gertakariak azalduko ditugu.

30. hamarkadan Estatu espainiarrean emandako iraultza sozialak piztu egin zuen, inoiz baino indar gehiagorekin, nazionalitateen auzia. Garai hartan Euskal Herria eta Katalunia ziren Estatuko ekonomian hegemonia nabarmena zutenak. Adibide gisa honakoa: Euskal Herriak, estatuko biztanleria osoaren %5a izanik, banku kapitalaren %24a, banku deposituen %42a eta aurrezki pertsonalen %33a biltzen zituen, bordin eta altzairu ekoizpenaren ia %80az gainera. Estatistika hauek Estatuaren beste zatiairen arteko desberdintasuna erakusten dute, hots, nazio hauetako burgesiairen indarra, eta ondorioz ondorengo prozesu iraultzaileetan izandako berebiziko garrantzia. Ez dugu ahaztu behar, ordea, zifra hauen atzean langabeziak eta krisi ekonomikoak (1929ko cracketik eta eze-gonkortasun politikoetatik eratorria) eragindako masen miseria ezkutatzen dela.

1931ko apirilaren 14an, Errepublikaren aldarrikapenak (Eibar aitzindari izan zelarik) nazio historikoen askapen nahia bultzatu zuen, lehen esan bezala. Errepublikar-sozialisten koalizioak ordea ezin izan zituen masa zapalduen arazoak (eta

tartean nazionala) konpondu. Historiak frogatu du ezin dela kapitalisten eta langileen alde egin aldi berean, Marxek Soldata, Salneurria eta Irabazian zioen bezala “soldatapeko lanaren eta kapitalaren interesak diametralki aurkakoak” baitira, izan ere, “(kapitalistaren irabazia) irabazi hau soldatarekiko desberdintzen den proportzioan handitzen” baita. Masen funtsezko arazoak ezin ziren marko kapitalistan ebatzi, eta gobernu erreformistak jarrera iraultzaile bat hartu ez zuenez hau izan zen bere porrotaren eta eskuinaren garaipenaren arrazoi.

Euskal burgesiarentzat, autonomiak katolikotasunaren, oreka sozialaren eta foru tradizioen defentsa adierazten zuen. Honela, Lizarrako Estatutua onartu zuten Hego Euskal Herriko udalen gehiengoak, baina hau ez zen onargarria izan etorkizuneko Konstituzioaren markoaren barnean, besteak beste, Estatuaren eskumenak ziren zenbait botere eskatzen zituelako (Estatu-Eliza arteko erlazioen kudeaketa eta Vatikanorekiko aparteko erlazioak, adibidez). Gorte Konstituziogileetarako hauteskundeetan, karlistekin elkaturik, Euskal Herriko botoen gehiengoa eskuratu zuten, eta gobernuak, erreakzionarioak zirela argudiatuz, Estatutua atzera bota zuen, nazionalismoa ahulduko zutelakoan justu aurkakoa lortuz.

Autonomiari dagozkion erreformak gorroto osoarekin hartu zituen espainiar burgesia erreakzionarioak, Sanjurjoren altxamenduan ikus daitekeen bezala, gorakadan zetozen eskaera sozialen eta nazionalen aurka egiteko. Kataluniako Estatutua onar ez zedin Sevillan estatu kolpea antolatu zuten zenbait militarrek, eta euskal oligarkia izan zen bere bultzatzaileetako bat (Urquijo, Zubiria, March, Goicoechea,...). Sevillako langile klaseak altxamendua ezerezean geratzea lortu zuen ordea.

1932ko ekainean, Batzar kudeatzaileen eskutik Estatutu berri bat idatzi zen, PSOEn babesa izan zuena, aurrekoa ez bezala Konstituzio barnean egokitzen zelako eta Estatuak autonomiei buruz ebatzitako eskumenetara soilik mugatzen zelako. Karlistek (jada hilabete batzuk lehentxeago PNVrekin haustura izan zutelarik) uko egin zioten testu honi eta Nafarroako udalen gehiengoak, gehiengo karlistak alegia, ezetza eman zion, Nafarroa Estatutu honetatik at geratuz. 1933ko udal hauteskundeetan PNVk eta ANVek lortu zituzten botoen

bi herenak, errepublikar-sozialistak beheraka zihoazen bitartean, herri xehearen oinarritzko arazoak konpon ezin zitzaizke-teelako.

Estatutua 1933an onartu zen erreferendum bidez, %87ko parte hartzearekin, 411.756 aldeko eta 14.196 aurkako boze-kin, gehiengo izugarri bat beraz. Araba ordea tentsio leku izan zen. 1933ko abenduaren 22an, probintzia honetan zeuden 77 herritik 57, proiektuaren aurka irten ziren. Datu hau, aurre-rago eskuineko gobernuak Estatutua parlamentuan ez onartze-ko argudiotzat erabiliko zituen.

Bien bitartean, gobernu zulo ilun batetara erortzen ari zen. Casas Viejaseko gertakariak zenbait anarkisten heriotze-kin, greba ugariren sorrera, nekazal erreforma ezin aurrera eramana... bi hitzetan, ezin zituzten zapalduen benetako ara-zoak konpondu. Eskuinak, ezkerren politika tamalgarria kritikatzuz, gorakada nabarmena izan zuen, Estatuko gobe-rnua lortuz, eta Euskal Herrian ere PNVren eta karlisten gai-lentasuna erakutsiz. Biurteko beltza izenez ezaguna den aldia hasi zen une honetan, eta gehiengo parlamentarioa zuen Gil Roblesen CEDAk (Confederacion Española de Derechas Auto-nomas) aurreko legegintzaldian egindako erreforma urrien aurkako erasoari ekin zion. Gainera, argi eta garbi geratu zen zein zen gobernu honen helburua: erregimen autoritario faxis-ta baten ezarpena iraultzaren mehatxuarekin eta bere langile erakundeekin amaitzeko. Horren adibide ditugu Gil Roblesen mitin bateko hitzak: “Aberri totalitario bat nahi dugu eta ha-rritu egiten nau kanpora berritasunen bila joateko gonbidape-nak jasotzeak, politika unitarioa eta totalitarioa gure tradizio loriatsuan ditugunean.” CEDAren komunikazio organoetan Hitlerren aldeko aldarriak irakur zitezkeen eta kapitalista na-hiz lurjabe handiak eskuinean babestu ziren beraien iraba-zientzat kaltegarri ziren neurriekin amaitzeko. Besteak beste Sanjurjoren altxamenduan parte hartu zuten kolpista guztiei amnistia eman zitzaien.

Egoera honen aurrean ulertzekoa da Estatu osoko langile-riak Italian edota Alemanian ikusi zituzten bezalako Mussoli-niren edota Hitlerren bezalako erregimen bat ezartzeko beldu-rra. Honela, UGTren eskutik greba orokorrerako deia egin zen, eskuinaren aurrerapausoak gelditzeko, eta 1934ko iraultza

izenaz ezagutzen den gertakari iraultzaileei hasera eman zitzaizen. Asturias bere fokua izan bazen ere euskal langileriak eta gazteriak ezagutu beharrekoak dira Euskal Herrian jazo-tako gertakari bikain haiek, eta nola ez, PNVk hartu zuen jarrera ere, nahiz eta bere militantzia zabal batek grebari babesa eskaini bazion ere. Gaiaren zabaltasuna kontuan harturik hurrengo alerako utziko dugu, baina amaitu aurretik zenbait ohar jakitekoak dira PNVk 1934 arte Biurteko beltzean izandako politikari buruz.

Aldi honetan PNVk jarrera bikoitza izan zuen. Nazionalismo espainiarrak bere eskubideak murrizteko mehatxua ikus-tean bere “ezker” hegoan sostengatzen zen, baina masen aurrean jarrera bat hartzerakoan ez zuen erreparorik erreazioaren aldera jotzeko. Beste era batera esanda, PNVk bere klase interesen arabera jokatzeko zuen, gaur egun bezala, eta askapen nazionalaren defentsa bere hautesleen erakarpenera eta masen kontrolera mugatzen zen. Ez zuen autodeterminazio eskubidearen defentsarik egin era kontsekuente batean, bere klase interesei zegokien mugetaraino baizik, bere historia osoan zehar, bere traizioaren historia osoan zehar, erakutsi duen bezala.

Eta amaitzeko, urte hauetan argi geratu zen beste ikasgai bat kapitalismoarekin herri xehearen arazoak, nazionala ere tartean delarik, kapitalismoaren barnean ebazteko ezintasuna da, Estatuko burgesiak berak (PNV barne) dituen merkatal interesengatik askapen nahi txikiena ere ezabatu egiten baitu. Kapitalaren diktadura berbera da erregimen diktatoriala izan, monarkia konstituzionala izan edota errepublika bat izan, sistema sozio-ekonomikoak berbera izaten jarraitzen baitu. Luis Araquistainek zioen bezala: “[Errepublikarekin] engainatu gintuzten, eta hori onartzeko garaia da”.

EUSKAL HERRIKO ETA ESTATU ESPAINIARREKO 1934KO URRIKO IRAULTZA

Burgesiaren historiografiak ezabatu nahi izan badu ere, esanguratsua den gertakaria jazo zen Eibarren eta Arrasaten, hasiera batean altxamendu armatuak garaipena lortu zuen lekuetan: Errepublika Sozialista aldarrikatu zen.

Azkeneko alean PNVren inguruko artikuluan aipatzen genuen bezala, Errepublika garaiko PNVren politika zig-zagen politika izan zen; haizeak nondik jo harantz bideratzen zen, bere eskubideak murrizteko arriskua ikustean masengan hartzen zuen sostengu, baina bere izate sozialaren pribilegioak arriskuan ikustean ez zion muzinik egiten masa hauek modu batera edo bestera zapaltzeari. Bi hitzetan, bere klase interesen defentsa zuen ororen aurretik, gaurdaino izan duen bezala. Baina enpirista politikoez, dialektikaren legeak ulertzen ez dituzten horiek, espero ez zuten gertakaria etorri zen, PNV bere herriaren alde zegoen edo ez neurtuko zuen balantza bat: 1934ko Urriko Iraultza.

1934ko uztailan eta apirilean, eskuinaren erasoak zirela eta, oposizioaren bandoan kokatu bazen ere, urriko langile mobilizazioak hasi zirenean 180 graduko itzulia eman zuen. UGTk greba orokorra deitua zuen CEDAko (Confederacion Española de Derechas Autonomas) hiru ministro gobernuan sartu zirelako, Alemaniako eta Italiako gobernu faxista baten ezarpenaren beldurrez. Honen baitan PNV Gil Roblesen (CEDA) eta Frankoren gidaritzapeko armadaren erretagoardian ezarri zen. Bere babesa emanez, Gerra ministerioaren eskutik langile altxamendu asturiarra eta euskalduna sarraskituak izan ziren, ehunka hildakorekin.

Euskal burgesiak, iraultzarekiko beldurrez, eskuin aldera biratzen zuen bitartean, 1933an eta 1934an, proletalگو alema-

niarra eta austriarra, hurrenez hurren, garaituak izateak, ez kerralderako aldaketa bortitza eragin zuen langileen alderdi eta sindikatuetan. Honakoak izan ziren Luis Araquistainek, Asturiasko altxamendu militarra zela eta, Leviatanen orrietan plazaratu zituen ondorioak: “Errepublika istripu bat da, Marxengana eta Engelsengana itzuli behar da, baina ez hitzekin, zuhurtziarekin eta borondatearekin baizik. Sozialismo erreformistak jada porrot egin du. Denok engainatu ginen eta hori onartzeko garaia da (...) Ez gaitezen fio soilik demokrazia parlamentarioan, ezta noizbait sozialismoak gehiengoa lortzen badu ere; biolentzia erabiltzen ez badu, kapitalismoak beste esparruetan garaituko du bere arma ekonomiko indartsuekin”.

EIBAR ETA ARRASATEKO ERREPUBLIKA SOZIALISTA

PNVk abstentzionismoa eta ELA-STVren buruzagitzak “lasaitasuna” eta “zuhurtzia” bultzatu bazituzten ere, bi erakunde-en oinarri sozialeko langileek greba orokorra gogo biziz bultzatu zuten. Altxamendu armatuak azalera handiagoa hartu zuen, batez ere Gipuzkoako tradiziozko langile guneetan (Eibarren, Arrasaten) eta Gallartako meatze inguruetan. Greba, ia osotasunez, orokorra izan zen Gipuzkoako eta Bizkaiko herri guztietan (Bilbo, Estatu mailako lehen gune siderometalurgikoa buru zuela) eta ia hutsala Gasteizen. Meatzaritza inguruetan, Bizkaikoetan eta Eibarren (Estatuko arma ekoizpenaren nukleo garrantzitsuena hogeita hamar inguru enpresekin) greba urriaren 15 arte luzatu zen. 3000 grebalarri inguruk egoerari tinko eutsi zioten eta egun luzez heldu zieten ejertzitoarren indar erasotzaileei.

Batzuetan historiografiatik ezabatua izan dela ematen badu ere, nahiko esanguratsua den gertakaria jazo zen Eibarren eta Arrasaten, hasiera batean altxamendu armatuak garaipena lortu zuen lekuetan: Errepublika Sozialista aldarrikatu zen. Historialari burgesek liburuetatik ezabatu nahi izan badute ere, langileriak ez du bere memoria zapaldua izaten utziko, iraganeko gertakariak oroitu dituzte, berauetatik ondorio eraginkorrak atera eta ondoren ikasitakoa etorkizuna aldatzeko erabili. Azken finean, “historia ikasten ez duena, akatsak erre-

pikatzera kondenaturik” baitago. Euskal langileriak ordea, burgesiaren agenteek nahi ez badute ere, ez du bere arbasoen historia ahaztuko, ez du ahaztuko nola Errepublika Sozialista bat aldarrikatu zen Gipuzkoako industriaren muinean eta ez du ahaztuko PNV izan zela bere ametsak eta beharrak zapuzteko langileria heroiak garbitu zituen. Beste behin ere, PNV aurpegia estaltzeko mozorrorik gabe geratu zen, bere “herria” literalki odol hustuz.

Hego Euskal Herrian eta Estatu espainiarraren historian lehen aldiz, langileri iraultzailea burgesiaren ejertzitoaren aurka zegoen, armak eskuan, bere gobernua ezartzeko borrokan, nahiz eta geroago, zuzendaritza bateratu baten gabeziak eta Asturiasen isolamenduak iraultza porrotera eraman zuten. Estatu aparatu osoa Asturiasko langileria zapaltzeko eginkizunean kontzentratu zen. Altxamendu militarren aurkako kanpaina militarrean 25.000 gizonek hartu zuten esku. Halaber, lehen aipaturiko gabezien ondorioz, batez ere, mugimendua pixkanaka murriztuz joan zen Asturiasen izan ezik. Hemen langile boterea sortu zen, bizitza ekonomikoa, politikoa eta soziala baldintzatu zituen boterea, eta 15 egun iraun zituen, urriaren 18an meatzarien zutabe armatuak errendizora beharturik ikusi ziren arte.

Gertakari honek Estatu osoan zehar zuzendaritza iraultzaile batekin eta bateraturik borrokatzeko beharra erakutsi zuen, baina ez nahi erromantiko batengatik, edota Asturiasko langileriak Estatuko langileriarekin, hauen nazionalitatea edozein izanda ere, batasun bukoliko eta armoniatu bat sortu nahi zutelako: behar objektibo bat zen. Eta zertan datza objektibotasunak? Bada espainiar burgesiaren produkzio eta erreprodukzio erlazioak Estatu mailan antolaturik daudela, beste nazioetako burgesiekin lokarriak sortuz, eta bere interesak defendatzeko aparatu biolento bakar bat duela antolaturik Estatuaren luze zabalean: Armada. Zapalketa bera jasaten zuten, etsai berbera zuten, eta beharrezko zuten denen indarrak batzea hari aurre egiteko, interes berberen defentsa baitzen denen nahimena: askatasun ekonomikoa, soziala, politikoa eta kulturala, eta hori lortzeko bide bakartzat kapitalismoaren amaiera.

ERREPRESIO ANKERRA

Altxamenduaren porrotaren ostean errepresioa berbera izan zen Euskal Herrian, PNVk erresistentziarik jarri gabe: Altxamenduan iraultzaileen eskutik hilak suertatu zirenen omenaldietan parte hartu zuten eta Lerrouxi (Alderdi Erradikal eskuindarra) aldeko botoa eman zioten hau presidente ezartzekoan. Funtsean, burgesia kataluniarrak eta euskaldunak langileria-
rekiko beldurra erakutsi zuten, eta Estatu zentralistaren aurreko harrokeriak eta “sentimenduzko” hitzaldiak asko izan baziren ere, nazio historikoen eskubideen defentsa ez zuten sekula egin; nolabait esateko, euren mihia ez zettorren bat euren kontzientziarekin. Itxurakeriazko nazionalismoa erreminta bikaina zen langileria zatitu eta uztarrian mantentzeko. Divide et impera famatua ongi ezagutzen zuten.

Damoklesen ezpata buru gainean zuen burgesiak. Greben gorakada, altxamendu eta leherketak. Ezin zioten indar iraultzaileari eutsi. Bien bitartean, langileen buruzagiek orokorrean demokrazia burgesa babesten zuten “Errepublikak demokratikoaren” maskarapean, eta berriro ere, buruzagi hauen hanka-sartzea eta noraezerako joera laguntza bikaina izan zen kontrairaultza faxistarentzat, langile mugimendua desarmatzen lagundu baitzion. Stalinek bultzaturiko Fronte Popularra garaile atera zen 1936ko hauteskundeetan bere barnean alderdi burges eta proletarioak biltzen zituelarik, Trotskyren Fronte Bakarraren kontsigna (langile erakunde guztien batasuna, klase kolaboraziorik gabe) zokoratuz. Langileria, ordea, garaipenaren aurrean ez zen zer egin-go geratu. Bazekien zer gertatu zen errepublikazaleen aurreko legealdian eta bazekiten kapitalismoarekin hausten ez bazen euren arazoak ez zirela konponduko. Lurren kolektibizazioak hasi ziren, grebak, enpresen okupazioak, mobilizazio mota guztiak... Burgesiak ez zion lurrin honi heldu. Bide parlamentarioa jada ez zen nahikoa langilegoaren burua beheruntz mantentzeko. Zerbait egin behar zen, eta ez nolanahikoa. Langileen buruzagiek ezkerreztatze hori ahal bezain beste murriztu nahi zuten bitartean, Franko, Mola, Goded eta beste lagunak altxamendu militarra prestatzen hasi ziren, burgesiaren interesak defendatzeko. Izan ere, “mamu bat baitzebilen Euskal Herrian eta Estatu espainiarrean zehar, komunismoaren mamua”...

HEGO EUSKAL HERRIKO ETA ESTATU ESPAINIARREKO GERRA ZIBILA ZERGATIK HASI ZEN?

PNVk beste behin erakutsi zuen gerra zibilean hartutako jarrerarekin noren klase interesak defendatzen zituen, beldur handiagoa zien Frankoren aurka borrokatzen ziren langile eta zapalduai, iraultzaren arriskua baitzekarten, kapitalismoa defendatuko zuen faxismoari baino.

Eltze batean egosten ari den barazki baten egoste prozesua eltze horretako bertako uraren irakite prozesua ulertu gabe azal ezin daitekeen bezala, herrialde baten historia ezin uler daiteke historiaren nazioarteko ikuspegirik gabe, herrialde horrek dituen nazioarteko elkarloturak eta berezko barne prozesuak uztartzen jakin gabe, herrialde horren historia modu isolatuan hartuta; bi hitzetan, ezin uler ditzakegu 1936tik aurrera Hego Euskal Herrian eta Estatu espainiarrean jazotako gertakariak nazioarteko egoera bere osotasunean ulertu gabe.

1936ko gerra zibila mugimendu eta eztanda sozialeko une historiko batean garatu zen. Lehen Mundu Gerra jada amaitua zen 1918an eta ezin esan daiteke herrialde galtzaileetako langile klaseen egoera benetan bikaina zenik; besteak beste Alemanian bertan prozesu iraultzaile bati eman zitzaion hasera. Ez dugu ahaztu behar, gainera, Lehen Mundu Gerraren amaiera bizkortu zuen prozesu bat gertatu zela: 1917ko Errusiako Iraultza. Gertakari honek isla sakona izan zuen mundu guztiko langileriarengan eta eragin zuzena izango zuen ondorengo klase borroken garapenean. Alderdi Komunisten sorrera bera garaiko Alderdi Sozialistetan zeuden iraultzaren aldeko sektoreen zatiketetatik etorri zen.

Mugimendu sozialen gorakadaren aurrean klase agintaria ez zen eskuak gurutzatuta geratu. Alemaniako eta Hungariako iraultzen zapalketa, erregimen faxista baten ezarpena Italian,... 1929ko burtsaren krisiak are eta golpe handiagoa eman

zion langile klaseari, euren bizi baldintzak lurraren mailan utziz. Bestela ezin uler litezke 30. hamarkadako Austriako langile klasearen zapalketa, edota 1933an, Hitler eta Alderdi Nazionalsozialistaren garaipena, odol tanta bat isuri gabe boterera iritsi zirelarik. Bizi baldintzen egoera tamalgarriak, langile alderdien (Alemaniako Alderdi Sozialistaren eta Komunistaren) inkompetentziak eta traizioak, eta Hitlerrek ordezkaturako burgesiaren demagogiak gizartearen sektore handi bat nazismora ekartzea ahalbidetu zuten. Historiak erakutsi digun bezala, tragedia bat bilakatu zen langile klase germaniarrarentzat.

Hego Euskal Herria eta Estatu espainiarra ez ziren salbuespena nazioarteko egoera honen aurrean. Aurreko ale batean azaldu bezala, espainiar burgesiak “burua moztu” behar izan zion monarkiari berari, Errepublika aurrerakoi baten itxurapean, sistema kapitalistaren biziraupena mantentzeko. Garai honetan langileen onurarako egin ziren kontzesio urriak gehiegizkotzat hartu zituen burgesiak, Sanjurjoren altxamendu militarra adibide dugularik Errepublikaren urte gazteetan. Alderdi “ezkertiarrek” eginikoa ikusirik, burgesia irten zen garaile hurrengo hauteskundeetan. Une honetakoak dira aurreko alean azalduriko 1934ko Urriko Iraultzako gertaerak, Italiako edota Alemaniako estatu totalitario baten kopia bat bertan ezartzeko beldurrarekin egin zirenak, langile klasea zapaldua suertatu zelarik. Stalinek herrialde guztietan bultzatutako Fronte Popularra (alderdi burges “aurrerakoiak” langile erakundeekin elkartzeko formula) irten zen garaile Errepublikaren azken hauteskundeetan. Gobernu berriak al daketetarako jarrera handiegirik azaltzen ez bazuen ere, herria garaile sentitzen zen hauteskontzietan lortutako emaitzen gatik, eta agintariei itxaroteak zer ekarriko zien jakinda euren eskutik hasi ziren aldaketak egiten. Jada, Errepublikak, ez zion balio burgesiari, 1931an bezala, bere interesak mantentzeko, sistema kapitalista bermatzeko. Herriak gizarte berri bat eskatzen zuen.

Baldintza hauetan bi aukera zituen espainiar burgesiak: langileria bakean utzi eta urteetan mantendutako pribilegioak galdu, sozialismoaren etorrerarekin, edota mugimendu iraultzailea indarrez zapaldu. Denok dakigun bezala azken

hau izan zen aukeratua. Ez zen ez erlijio, moral edo etika jakin baten ezarpenerako gurutzada bat izan, argudiotzat hori erabili bazuten ere. Gertakari hauek ez ziren gertatu, historia-lari idealista askok uste duten bezala, Franko eta bere koadrila ideia jakin batzuegatik borroka zale zirelako. Ezta gutxiagorik ere. Halako margo kapa ugari eman nahi izan bazaizkio ere, argi eta garbi esan beharra dago Hego Euskal Herria eta Estatu espainiarra astindu zituen gerra zibila ez zela zenbait militarren psikologia “bereziengatik” hasi. Historia osoan zehar gertatu diren guda guztien moduan, hau ere klase interesengatik jazo zen.

PNVREN JARRERA GERRA ZIBILEAN

Gauzak honela, ondorengo galdera hau planteatu daiteke: zein izan beharko zen PNVk harturiko jarrera, bere aurreko urteetako diskurtsoaren arabera? Edo beste modu batera esanda: bat etorri al ziren PNVk Errepublikara garaian erabilitako hitzak eta gerraren aurrean hartu zuen jarrera?

Bere diskurtsoaren arabera, PNVk euskal langileriarekin elkartu beharko zukeen, euskaldun guztiek batera egon behar baitzuten, eta indar honekin aurre egin beharko zion altxamendu faxistari. Argi dago, ordea, hitzaldi edo mitinetan PNVk bere anaiatzat hartzen zituen euskal langileriak bere anaitik gutxi zutela, izan ere, langileri honen esplotazio eta sufrimenduaren bitartez lortzen baitzituen bere irabazi potoloak euskal burgesiari. Anaitasuna ulertzeko modu bitxia burges hauena. Esanguratsuak dira altxamendua hasi eta gutxira PNVko zuzendariak harturiko erabaki “bitxiak”, izan ere, ekintza hauek ez baitzetozen bat euren hitz politekin. Gerra hasi eta bi egunera honakoa zioen Nafar Buru Batzarrak: “PNV, bere ideologia katoliko eta foruzale sutsua dela eta, ez da elkartu eta ez da elkartuko Gobernuarekin borroka honetan”. Araba Buru Batzarrak berriz: “PNVren Arabako eskualdeko kontseiluak, anai arabarren arteko borroka fratrizidak eta odol isurketak ekiditeko interesarekin (...) bere afiliatu guztiei (...) eratu berri diren autoritate militarren eta ordezkarien eskura jar daitezela eskatzen die”.

Gorteetan zen PNVko Javier Landaburuk eta Manuel Ibarrodok honako manifestu hau bultzatu zuten: “Espainiako gobernazioa igarotzen ari zen baldintzak, hiritarren hondamendi moralera eta materialera zeramalarik, borondate oneko gizon batzuk, euren pratiotismo sanoak bultzatuta, erregenerazio espiritual eta materialerako Gurutzada bat egitera bultzatu ditu.(...)Jez dago dudarik, eta are gutxiago euskal nazionalista batentzat, komunismoak emango ez liokeen eta herri honek lortu nahi duen askatasun minimoa nahi duenarentzat ... gure lagun nazionalistak bultzatzen ditugu halako altxor preziatua defendatuko duten horiei oztoporik ez jartzera(...) eta elkarrekin gora Espainia oihukatzeraz...”.

Eta ezin utzi artikulua Ajuriagerraren hitz batzuk errepikatu gabe: “erabaki bat hartzea aurreztuko zigun berri bat entzuteko itxaropena nuen, bando batek edo besteak irabazi izanarena...Gobernu errepublikarrari babesa ematea erabaki genuen (...) gogo handiegirik gabe (...) jakinda, beste bandoaren alde irteten baginen, gure militantzia aurka jarriko zitzaigula...”. Bibliak hala dio: “Begiak dituenak ikus beza”. Ezin da garbiago azaldu euskal burgesiaren jarrera. Araban eta Nafarroan ezbaierik gabe ipini ziren faxisten alde, eta Bizkaian eta Gipuzkoan berriz militantziarengatik beldurrak eraman zituen kontrako erabakia hartzeraz, bestela ez zuten erreparorik izango. Azken finean, zein bandok defendatzen zituen PNVren interesak? Sozialismoaren alde borrokatzen zuen hark, burgesiaren enpresak nazionalizatzeko nahiarekin, edota kapitalismoaren biziraupena bermatu nahi zuen hark?

Gutxi axola zitzaion PNVri Euskal Herriko jende xeheak jasan beharko zuena, gutxi axola zitzaion urte luzez zehar jasan behar izango zuen zapalketa nazionala eta soziala; euren interesak defendatzerakoan faxismoaren bandera egokiago zetorkien euskal herritarren interesak defendatuko zituen bandera bat baino. Euskal langileriak berriro ere urruntzen ikusi zuen autodeterminazio eskubidearen itxaropena, ongizate eta bizi-maila hobetzeko aukera, sozialismoaren bidetik etor zitekeena soilik. Euskal burgesiak kapitalismoa sutsuki defendatu zuen, Estatu espainiarrean jarraitzea hobe zetorkion Estatuaren pribilegioak jaso eta negozio dirudunak egiteko. Baina, noiz etorri dira ba bat euskal burgesiaren eta Euskal Herriaren, herri xehearen, interesak?

PNV GERRA ZIBILEAN: BIGARREN ATALA

Euskal langileriaren odolak Euskal Herriko kaleak bustitzen zituen bitartean PNVk ez zuen bere poltsikoaz aparteko ardurarik! Bilboko langile heroikoek euren energia guztia faxismoaren aurkako borrokaren zerbitzuan jartzen zuen bitartean PNVren beldur bakarra lantegiek su hartuko zuten edo ez zen!

Gerra bat politika egiteko beste modu bat da. Funtsean klase ar-teko borroka bera da beste maila batera igota. Baina ez hori ba-karrik. Gerra neurgailu bat da. Bertako partaideak hormaren eta ezpataren artean ipintzen ditu, eta gizartearen sektore ez-berdinak benetako aurpegia erakustera bultzatzen ditu, maska-rarik gabe, ezkutatuko dituen margo kaparik gabe. Pertsonak, indibidualki, edota bestelako antolaketa kolektiboek (alderdiek, sindikatuek...) euren ideiekin kontsekuenteak diren edo ez era-kusten dute halako egoera batean, ea aurretik esandako guztia hitz soilak ziren edota benetako sinesmena, ea defendatzen di-tuzten edo defendatzen dituztela esaten duten ideiangatik norai-no iristeko gai diren. Euskal burgesiaren ordezkari den PNVk ere izan zuen zintzilik bere buru gainean Damoklesen ezpata hau, eta lur azpian ongi gorderik zituen bere interesak gerrak gai-nazaleratu zizkion ezinbestean, bere aurpegiak itsusiena era-kustera bultzatuz, baina bere aurpegi bakarra azken finean.

Aurreko alean aipatu genituen PNVk zein bando aukeratu izan zituen zalantzak. Arabako eta Nafarroako Buru Batzarrek konplexurik gabe erakutsi zuten euren jarrera, Frankok indartzen eta sistema sozio-ekonomiko alternatibo baten bila zebilen langi-leriaren aurka eginiko altxamendu hura beraien intereserako onuragarria zela ikusirik. Bizkaian eta Gipuzkoan ordea, gerta-kariek beste bide bat hartu zuten. Ajuriagerraren hitzak gogora-tuz azaltzen genuen aurrekoan PNVk Errepublikaren aldeko ja-rrera hartu behar izan zuela bi herrialde hauetan, kontrakoa egin ezean militantzia xehe eta langileriak irentsiko zituen beldurrez.

EUSKAL LANGILEEN BORROKA

Bizkaiko altxamendu faxista langile masek gelditua izan zen denbora gutxian. Ez zuten euren zuzendaritzek izandako zalantzarik izan erabaki hau hartzeko. Langile klaseak, estatu kolpe hark bere bizi baldintzei eta eskubide demokratikoei ekar diezaiokeena Europako beste kasuetan ikusirik (Italian edo Alemanian) jarrera iraultzaile bat hartu zuen eta kolpistak armak uztera bultzatu zituzten kuartelak inguratuz. Jagi-jagi gazte mugimenduko ordezkariak Jose Antonio Agirreri independentziaren alde borrokatzeko armak hartzeko asmoa azaldu zienean, honek ezezko biribila eman zien Fronte Popularrari traizio egitea zela argudiatuz. Gertakariak etorkizuna begiratzeko zailtasunak eragiten zituzten, eta PNV politika zalantzatsu eta kontraesankor bat egitera bultzatu zuten.

Gipuzkoan eta Bizkaian Errepublikaren defentsan agertzeak harridura eragin zuen militarren artean, Landaburuk Agirreri 1936ko abuztuan bidalitako gutun honetan zioen bezala: “Ezagutaraztera ematen diote buruzagi militarren kezka Bizkaia-rekiko eta Gipuzkoarekiko, eta harritu egiten dira nazionalistak gorrien eskutik zoaztelako (...) hor gorriek agintzen duten bitartean, nazionalistok eraikinak eta pertsonak zaintzera mugatzen bazarete, Ejertzitoaren aurka armarik hartzen ez baduzue, errespetatuak izango zarete Ejertzitoa inguru hortaz jabetzen denean.” Eta esangura handikoak Juan Manuel Epalzaren hitzak: “Posible izan balitz, neutral mantenduko ginatekeen.(...) Zerbait absurdua zen, tragikoa: gauza gehiago genituen komunean erasotzen gintuzten karlistekin segituan aliatuko ginen jendearekin baino...”.

PNVREN MANIOBRAK

PNVren helburua mugimenduaren kontrola hartzea izan zen, egoera hura inolaz ere iraultza sozialaren atzetik bideratu ez zedin. Lehen pausoa PSOEren, UGTren, PCEren edota CNTren oinarri erradikalizatuek kontrol hori lor ez zezaten izan zen. Azken finean, langile klaseak bere adorea eta sakrifizioa jar zitzala borroka hartan, baina langileek ez zezatela boterea hartu. Pedro Basabilotra PNVren miliziaren buruzagitzako

idazkariaren hitzetan “ezkerrak guretzat faxistak bezalako arriskua izaten jarraitu zuen. Bagenekien gerra irabazteko kasuan bigarren asalto batean parte hartu beharko genuela...”. Gerra betean emandako Estatutuaz baliatuta, PNV jarri zen mugimenduaren antolatzaile eta buru, eta aurretik antolatutako Defentsarako Juntak, ezkertiarrek osatuak, albo batera bota zituen.

Behin kontrola hartuta, PNVk, betiko moduan, bere interesak defendatzeari ekin zion. Herriaren aurrean, eskubide demokratiko nazionalen aldeko borrokagatik jarri zela Errepublikaren alde esaten bazuen ere, bere interesak beste bide batera zuzendurik zeuden. 1936ko urrian argitaratutako testu batean Eusko Jaurlaritzak argi adierazten zuen “Edozein momentutan ekoizleen interesek lesiorik jaso ez dezaten saiaturiko da eta asmo osoz babestuko ditu industrialaria eta merkataria.” Industriaren eta bankaren desjabetzeak ekidin zituen PNVk kapitalisten asmoak betez, eta hau eginda Frankori aurre egiteko potentzial ekonomiko guztia pikutara bota zuen, ekoizpen baliabideak langileen eskuetan ipini eta ofentsiba indartsu bat antolatu beharrean. Lehenbizi gerra irabazi eta behin bakea lortu ondoren, iraultzari eta desjabetzei ekiteko taktika estalinista PNVrentzat bilakatu zen onuragarri.

PNVREN HELBURUAK

Irailaren hasieran sartu ziren militar altxatuak eta erreketarak Gipuzkoara Irun aldetik, Estatu frantziarrarekiko mugak itxiz. Modu honetan, Euskal Herriaren eta penintsulako zati Errepublikarraren arteko komunikazioak mozturik geratu ziren, itsasoz edota airez soilik burutu zitezkeelarik. Irungo defentsan, ezkertiarrek su eman zieten zenbait enpresei, faxistek hauek hartu eta euren onurarako erabil ez zitzen. PNVri, ordea, horrelakorik ez zitzaion gehiegi interesatzen. Donostia bera errenditu egin zen PNVk agindutako indarrek tiro bat bera ere bota gabe. Kasu honetan, PNVk agindutako miliziak anarkistak desarmatzen eta enpresak suntsi ez zitzaitez zaintzen ibili ziren. Kaleetan eginiko borrokak, edota Loiolako kuartelaren aurkako erasoa, euskal langileriak bere odol eta izerdiz egina, traizionatua izan zen gutxi batzuen intere-

serako. Gipuzkoa bi hilabeteetan erori zen eta altxatuak geroz eta gertuago zeuden Bizkaitik.

Langile klasea ez armatzeko bere nahiek segituan izan zuten bere amaiera. PNVren izen ona mantendu nahi duen historiografia eskuindarrak Euzko Gudaroztea izenez ezaguna den euskal armada PNVren ekimenez eta nahi betez sortua izan zela dioen arren, ezin esan daiteke zehazki hori izan zenik bere jarra. Herriak armak eskatzen zituen faxistei aurre egiteko, PNVk ordea bere interesentzako arriskutsutzat ikusten zuen hori, euskal langileriari euskal burgesiaren jabetzak hartzeko ideia “zororen” bat etor baitziezaiokeen. Asteak iraun zituen defentsa militar bat antolatu gabe. Honela bada, masen presiopean, milizia hauek antolatu behar izan zituen, baina hori bai, bere kontrolpe erabatekoan egoteko baldintzarekin. Honela efektu bikoitza lortzen zuen: batetik, masen aurrean irudi ona ematea, eta bestetik, mugimendua berriro ere bere interesen bidetik lerratzea.

Euskal Herriaren etorkizunari buruz galdera asko egiten diren une honetan, beharrezkoa du euskal langileriak bere etsaiak eta bere aliatuak zein diren definitzea. Hasieran aipatzen genuen moduan, horrelako momentu zailtan erakusten du bere benetako aurpegia subjektu bakoitzak, eta PNVk gerra zibilean hartutako jarrera ezagutzea beharrezkoa da ea benetan gure bidelagun ala etsai den kalifikatzeko. Euskal langileria heroikoak altxamendu faxista gelditzen zuen unean PNVk zailantzak zituen! Euskal langileriaren odolak Euskal Herriko kaleak bustitzen zituen bitartean PNVk ez zuen bere poltsikoz az aparteko ardurarik! Bilboko langile heroikoek euren energia guztia faxismoaren aurkako borrokaren zerbitzuan jartzen zuen bitartean PNVren beldur bakarra lantegiek su hartuko zuten edo ez zen! Hauek al dira gure anaiak? Hauek al ditugu Euskal Herriko langileon eta gazteen arazoak ebatziko dizki-gutenak? Ezin dugu tranpan erori! Klase independentziak izan behar du gure politikaren oinarri, bestela euren interesen orbitara eramango gaituzte berriro ere! Gure benetako anaiekin elkartu behar dugu, Kataluniako langilearekin eta Galiziako proletarioarekin, Andaluziako jornalariarekin eta Gaztelako beharginarekin, denok batera gure etsaia, denontzat bakarra eta berbera, betirako lurpera dezagun!

PNV GERRA ZIBILEAN: HIRUGARREN ATALA

Bilboko ebakuazioarekin eta Santoñako errendizioarekin eman zion bukaera PNVk "bere gerra zibilari". Milaka euskal herritarrek beren bizia eman zuten bitartean euskal burgesiak bere interes ekonomikoak salbatu zituen.

Mila bederatziehun eta hogeita hamazazpiko apirilaren 26a. Azoka eguna Gernikan. Nazien Condor Legio ezagunak airea gurutzatu zuen aurrean zuen oro suntsituz eta herriaren hiru laurdenak errauts bilakaturik utziz. Gernika, eta bere Arbola, mendeetan zehar euskal foruen eta subiranotasunaren sinbolo izan zirenak, erasotuak izan ziren. Ehunka lagun hil ziren triskantzan. Militar kolpistek ia Gipuzkoa osoa harturik zuten, erreketek karlisten laguntzarekin. Indar italiarren laguntza ere benetan lagungarri izan zuten Gipuzkoaren konkistan. Izan ere, alde faxistak nazioarteko laguntza jaso zuen baina, zer gertatzen zen beste aldearekin? Non ziren askatasuna hainbeste maite zuten Britainia Handia, Frantzia edota Ameriketako Estatu Batuak?

Zati "errepublikarra" deituak gerraren bilakaeran jasotako laguntzaren artean Brigada Internazionalak deiturikoa aurkitzen da, mundu osotik bildutako Alderdi Komunistetako kide eta boluntarioena. Sobiet Batasunaren eta Stalinen papeara ere goraipatu izan da eman zuen berebiziko laguntzagatik. Baina, egia esan, Stalinen eskutik etorri zen laguntza nahiko berezia izan zen, bidalitako lehen kargamentua esne-hautsezko kargamentu bat izateaz gain, bidalitako armak, tankeak, eta abarrak zorrozki kobratu baitzituen irabazi milionarioak lortuz, eta Errepublikaren diru kuxak xahutuz. Stalinekin peñintsulako iraultzari eginiko traizioaren beste adibideetako bat, alegia.

Faxistek alemaniar eta italiarren laguntza jaso zuten. Britainia Handiak eta Frantziak osatutako blokeak, ordea, ez parte

hartzearen aldeko bloke bat osatu zuten, halako gatazka bategen Alemania nazia probokatu eta Europa mailako gatazka bat ekar zezakeela argudiatuz. Arrazoi hau ordea, erabat hitzezkoa izan zen. Ez da ahaztu behar garai haietan Estatu espainiarrean emandako industria garapenean atzerriko kapitalak izan zuen zeresana, eta ondorioz, herrialde hauetako kapitalistek inbertitutako diru hori galtzeko zuten beldurra. Zati errepublikarrari laguntzea buruaz beste egitea zen, iraultzairen garaipenak jabego hauen desjabetzea ekar baitzezakeen. PNVren kasuan bezala, nazioarteko burgesiaren hipokresia ere itzela zen.

BURDINAZKO GERRIKOA

Bizkaia eta Gipuzkoa mendebaldea ziren erresistentziaren azken guneak. Euskal burgesiak bere irudi ona mantendu behar zuen langileriaren aurrean, eta Burdinazko Gerrikoa deiturikoa antolatu zuten, aurrerakada faxista geldituko zuen defentsa. Batetik, gerrikoaren antolaketa bera zegoen, gabezia askoz beteak: sakontasun gutxi, airezko erasoetatik babesteko baliabiderik ez... Eta bestetik, euskal burgesiak hainbeste maite dituen bere anai langileei historian zehar egin dien traiziorik handienetakoa. Burdinazko Gerrikoa egiten aritu zen ingeniarietako bat, Alejandro Goikoetxea, alde faxistara igaro zen defentsaren planoekin eta puntu ahulenak edota amaitu gabe zeudenak erakutsi zizkien. Gerrikoak ez zuen Franko gelditu. Eta gainera ez zen lehen traizioa, horretan saiatu zen lehena harrapatua eta fusilatua izan zen. Paradoxikoak dira Ajuriagerra PNVko kideak Goikoetxeari buruz esandako hitzak: “Konfiantza izan genuen beragan, gutako bat kontsideratzen genuen PNVren familia batetik baitzetoarren”. Goikoetxeak, azken finean, gerra hasi orduko Araba edo Nafar Buru Batzarrek egin zutena egin zuen: bere interesak modu irekian defendatu.

Esanguratsuak dira une hartan Bizkaian borrokan ari ziren langileen hitzak. JSUren batailoietako kide baten hitzetan “[Irabazteko] beharrezkoa zen eusko jaurlaritzak onartzen ez zuen gerra politika bati ekitea. (...) Madrilen egiten ari zi-

ren bezalako gerra iraultzaile bat. Abantaila handi bat genuen Madrilgo defendatzaileen aurrean: ingurune menditsua”. PNVren asmoa ez zen ordea euskal inguruneak ematen zizkion mesedeetaz baliatzea. PNVren asmoa ez zen zati iraultzaileari laguntzea. PNVren asmoa kapitalismoa mantentzea zen, ordena burgesa ezartzea eta langileen esplotazioetik ateratako gainbalioetik bizitzea. Une hartan hori defendatzen zutenak ez ziren Euzko Gudaroztearen oinarrietako nazionalistak, sozialistak, komunistak eta anarkistak. Une hartan hori defendatzen zutenak faxistak ziren.

BILBOREN EBAKUAZIOA

Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuari agindu zitzaion Bilboren ebakuazioa antolatzea. Bere lehen ardura ez zen Bilbo defendatuko zukeen defentsa bat antolatzea, bertako lantegi eta enpresak ez suntsitzea baizik. 1937ko ekainaren amaieran, Bilbo erori zenean, tropa frankistek bertako industriak eta meatzeak ukitu ere egin gabe aurkitu zituzten, gerora armada faxista hornitzeko edota Alemaniatik armak erosteko erabili zirelarik. Euskal Herria eroria zen, eta kontrairaultzairen aurkako borrokan balio zezakeen potentzial iraultzaile guztia pikutara joan zen PNVk kontrola bere gain hartu zuelako. Hainbestetan defendatu zuen independentziarengatik borrokatzeko ere ahaleginik ez zitzaion ikusi. Traizioa erabatekoa izan zen.

Ez dira hemen amaitzen PNVk Gerra Zibilean eginiko azpijokoak. Burgesia azkar mugitzen da bere interes errealak defendatzerakoan (irabazia, jabegoaren defentsa...) eta ez hainbeste irudiagatik hitzez defendatzen dituenengatik (autodeterminazio eskubidea, ongizate soziala...). Katalunian iraultza oso urrutiraino eman zen, fabriken desjabetzeekin eta lurren kolektibizazioekin. Zati errepublikarrean hau defendatzen zutenak zeuden, batetik, eta gerra amaitu ostean iraultza egiteko denbora egongo zela defendatzen zuten burgesia “aurrera-koia”, stalinistak edota langileen burokratak bestetik. Iraultza honen zabalpenak beldur larria ematen zion Agirreri (ez hainbeste Franko Euskal Herrian egoteak, hark behintzat euskal

burgesiaren interesak defendatuko baitzituen). Agirrek Com-
panys (nazionalista burgesa), Azaña (errepublikarra) eta kon-
painiari euskal milizien laguntza eskaini zien bertako “extre-
mistak” geldiarazteko, izan ere, “Enpresen inkautazioek (...),
enblema komunisten eta anarkisten ugaritasunek (...) etab. sin-
patia lortzea murritzten baitzuen atzerriko potentziengan” eta
ondorioz hauen laguntzarik gabe geratu. Companysek nahiago
izan zuen hainbesteko ebidentzian ez geratu eta iraultzaren
zapalketa Alderdi Komunistako buruzagien bitartez burutu.

SANTOÑAKO ERRENDIZIOA

1937ko abuztuaren, Santoñako errendizioarekin, eman zuen amai-
tutzat gerrako parte hartzea PNVk. Ajuriagerra aginte italia-
rrarekin bildu zen eta eginiko akordioaren arabera, euskal gu-
dariak, errenditu ostean, libre geratuko ziren eta gerran parte
hartzeko obligaziorik gabe. Biztanleria euskalduna jarraitua
izango ez zela ere sinatu zuten. Hiria Fergosi koronel italia-
rrari eman zitzaion eta zenbait itsasontzi britainiar etorri zi-
ren Frantziara joan nahi zutenak biltzera. Akordioa ordea
irain bilakatu zen. Itsasontziak hustuak izatera behartu zituz-
ten italiar metrailadoreek eta Burgosko Kuartel Generalaren
erabakiei jarraiki, eusko gudariak kontzentrazio esparruetara
eta kartzeletara eramanez izan ziren, etorkizunak zer ekarri-
ko zain.

7.000-10.000 gudari inguru hil zirela uste da borrokan, 5.000
inguru izan zirela fusilatuak erretagoardian. Euskal Herritik
erbestera ihes egin zutenak 100.000 kide izan zirela uste da
gutxi gora behera. Masek dena galdu zuten, PNVk burgesi-
aren interesak defendatu zituen, bikain gainera. Euskal Herri-
ko langile klaseak ikasgai ederra jaso zuen honetatik guztitik:
batetik, beharrezkoa dela klase independentziako politika bat
mantentzea, langile klasearen defentsarako politika bat iza-
tea, burgesiarekin eginiko akordioek kontzesioak egitera bultza-
tuko baitu langileria, bestela akordiorik ez baita egongo, eta egi-
niko kontzesio horiek kaltegarriak izango direla langileentzat;
eta bestetik, Errepublika bezalako antolaketa politiko batek,
kapitalismoaren barruan eman daitekeen antolaketa modurik

aurrerakoiena badirudi ere, ez diola kapitalismoa izateari uzten eta, ondorioz, ez direla amaituko ez klase esplotazioa ezta merkatuen antolaketak eragiten dituen arazo nazionala eta kulturala ere. Errepublikak ez zuen klase zapalkuntzarekin amaitu; ez zuen autodeterminazio eskubidea eman Estatuko nazionalitate historikoentzat ezta kolonientzat ere (Maroko). Azken honetan, eta harrigarria badirudi ere, Franko izan zen Marokoko kultura eta bertako eskubide nazional-kulturalak defendatu zituen, gero altxamendu kolpistarako laguntza jasotzeko. Eta harrigarria badirudi ere, ez da burgesiaren eskeumatik ateratzen. Burgesiak dena egingo du bere interesak defendatzeko, pentsa ezin daitekeena ere bai. Hipokresia du ezaugarritzat, bere mugimenduek liluratzen duten sugea da, eztena sartzeko prest beti. Euskal langileriak klase independentziaren mailuarekin zanpatu behar dio burua burgesiaren sugeari, PNVri, hainbatetan borrokatu duen Euskal Herri aske eta sozialista bat behin betiko lortzeko!!

ARAZO NAZIONALA MARXISMOAREN IKUSPUNTUTIK

Marxismo iraultzailearentzat, askapen nazionaleko mugimenduak palanka boteretsu bat izan daitezke zapaldu guztien askapenaren aldeko borrokan, baina beti ere borroka hori zapalketa kapitalistaren aurkako eta sozialismoaren aldeko borrokarekin loturik badago

Marxek eta Engelsek sozialismo zientifikoaren oinarriak ezarri zituztenetik, langile klaseak burutu beharreko iraultzaren programa finkatuz, arazo nazionalari eta euren askatasunaren aldeko nazio zapalduen borrokari berebiziko garrantzia eman dio marxismoak. Bi iraultzaile germaniarrek gaiaren inguruan hainbat eta hainbat lan egin zituzten, eta auzi ezberdinak landu: nazio alemaniarren batasuna, herri irlandarraren borroka britainiar inperialismoaren uztarritik libratzeko, kolonien askapen nazionalaren aldeko borroka, Balkanetako auzia...

Lehen unetik, langileria iraultzailearen ikuspuntua hartu zuten arazo nazionalaren inguruan: "Beste herri bat zapaltzen duen herri batek ezin du libre izan". Era honetan, nazio zapalduen autodeterminazio eskubidearen aldeko borroka bandera iraultzailean josia izan zen. Baina edozein zapalketa motaren aurkako adierazpen honek ez zuen marxismoa nazionalismo burgesaren eta burges txikiaren aurrean belaunikatu zenik suposatu. Alderantziz, programa marxistaren esentzia bera internazionalismo proletarioarena da, muga nazionalaz gaindi, elkartutako langile klase baten borroka defendatzen duena, muga nazionalaz gaindi, antolaturik dagoen etsaiaren aurka egiteko, klase kapitalistaren aurka, bere dominaziorako nazioarteko merkatu ekonomiko bat antolatu duelarik. Lehen Internazionalaren gerra oihua, Herrialde guztietako proletarioak, elkar zaitezte! da aipatutako langile internazionalismoaren esamolderik osoena.

Marxismo iraultzailearentzat, askapen nazionaleko mugimenduak palanka boteretsu bat izan daitezke zapaldu guztien

askapenaren aldeko borroka horretan, baina beti ere borroka hori zapalketa kapitalistaren aurkako eta sozialismoaren aldeko borrokarekin loturik badago. Nazio arazoaren inguruko marxismoaren jarrerak bere zuzentasuna frogatzeko parada izan zuen, esate baterako, Errusia, eta mundu osoa, astindu zituen iraultza sobietarraren urteetan.

Leninen Alderdi Boltxebikeak, aurreko urteetan Estatu tsaristak burututako nazio zapalkuntzaren aurka borroka luzea mantendu zuenak, iraultzaren urteetan erakutsi zuen zapalkuntza nazional eta kultural ororen aurka egiteko bere nahi osoa. 1917an Urriko Iraultzaren garaipenaren ostean, Lenin eta Trotsky buru zituen gobernu boltxebikeak, aurreko urteetan boltxebikeek inperio tsaristaren barnean aurkitzen ziren nazio zapalduen autodeterminazioa aitortzeko emandako hitza bete zuen. Izan ere, garai hartako Errusia tsarista herrien kartzela bat zen.

“Iraultza sozial garaileak talde nazional bakoitzari bere kultura nazionalaren arazoak berak nahi bezala ebazteko gaitasuna emango dio, baina iraultzak —langileen mesederako eta euren baiespenarekin— eginkizun ekonomikoak batuko ditu, honen soluzio arrazional bat baldintza historikoen eta teknikoen menpe baitago, baina ez talde nazionalen izaeraren menpe. Federazio Sobietarrak estatu modu erabat mugikorra eta arina sortuko du, eta honek behar nazional eta ekonomikoak batuko ditu modurik harmonikoenean.” zioen Trotskyk.

Nazionalitate zapalduen gehiengo erabatekoak Sobiet Errepublika Sozialisten Batasunaren barnean jarraitzea erabaki zuen. Ukrainako, Georgiako, Lituaniako, Estoniako, Letoniako...langileria borroka iraultzailearen abangoardian egon zen, eta ez zeuden prest lehengo esplotatzaile errusiar handiak beste esplotatzaile batzuegatik ordezkatzeko, hauek euren hizkuntza bera hitz egin edota sinbolo kultural berberak gurtzen bazituzten ere.

Iraultza sozialeko egoera hartan —industrien desjabetzea, lurren okupazioa eta lur jabe handien jabetzen abolizioa ematen ari zen unean—, nazio zapalduetako klase agintariak propaganda independentistari izugarrizko bultzada eman zioten sobieten errepublikaren aurka egiteko nahian, izan ere, hauek defendatutako sistema euren interesen aurka baitzegoen era-

bat. Ukrainako, Georgiako, Finlandiako...burgesiak “autodeterminazioaren” bandera hipokresia osoarekin astinduz euren lantegien eta lurren jabetzak mantentzen jarraitu nahi zuten, eta euren nazionalitate berbereko langile eta nekazariak zapaltzeko eskubide sakratua izaten jarraitu nahi zuten. Euren patriotismoa, diktadura tsaristapean bigarren plano batean uzten zutena burutzen zituzten negozio oparoak segurtatzeko, zakur amorratuak bezala defendatzen hasi ziren iraultza sozialista usaindu zutenean. Mahai gainean aurkitzen ziren klase interesak ikusirik, iraultza zapaltzeko bidalitako nazioarteko 21 armadak (Frantzia, Britainia Handia, Alemania...) izan ziren desjabetutako burgesiaren “nahi” nazionalak bultzatu zituztenak.

Bururatu daitezkeen zailtasun guztiekin, boltxebismoaren politika iraultzaileak, bere ikuspegi internazionalistak, nazionalitate guztietako langile klasea batzea baimendu zuen etsai berberaren aurka. Era honetan, sozialismorako trantsizioko gizarte batean, argi geratu zen belaunaldiz belaunaldi igarotako lehia nazionalak eta gorrotoa adiskidetasunezko elkarbizitza bat bihur zitekeela, herri guztien eskubide demokratikoak defendatuko zituen sistema batean, eta kapitalismoak ez bezala, bere eginkizun ekonomikoak burutzeko beste nazio bat zapaltzearen beharrik ez zuen sistema batean.

Errusiako Iraultzari buruz eginiko bere obran, Trotskyk zera zioen: “XIX. mendeko gerren eta iraultzen oinarritzko eginkizuna merkatu nazional bateko ekoizpen baliabideak segurtatzea zen bitartean, gure mendeko eginkizuna ekoizpen baliabideak muga nazionaletatik askatzea bilakatu da, hauek aipaturiko baliabideen garapenerako oztopo bilakatu baitira.” Langile klasea, produkzio kapitalistan jokatzen duen paperagatik, izan daiteke baliabideen internazionalizazio hau nazioen askapenarekin uztartu dezakeen klase bakarra.

Sobiet Batasuna erori ostean, burgesiak hasitako kanpaina optimismoz betea izan zen. Burgesiak ordainduriko filosofo eta pentsalarien arabera, jada erantzunda zegoen sistema sozial-ekonomiko alternatibo bat posible zen edo ez galdetzen zuen auzia. Handik aurrera, mundu zoriontsu batean biziko ginen, hazkuntza ekonomikoak geldialdirik izango ez zuena, eta nazio arazoarekin amaituko zuena, herri guztien integra-

zio harmoniatsu batekin. Historiak erakutsi du baieztapen hau gezurra dela. Batetik, esan behar da, erori zen sistema ez zela sistema sozialista bat, sistema stalinista degeneratu bat baizik; eta bestetik, arazo nazionalak gutxitu beharrean handitu eta konplexuago bilakatu direla. XX. mende amaierakoak ditugu Jugoslavia zaharrean jazotako sarraskiak, eta ezin esan daiteke, Ekialde Hurbilean, Saharan edota Euskal Herrian bertan arazoaren soluziorik eman denik.

Artikulu honekin arazo nazionalari buruz hitz egingo duten testu zerrenda luze bati emango zaio hasera. Bertan iraultza burgesetatik eta nazionalismoen sorreratik emandako gertaeretatik (Frantziako Iraultza, 1848ko Iraultzak, Alemaniaren eta Italiaren batasuna...) gaurdainokoak biltzen saiatuko gara, jada proletalgoak munduaren historian protagonismoa hartu duten garaietakoak alegia. Irlanda, Polonia, Palestina, Balkanak, juduen auzia, Euskal Herria...aipatuko ditugu besteak beste, eta Euskal Herriaren kasuan ez da zaila izango analogia ezberdinak bilatzea. Esan beharrik ere ez, artikulua-
ren erdialdean aipatzen genuen nazionalitate zapalduko burgesiak bere garaian jokatzeko zuen papera gaur egun PNVk jokatzeko duenaren berbera dela. Historiak, alde horretatik, ematen dizkigun irakasgai anitzak azaltzen saiatuko gara, benetan baliotsuak baitira. Azken finean, testu sorta honen helburua bikoitza da: alde batetik, marxismoak arazo nazionalaren inguruan duen ikuspuntuari buruz esan diren gezur eta irain guztiei erantzun bat ematea, sozialismo zientifikoaren autoreen testuetara joz (ez marxismoaren kritikoek egiten duten bezala, gehienetan ez baitira Marxen, Engelsen, Leninen edo Trotskyren testuak irakurtzen ere jarri), eta bestetik, euskal langile klaseak eta gazteriak iraultza sozialista aurrera eramanez, bere arazoekin amaitzeko modu bakarra baita, egin beharreko politika azaltzea, klase independentziaren eta langile internazionalismoaren politika, Euskal Herriaren eta mundu osoko nazionalitate zapaldu guztien benetako independentzia nazionala lortzeko askapen borroka honetan.

NAZIO AUZIA ETA KAPITALISMOAREN ARAZOAK: JABEGO PRIBATUA ETA ESTATU NAZIONALA

Nazionalitateen auzia (nazioen eta gutxiengo nazionalen zapalketa) inperialismoaren ezaugarrietako bat da, bere jaiotzatik gaur egun arte, eta teoria marxistan leku nagusi bat bete izan du beti. Leninen idatzia izan ziren zehazki arazo hain garrantzitsu honetaz arduratu zirenak, eta oraindik ere gai konplexu honi ekiteko oinarri solido bat ematen jarraitzen dute.

Boltxebikeek gaia modu egokian landu izan ez balute ez zuten inola ere boterea lortuko 1917an. Kapa zapalduen buruan ipiniz soilik lortu zuten proletalgoa sozialismoaren banderapean biltzea eta zapaltzaileen agintea eraisteko behar adina indar biltzea. Inperio tsaristako nazionalitate zapalduen arazoak eta nahiak ulertu izan ez balituzte, proletalgoaren borroka iraultzaileak ez zukeen arrakastarik izango.

Giza garapenaren bi oztopo handiak, batetik, ekoizpen baliabideen jabego pribatua, eta bestetik, Estatu nazionala dira. Baina ekuazioaren lehen zatia egiazko edozein iraultzailerentzat nahikoa argi dagoen bitartean, bigarren gaiari ez zaio behar adinako arreta eskaini. Orain, gainbehera inperialistaren garai honetan, hiltzorian dagoen sistema sozio-ekonomiko baten kontraesanak maila jasanezinetaraino iritsi diren une honetan, arazo nazionala berriro ere azaleratzen da leku guztietan, ondorio tragiko eta odoltsuekin. Konponbidea etorri beharrean, bere jatorrietara itzuli da, giza garapenaren fase zahar batera, eta nazio guztiak basakeriara bultzatzeko mehatxua dakar. Arazo honekin amaitzea beharrezko aurrebaldintza da sozialismoaren mundu mailako garaipenerako.

Herrialde batek berak ere (ezta Estatu handienek eta boteretsuenek ere) ezin dio nazioarteko merkatuaren agente zapal-

garriari aurre egin. Burgesiak globalizazio bezala deskribatzen duen fenomeno, Marxek eta Engelsek duela 150 urte aurreikusia, orain errebelatzen zaigu ia laborategiko baldintzetan. Bigarren Mundu Gerraren ostetik, batez ere azken 20 urteetan, lanaren nazioarteko banaketa modu izugarrian intentsifikatu da eta nazioarteko merkataritzaren garapen ikaragarria eman da, Marxek eta Engelsek pentsatu ere ezin izan zuten mailara iritsiz. Mundu mailako ekonomia honen garapena, izatez, gertakari aurrerakoi bat da, nazioarteko sozialismoarentzako baldintza materialen existentzia islatzen baitu.

Mundu ekonomia nazioarteko 200 enpresa handienen esku dago. Kapitalaren kontzentrazioa proportzio harrigarrietara iritsi da. Egunero, transakzio internazionalak 1,3 bilioi dolar mugitzen dituzte eta transakzio hauen %70a multinazionalen artean burutzen da. Diru kantitate izugarriak xahutzen dira pentsaezinezko botere bat geroz eta enpresa gutxiagotan biltzeko. Basapiztiak bailiran portatzen dira, bata bestearen ehizan, ea nork irabazi kantitate handiagoa. Testuinguru honetan Leninen Inperialismoa, kapitalismoaren fase gorena liburuak egunerokotasun handiagoa hartzen du.

Leninek azaltzen zuen inperialismoa monopolio handien eta trusten garaiko kapitalismoa dela. Baina Leninen egunetako monopolizazio mailak ume joko bat dirudi gaur egun. Esaterako, 1999an nazioarteko absortzioak 5.100 izan ziren. Transakzioen balioa 798.000 milioi dolarretakoa izan zen. Kantitate hauekin planetako lehen-leheneko arazoak konpondu ahalko lirateke: pobrezia, analfabetismoa eta eritasuna. Baina honek ekoizpen sistema arrazional baten existentzia eskatzen du, non gehiengoaren beharrak gutxiengo baten irabazien aurretik egongo liratekeen. Multinazional erraldoien botere izugarriak, Estatu kapitalistarekin geroz eta fusionatuagoak daudenak, Wright-Mills soziologo estatubatuarrek “konplexu indutrial-militarra” izendatzen duen fenomeno dakar, eta munduaren gainean historian zehar inoiz ikusi ez den agintea du.

Hemen kontraesan handi bat ikusten dugu. Kapitalismoaren apologista burgesek eta burges txikiek zera baieztatzen dute, globalizazioak jada Estatu nazionalak garrantzirik ez izatea ekarri duela. Hau ez da berria. Kautskyk Lehen Mundu Gerran zehar erabili zuen argudio bera da (ultra inperialismoa

deituriko teoria), eta teoria honek kapitalismo monopolistaren eta inperialismoaren garapenak pixkanaka-pixkanaka kapitalismoaren kontraesanak ezabatuko zituela defendatzen zuen. Jada ez zen gerrarik egongo, kapitalismoaren beraren garapenak Estatu nazionala zerbait alferrikakoa bilakatuko baitzuen. Gaur egun hainbat teoriko errebisionistek eta stalinista ohiek defendatzen duten argudio bera da: Estatu nazionala giza historiaren garai iragankor bat izan zen eta gainditurik dago, arazo nazionala desagertu egingo da kapitalismoaren garapenarekin. Sistema kapitalistatik bereiz ezin daitekeen kontraesan hau arazoa bera existitzen ez dela argudiatuz ezabatu nahi dute. Eta hain justu orain da, nazioarteko merkatua planetaren indar agintaria bilakatu den honetan, antagonismo nazionalak izaera bortitzagoa hartzen ari diren unea, eta arazo nazionala, konpondu beharrean, konplexuago bilakatzen ari da.

Inperialismoaren eta kapitalismo monopolistaren garapenarekin, kapitalismoak jabego pribatuaren eta Estatu nazionalaren muga hertsia gainditzea lortu du, gaur egun kapitalismoaren aurreko printzerri txikiek eta estatu lokalek jokatu zuten paper bera jokatu. Lehen Mundu Gerran zehar Leninek honako hau idatzi zuen: "Inperialismoa kapitalismoaren fase goren da. Herrialde aurreratuetan, kapitalak Estatu nazionalen markoa gainditu zuen eta monopolioa konpetentziaren lekuan ipini zuen, sozialismoa burutzeko aurrebaldintza objektibo guztiak sortuz." (Iraultza sozialista eta nazioen autode-terminaziorako eskubidea). Baieztapen hau ulertzen ez duena ez da arazo nazionala ulertzeko gai izango, eta ez ditu egungo garaiaren ezaugarri garrantzitsuenak ere ulertuko.

Azken 100 urteetako historiaren ezaugarria indar produktiboei Estatu nazionalaren muga estuen aurka egin duten errebolta izan da. Kontraesan nazionalak amaitu diren mundu bat, teoriko errebisionistek dioten moduan, asmakeria hutsa da; errealitatea guztiz kontrakoa da. Kapitalismoaren krisi orokorrarekin arazo nazionalak ez die herrialde kolonial ohiei bakarrik eragin, herrialde kapitalista aurreratuak ere asaldatu ditu, baita arazoa amaitu zela uste zen lekuetan ere. Belgikak (Europako herrialde garatuenetako batek) baloien eta flandriarren gatazka pairatzen du. Txipreko greziarren eta turkiarren arteko antagonismo nazionalak Grezia eta Turkiara

ere iritsi dira. Duela hamarkada bat, Balkanetako arazo nazionalak Europa ia-ia gerraraino eramán zuen.

Estatu Batuetan beltzen eta hispanoen aurkako arrazismoaren arazoa aurkitzen dugu. Alemanian, Estatu frantziarrean edota espainiarrean etorkinen aurkako diskriminazio eta eraso arrazistak ikusten ditugu. Sobiet Batasun zaharrean arazo nazionalak herrialdeen arteko gerra odoltsuaren itxura hartu du. Britainia Handian (kapitalismoaren existentzia luzeena izan den herrialdean) arazo nazionalak konpondu gabe jarraitzen du, ez Ipar Irlandan bakarrik, baita Galesen eta Eskozian ere. Italian, Iparraldeko Ligak Italia zatitu nahian, Pandaniaren autodeterminazio eskubidea modu erreakzionarioan defendatzen du. Ondorioa argia da. Arazo nazionala ukatzea arriskutsua da. Gizartea aldatzeko langile klasea muga nazionalez haraindi batuko duen programa bat behar da, bai-koitzaren kontsigna nazionalak, hizkuntza eskubideak, eskubide kulturalak, eta noski, hauek bilduko lituzkeen autodeterminazio eskubidea bandera iraultzailean txertatuz. Marxek, Engelsek, Leninek eta Trotskyk hain argiro ulertu zuten arazo hau sistema sozio-ekonomikoa aldatzeko borrokarekin soilik konponduko da, sistema kapitalista eta bere merkatu askea izan baitira arazo nazionala eragin dutenak. Arazo nazionala konpontzeko, arazo nazionala bera eragiten duen kausa ezabatu behar da, kapitalismoa, eta Euskal Herriko langile klaseak burgesia espainiarrarekin, frantziarrarekin eta euskaldunarekin amaitu nahi badu beharrezko izango du langile galiziarrekin, kataluniarrekin, espainiarrekin, bretoiiekin, kortsikarrekin eta frantziarrekin batzea, denak batera, eta eskubide nazionalen kontsigna gogoan, Estatu espainiar eta frantziarrarekin, denok zapaltzen gaituzten etsai komunekin amaitzeko. Askok ezi-nezkotzat ikusiko dute hau, baina historian zehar eman da batasun internazional hau, eta nazio zapalduen historia azaltzen saiatuko gara ondorengo artikuluetan ere.

ARAZO NAZIONALA HISTORIAN

ZEHAR

Estatu burges nazionalen sorrera burgesiaren eginkizun historikoa izan da. Baina burgesiak ez du nazio guztien subiranotasun nazionala bermatu, ondorioz zapalkuntza nazionala ez da amaitu oraindik.

Hainbat historiagileren arabera nazioak beti egon diren zerbait dira, betierekoak, aldaketarik jasaten ez dutenak, “naturalak”. Halako ezaugarriekin nazio kontzeptua biologiaren atal bat bilakatzeraino iristen dira. Nazioak aldagaitzak direnez prozesu historikoek ez dute eraginik berengan. Halako joera erromantikoek ez dute sostengu zientifikorik ordea. Sabino Aranak idealizatutako euskaldun zintzoak (kristaua eta foruzalea) ez du zer ikusirik duela milaka urteko baskoi paganoe-kin. Erabat okerra litzateke egungo Euskal Herria, nazio bezala hartuta, duela 3000 urtetan zeuden gizarte tribalekin alderatzea, egungo gizartea iraganeko haien eboluzio bat baldin bada ere. Eta, azken batean, hor dago funtsa, nazio bat edota kultura jakin bat (hizkuntzak, ohiturak, sineskerak...) elkarbanatzen duten jende multzo bat, historikoki eboluzionatzen doan entitate bat da. Marxismoaren teorikoek azaldu bezala, nazioak ere aldaketara beharturik daude eta dialektikaren legeek eragina dute berengan, egonkortasuna ezinezko bilakatzen delarik.

Gauza bera gertatzen da egun ezagutzen ditugun Estatu handiekin. Jende askok Estatu nazional burgesa zerbait naturala dela uste badu ere, iragan urrun batean edota gizon eta emakumeen odol eta ariman errota, “beti hor egon dena”, errealtatean kreazio erlatiboki modernoa da, azken bi mende-etakoa hain zuzen ere. Salbuespen gisa Holanda eta Ingalaterra soilik genituzke Mendebaldeko Europan. Lehen ez zeuden halako estatu nazionalak; tribuak, hiri-estatuak eta inperioak baizik. Baina giza Historiaren eboluzioak antolaketa modu batzuk suntsitu ditu beste batzuk hauen errautsetatik sortuz,

eta Estatu nazionalak ere beti ez dira existitu eta ez dira beti existituko. Estatu nazional burgesa kapitalismoaren produktua da, burgesiak sortu zuen merkatu nazional bat behar zuelako. Kontuan hartzekoa da espazio bat erreinu, printzerri eta dukerri txikitan zatituta egoteak feudalismoan zekartzan arazok: leku bakoitzean neurri sistema ezberdinak, moneta ezberdina, mugetan zergak ordaindu beharra... Lekuko partikularismo hauen ezabapena burgesiak burututako eginkizun benetan aurrerakoia izan zen ekoizpen baliabideen garapenerako.

Iraultza honentzako oinarria jada bazen feudalismoan. Errege feudalek merkatari eta bankari talde jaio berriari eskatzen zieten dirua gerretan parte hartzeko. Baina aldi honetan oraindik ez ziren aurkitzen merkatu ekonomiaren garaian. Frantziak Ingalaterraren aurka izandako Ehun Urteko Gerrak estatu hauen itxura definitu zuen, baina artean izaera feudala eta dinastikoa zuten nazionala baino gehiago; gudariek "leialtasuna" euren jaunari zioten, ez Frantziako erregeari. Garapen ekonomikoak kapitalismoaren, moneta ekonomiaren eta merkatu nazionalen sorrera dakar ordea, eta honek kontzientzia nazionalaren eraketan eragin zuzena izan zuen. Monarkia absolutistak jaio ziren, aurreko unitate politiko txikien zentralizazioaz sortuak, eta honekin izpiritu nazionala. Nazio auzia, ikuspuntu historiko batetik, iraultza demokratiko burgesaren aldiarekin erlazionaturik dago, baina burgesia, feudalismoaren aurkako borrokan, ez zen gai izan arazo hau konpontzeko.

Burgesiak Estatu nazionalak (edo plurinazionalak) sortu zituen. Estatu nazionalaren eraketa, bere garaian, gertakizun benetan iraultzailea eta aurrerakoia izan zen ekoizpen indarren ikuspuntutik. Hala ere garrantzitsua da gogoratzea helburu hau ez zela bide baketsuetatik eta borrokarik gabe lortu. Europako lehen nazio estatua, Holanda, inperialismo espainiarraren aurkako askapen nazionaleko borroka baten itxura hartu zuen iraultza burges batetik sortu zen XVI. mendean. Ameriketako Estatu Batuak ere askapen nazionaleko iraultza burges batetik sortzen dira. Italian eta Alemanian ere modu berean gertatu zen, burgesiak prozesuen gidaritzan izan zuelarik.

ESTATU FRANTZIARRAREN IRAULTZA BURGESA

Europako estatu modernoak, salbuespenak salbuespen, Estatu frantziarreko Iraultzaren ostean sortzen dira. Ordura arte Estatu nazionalaren ideia monarkiaren berbera zen. “Nazioa” errege subirauaren jabetza zen. Forma legal zaharkitu hau, feudalismoaren herentzia zena, gatazkan sartu zen burgesiaren gorakadarekin sortzen ari ziren erlazio mota berriekin. Feudalismoa suntsitzeko eta boterea lortzeko burgesiak borrokaren buruan jarri behar izan zuen herriaren, hau da, “Nazioaren”, ordezkari bezala. Robespierrek esan bezala “Estatu aristokratikoetan aberria hitzak ez du esanahirik, familia patrizioentzat baino, subiranotasuna bahiturik baitute. Demokraziarekin soilik bilakatzen da Estatua bera osatzen duten gizabanako guztien benetako aberria.”

Iraultza Frantziarraren printzipioetako bat zentralizazioa izan zen eta burgesiak ez zituen kontutan hartu nazio ezberdinetako aspektu kultural edota linguistikoak, Estatu jaio berrian zeuden gutxiengoen kalterako (kortsikarrak, bretoiak, normandiarak, euskaldunak...). Oraindik, Estatu frantziarrak nazio hauek zapaltzen jarraitzen du “liberte, egalite, fraternite” lelopean. Baina egia da nazio ezberdinetako herritarren batasuna nahitaezkoa izan zela Iraultza bizirik mantentzeko. Erreakzio feudalaren armetako bat izan zen hain zuzen gutxiengo horien desberdintasunak bultzatzea Estatu osoko herri iraultzailea zatitzeko. Hala ere ez zuten lortu, nazio guztietako herritarrak elkartu egin ziren erreakzio feudalaren aurka iraultza burgesarren garaipena eskuratzeko.

Estatu frantziarreko eta bertako nazioetako herritarrak eredu bilakatu ziren beste herrialde guztietako zapalduentzat. Armak eskuan garaipen itzela lortu zuten hasieran euren agintari feudalak garaituz, eta gero Europako herrialde atzerakoienean aurka eginez. Okupatzen zuten leku orora zabaltzen zuten mezu iraultzailea. Iraultzaren lehen fasean tropa frantziarrak tropa askatzaile bezala ikusten ziren. Hartzen zituzten lurretako jendearen babesa lortzen zuten hasieran, baina behin une batetik aurrera, eta batez ere Napoleonen ostean, inposizio hau onartzen hasi ez zirenean, herri inbadituek segituan ulertu zuten subiranotasun nazionala lortzeko indepen-

dentzia nazionalaren alde borrokatu beharko zutela. Berriz ere Robespier iraultzaile frantziarra aipatuz, “inori ez zaizkio baionetadun misiolariak gustatzen”. Dialektikaren legeak berriro ere baieztatuz, Napoelonon bateratze nahiek askapen nazionalen aldeko borrokak bultzatu zituzten, Europako estatu modernoak garatuz. Ondorio bezala, beraz, esan behar iraultza burgesa izan zela XVIII eta XIX mendeetan Europako Estatuaren itxura definitu zuena.

ETENGABEKO IRAULTZA

Napoleonen aurkako askapen borrokek estatu berriak ekarri zituzten, baina arazo nazionala amaitu al zen? Izan ere, askapen borroka hauen ostean Estatu bakoitzeko burgesiak bere merkatu nazionala eratu nahi zuen eta une horretan beraien Estatuaren barnean ere nazio eta kultura ezberdinak aurkitzen zirela ikusten zuten. Naziotasun identitate bat inposatu nahiak askapen borrokak bultzatzen zituen eta hori ez zuen burgesiak gogoko, baina langile mugimenduetan langileak batzea ere ez zuen gogoko eta orduan nazio ezberdinetako herritarrak zatitzen saiatu zen Estatuaren batasuna mantentzeko. Zirkulu amaigabe batean sartzen gara horrela eta batzuetan askapen nazionalaren alde borrokan ibili den gizarte sektore bat (burgesia) beste batzutan nazioak zapaltzen ikusten dugu. Baina azken batean, hori da burgesiaren logika. Burgesiak ez zituen aurreko askapen nazionaleko borrokak nahi kulturallengatik bultzatu. Eta egia da une hartan borroka askatzaile haiek ekoizpen baliabideen garapenean bultzada handia eragin zutela, baina bi kasuetan, bai burgesiak nazio baten subiranotasun nazionalaren alde edo kontra egiten zuenean, helburua berbera zen: merkatu nazional baten jabe izatea.

Gaur egun ere, ikus dezakegu zenbait kasutan burgesia nazio baten independentzia bultzatzen, baina ez da izango herri horren askapen edo subiranotasun nazionalaren alde, bere interes ekonomikoen mesedetan baizik. Hor dugu Montenegroren kasua, AEB eta Europako burgesiek bere independentzia bultzatu zuten, baina Montenegro ez da lehen baino askeago, potentzia hauen zapalkuntza jasaten ari da. Trotskyren Eten-

gabeko iraultzak burgesia zenbait eginkizunetarako ezgaitua dagoela dio (horien artean nazio guztien subiranotasun nazionalaren lorpena) dituen interes ekonomikoengatik, eta gainera, kasu askotan nazio zapalduko burgesiak ere ez duelako askapenerako interesik nazio zapaltzaileko burgesiarekin finkatu dituen loturengatik. Kapitalismoan ez da arazo nazionala desagertuko estatu burges indartsuenak behartuta baitaude beste nazioak zapaltzera potentzia inperialisten artean bote-rea ez galtzeko. Langile klaseak soilik burutu dezake eginkizun hau iraultza sozialistarekin, munduko nazio guztiei subiranotasun nazionala ematea, eta Estatu burges nazionalen merkatuak suntsituaz, nazioarteko ekonomia planifikatu batekin, mundu mailako batasun ekonomikoa eta nazio askatasuna uztartzea. Gure esku dago lan hori, eta borroka horretarako aurrebaldintza munduko langile guztiok, mundu osoan berdin-berdin zapaldurik gaudenok, batzea da etsai amankomunari indarrez aurre egiteko.

ARAZO NAZIONALA ETA KLASAREN ARTEKO KOLABORAZIOA

Gizartearen eraldaketa iraultzaile baten alde borroka egin duten ekintzaileen artean betidanik izan da klase kolaborazioaren inguruko eztabaida, bai langile mugimenduaren hastapenetan, bai 1848ko iraultzen testuinguruan edota baita Trotskyren Iraultza etengabearen teoriak Stalinen fronte popularren eta "herrialde bakar bateko sozialismoaren" tesiarekin talka egin zuenean ere.

Burgesiarekin batera borrokatu behar da edota hau erabat deskartaturik dago burgesiaren eta proletalgoaren interesak erabat kontrajarriak direla eta? Edota zilegi al da burgesiarekin elkartzea, nazio zapalduen kasuan, hau langileriaren nazionalitate berekoa izanik zapalketaren sufrimendua guk bezalaxe pairatzen duelako? Argi dago marxismoak ez duela doktrinarik planteatzen, ez du egoera guztietara aplikatu daitekeen erregelarik aldarrikatzen, eta testuingurua aldakorra den heinean, langileri iraultzaileak egoeraren arabera zuzendu beharko du bere politika.

Frantziako Iraultzarekin amaitzen genuen aurreko zatia. Iraultza hauek burgesiak zuzenduak izan ziren, langileriak mugimendu horretan parte hartuz. "Baina burgesiak langileria zapaltzen du" esango liguke enpirista batek, eta bai, egia da, dudarik gabe, iraultza burgesen garaietan ere langileria burgesiak zapaldua zen eta ziurrenik egoera tamalgarriagotatzen. Hala ere, burgesiak garai hartan bere eginkizun historikoa amaitu gabe zuen. Gizarteko erlazio feudalek (bere jaunari lotutako nekazaria, gremioen legeak bete behar zituen artisauek,...) burgesia merkatariaren interesak zapuzten zituzten. Burgesiak lehia nahi zuen, eta horretarako gremioekin amaitu behar zuen, burgesiak merkatua nahi zuen, eta horretarako morrontzarekin amaitu behar zuen. Ondorioz, burgesiaren helburua garbia zen: feudalismoarekin amaitzea, bere dikadura ezartzeko. Eta enpiristak akaso esango luke "baina horrek

ez du ezer aurrerakoitik, burgesiaren interesak ari zarete defendatzen, bere interes pribatu partikularrak”, eta berriro ere baietz esango diogu enpiristari, hala ari garela marxistak izan arren, baina ikus dezagun zer ondorio historiko dakartzan burgesiaren interes pribatuak defendatzeak garai historiko honetan:

“Burgesiak geroz eta gehiago ezabatzen du ekoizpen baliabideen, jabetzaren eta biztanleriaren zatiketa. Biztanleria metatu du, ekoizpen baliabideak zentralizatu ditu eta jabetza esku gutxi batzuetan kontzentratu du. Burgesiak, bere klaseko agintean zehar, zeinak ez duen ia-ia mende bateko existentzia ere, aurreko belaunaldi guztiek batera sortu zutena baino ekoizpen indar oparoagoak eta izugarriagoak sortu ditu. Naturaren indarren menperatzea, makinaren erabilera, kimikaren aplikazioa industrian eta nekazaritzan, lurrun bidezko nabigazioa, trenbidea, telegrafo elektrikoa, kontinente osoak laborantzarako asimilatzea, nabigaziorako ibaiak irekitzea, sorginkeria bidez hiri osoak sortuz lurretik aterako balira bezala. Aurreko zein mendek susma zezakeen bederen halako ekoizpen indarrak lozorroan aurkitzen zirenik lan sozialaren barrenean?” (Manifestu Komunista, Karl Marx eta Friedrich Engels).

Giza Historian lehen aldiz, mundu guztia asebetetzeko adina ekoizpen baliabide sortu zen, ekoizpenaren antolaketagatik mundu guztia asebetetzea lortzen ez bada ere. Baina ikusi besterik ez dago zein den ekonomia kapitalistaren krisien esentzia: merkantzien gain-produkzioa. Hala ere, ezin uka diezaiokegu burgesiari burutu zuen paper iraultzailea. Dialektika materialistak azaltzen digu, ordea, gauza bat bere aurkakoa bilakatzen dela, eta burgesiaren interes pribatua aldi historiko batean zehar gizateriarentzat aurrerakoia izan den bitartean, gerora interes pribatu hori erabat kaltegarri bilakatuko da. Aldaketa une hau, burgesiaren paper iraultzailea amaitzen den unea, 1848ko Iraultzek markatzen dute Europa Mendebaldeko herrialde aurreratuetan. Jada ezin zuten ekoizpen baliabideen garapena bultzatu, sortzen hasi ziren krisiek hauek suntsitzera bultzatzen zituzten. Manifestu Komunista argitaratu zen garaia da eta sozialismo zientifikoaren gurasoek esan bezala, langileriaren eginkizun historikoa hasteko unea zen.

Burgesiak askapen nazionalako borroka ekoizpen baliabideak garatzeko burutu zituenen, jarrera aurrerakoa zen. Baina bere progresismo soziala garai honetan amaitzen den bezalaxe, arazo nazionalarentzat ere inflexio puntu bat izan zen garai historiko hau. Ekoizpen baliabideak ahal beste garatu dituen klase iraultzaileak ez du jada askapen nazionala bermatzeko gaitasunik izango, are gehiago, krisien jaiotzak burgesia nazio zapalduak orduan eta gehiago estutzera joko du, interes nazionalen defentsa (Britainian, Frantzian...) erreakzionarioa bilakatuko da. Lehen jaun feudalak saiatu ziren masak zatitzen, nazionalismo ezberdinak aldarrikatuz. Orain burgesia ere hauek bultzatzen saiatuko da, batasun iraultzailearekin apurtzeko, eta elkarren aurka ipiniko ditu langileak arrazakeria, erlijioagatiko etsaitasuna eta xenofobia bultzatuz.

1848ko arazo nazionalaren inflexio puntuak beste nazio zapaldu batzuen aldarrikapenak ekarri zituen: alemaniarrenak, poloniarrenak, italiarrenak eta magiarrenak. Langile klaseak, iraultza hauetan jada paper independente bat jokatzeko zuelarik, garaipena eskuratu izan balu, Alemaniako eta beste herrialdeetako arazo nazionalak konpontzeko metodo demokratikoak ekarriko zituzkeen. Baina iraultzaren porrotak arazoa beste era batzuetara konpontzea ekarri zuen.

Alemaniako nazio auzia hitz batean laburtu daiteke: bateratzea. Herrialdea printzerri eta estatu txikietan zatikaturik zegoen eta hau oztopo nabarmena zen bertako kapitalismoaren garapen aske bat eman zedin. Batasunaren eskaera aldarrikapen aurrerakoa zen. Kontua bateratze prozesua nork eta nola eramango zuen aurrera zen ordea. Marxen esperantza eginkizuna beheko oinarriek burutzea zen —langile klaseak metodo iraultzaileekin— baina ez zen hala izan. 1848an proletargoak metodo iraultzaileekin egin zuena Bismarckek burutuko zuen gero metodo erreakzionarioekin. Militarismo prusiarra izan zen batasunaren oinarria, eta honek Europan gerra berriak sortzeko bidea ireki zuen. Langile klasea izango zen gatazka hauetan odol hustuko zena.

Ikus dezakegun bezala langile klasearentzat zerikusi handia du arazo nazionala modu batean ala bestean konpontzen den, konponketa horretan zein klase den mugimenduaren zuzendari. Argi izan behar dira beti bai zein den uneko testuin-

gurua bai zein diren klase bakoitzaren interesak. Langile klaseak egoera jakin batzuetan burgesiarekin elkartu behar izan bazuen ere, gauza bat argia da: beti klaseko jarrera mantendu behar da, burgesiak askapen nazionaleko mugimendua bere interesak asetzen dituen bitartean bakarrik defendatuko baitu. Burgesiak izan zuen aukera bere garaian, baina jada historikoki iraungirik dago paper aurrerakoi bat jokatzeko.

Euskal Herriaren kasuan analogia bat egiten badugu, ikus dezakegu nola euskal burges eta liberalek karlisten aurkako apustua egin zuten, izan ere, karlismoak defendatzen zituen gizarte-erlazio feudalek bere jarduera ekonomikoen askatasuna murrizten baitzioten. Burgesiak erlazio hauek suntsitu zituen, eta zentzu horretan burutu zuen papera aurrerakoia izan zen, historian lehen aldiz Euskal Herrian gizarte sozialista baten eraketarako oinarriak ezartzen baitziren. Hala ere, langile klaseak, bere erakundeek eta sindikatuek, klaseko antolaketa modu orok, argi izan behar du eginkizunak zein klasek burutu halako itxura izango duela gero. Euskal Herriaren kasuan burgesiak metodo erreakzionarioak erabili zituen, garaienaren ostean bere ekintza euskal nazio zapalduaren sinbologia eta aztarna kultural oro suntsitzea izan zen. Argi dago industrializazioa zela eta sortu berri zen langile klaseak, bere metodo iraultzaileak, greba orokorra eta matxinada, erabili izan balitu, gauzak beste era batetan gertatuko zirela.

Baina jada ez gaude egoera honetan. Erlazio feudalaren apurketa eman zela mende bat baino gehiago igaro da eta sozialismorako oinarriak ezarririk daude. Burgesiak ez du iraultzarik zuzentzeko. Euskal Herriaren askapen nazionala eta bere interes ekonomikoak ez datoz bat. Langile klasea izango da bere metodoekin euskal arazoa konponduko duena. Horretarako, betebeharreko bi baldintza argi: metodo iraultzaileak eta klaseko independentzia. Burgesia bezalako gorpu hilak oztopo bat besterik ez dira nazio askapenerako bidean.

ARAZO NAZIONALA: ALEMANIA ETA ITALIAKO BATERATZE PROZESUAK

Literatura erromantikoak kalte handia egin dio Alemaniako eta Italiako bateratze prozesuen azterketari. Otto von Bismarck eta Cavour Alemaniaren eta Italiaren libertadore gisa marraztu dizkigute, hurrenez hurren.

Eta noski, ezin uka daiteke bi estatu gizon hauek bi nazio zaitikatu hauen bateratzea aurrera eraman ez zutenik, baina zuten nazio askatasunaren kontzeptua nahiko desberdina da herri xeheak zuenarekiko. Bi gizon hauek bateratze prozesua “askatasun unibertsalaren maitaleak” zirelako burutu zutela esatea literatura erromantikoaren asmakeria hutsa da.

Marxismoa, bere hastapenetatik, zapalkuntza nazionalaren aurka egon da (ikus Manifestu Komunista), eta Alemaniaren eta Italiaren batasun prozesuak begi onez ikusiak izan ziren. Hori bai, beti batasun hura azpitik eman izan bazen, langile klasearen iniziatiba bezala, prozesuak desberdintasun garrantzitsuak izango zituela azpimarratuz. Azken finean, ikus daiteke nahiz eta helburua berbera izan, Alemaniaren eta Italiaren batasuna alegia, batasun horretara bultzatzen zituzten arrazoiak oso desberdinak zirela: burgesiak interes ekonomiko eta politiko soilengatik bultzatu zituen bitartean (diskurtsu askatzaileak erabiliz), herria mugitzen zuena nazio sentimendua zen.

BISMARCK ETA ALEMANIA

Aurreko alean aipatzen genuen bezala, Alemaniako batasuna ez zuen bertako langile klaseak burutu, militarismo prusiarrak baizik. Bismarck estatu gizon eta diplomatiko argia zen, eta bere klasekideen artean tipikoak diren metodoak erabili zituen horretarako. 1864ean Austriarekin elkartu zen Danimar-

kari aurre egiteko, Schleswig-Holstein kenduz, eta 1865ean Austriarekin gerra izango zuen eskualde hau bereganatzeko. Erretagoardian Frantzia gatazkatik at geratzeko azpikeriatan aritu zen, eta Italiarekin aliatu Austriari aurre egiteko. Königrätzko batailan Austria garaitu ostean, Prusiak Alemaniarengan zuen hegemonia nagusitu zen, militarismoa eta Bismarcken erregimen bonapartista indartuz. Frantziaren menpe zeuden eskualde alemaniarrek bereganatzeko borrokan, gerra franko-prusiarrean, Bismarcken tropak gailentzen ari ziren, baina Frantzia Parisko Komuna aldarrikatu zen (1871). Bismarckek, Komuna Frantzia baino arriskitsuagoa zela ikusirik, bake moduko bat sinatu zuen Frantziarekin hauek langileria paristarra erreprimitzera joan zitezen.

Alemania baturik aurkitzen zen (hainbat eskualde falta baziren ere), eta objetiboki prozesu aurrerakoia izan bazen ere, sozialista alemaniarrek, ez Marxek, ez Engelsek, ez zioten inolaz ere babesik eman Bismarcki eta bere politika eta metodo erreakzionarioei. Batasun hau herriaren odolez busti zen, hainbat printzerrietako nobleziak bere pribilegioak galdu nahi ez zituelako. Argi dago beraz zein izango ziren langile klasearen metodoak: printzerri bakoitzeko langile eta kapa xeheek euren printzerrietako goi klaseak desjabetzea eta batasun nazionala bide baketsuetatik eramatea aurrera. Hala ere, batasuna errealtate bat zen eta batasun honi babesa eman zitzaion (ez Bismarcki eta bere metodoei) eta gertakari aurrerakoi bat bezala ikusi zuten marxismoaren gurasoek langile klase indartsuago bat batzeko aukera sortzen zuelako eta ondorioz, iraultza sozialistarako oztopo batzuk ezabatzen zituelako. Engelsi idatziriko gutun batean hala esaten zion Marxek “Nire ustez izate hau onartu behar dugu, justifikatu gabe, eta ahal beste erabili proletalgo alemaniarren antolaketarako eta batasun nazionalerako, sortzen dizkigun erraztasunak erabiliz.”

ITALIAREN BATASUNA

Mediterraneoko nazio honen batasun prozesua ere lerro bertsuetatik joan zen. XIX. mendearen erdian erabat zatikaturik eta Austriaren kontrolpean aurkitzen zen, honek iparraldeko es-

kualde italiarrak berarentzat hartu zituelarik, eta Italiaren hegoaldeko Bi Sizilien erreinua ere berea zelarik. Italiaren erdialdeko Aita Santuaren Estatuak babes frantziarrarenpean zeuden. Sardinia irla txikia, Saboya-Piamontetarrena, zen independentzia mantentzen zuen bakarra bi herrialdeen aurrean. Cavour kondearen eskutik irlako dinastia kontserbadorea bere eragin guneak zabaltzen hasi zen, eta austriarrak kanporatzen hasi ziren eskualdez eskualde.

Mugimendu kontserbadore honetaz gain, beste bat garatzen hasi zen, mugimendu nazionalista iraultzaile erradikal bat. Errepublikarrak, demokratak eta sozialistak batzen zituen eta Italiako estatu guztietan eta erbestean zuten presentzia. Mazzini zen mugimenduaren burua, baina mugimenduaren beraren kontraesanez eta ideia kontrajarriek bere kontzientzia ere nahasmendu horren isla bilakatu zuten. Cavourrek aldiz, bere zorroztasuna mantenduz eta diplomaziaren erabilerarekin hara eta hona mugitu zituen xakeko piezak.

1855ean Britainia Handiarekin eta Frantziarekin elkartu zen Errusiaren aurka joateko. Gero, Frantziari Niza eta Saboya emango zizkiola zin egin zion. Tratatu bat lortu zuen Frantziarekin, Austriak eraso eginez gero honek laguntza emango zio- la aitortuz. 1859an gerra piztu zen eta frantziarrekin batera garaipen garrantzitsuak lortu ziren. Batasunak berehalakoa zirudien, baina Luis Bonaparteri ez zitzaion interesatzen eta gerra utzi zuen. Azkenean, batasun-gerra mugimendu herri-koia salbatu zuen.

Sizilian matxinada sortu zen Garibaldi bere mila alkandora gorriekin lehorreratu zelako. Siziliako bataila garaitu ostean, Garibaldik Italiaren hegoaldea hartu zuen eta Napolesera sartu zen. Batasuna bide iraultzaileen bitartez ari zen ematen. Cavour atzetik ordea Britainia Handiarekin eta Frantziarekin itun batetara iritsi zen. Honen arabera, Piamonteren agintea babestu behar zuten Italia batu baten gainean, Italia errepublikar eta iraultzaileen eskuetan erori baino lehen. Piamonteko ejertzito erreakzionarioa Napolesen sartu zen eta Garibaldik, aurre egin beharrean, ateak ireki zizkien. Viktor Manuel Piamonteko erregea Italiako errege izendatua izan zen monarkia konstituzional bat ezarri, populazioaren %2aren boto eskubidearekin eta Aita Santuak bere estatuak manten-

duz. Hala ere, ekoizpen baliabideen garapenaren ikuspuntutik, merkatuaren bateratzea (diru eta neurri moten homogeneizazioa, besteak beste) aurrerapauso handia izan zen. 1866an Prusiarekin Austriaren aurka aliatu zenean errekonpentsa gisa Venezia jaso zuen, eta gerra franko-prusiarrean Frantziak Parisko Komuna erreprimitzera joateko Aita Santuaren estatuk utzi behar izan zituenean, italiarrak sartu ziren bertan, batasun prozesua amaituz.

Bismarck eta Cavour “nazio alemaniarren eta italiararren gurasoak” aldare batean ipiniak izan dira nazionalismo burgesaren eta burges txikiaren eskutik. Beste alorretan egin ohi duten bezala, “askatasunaren ideiaren” eta “betiereko egiaren” bilaketan, munduan gertatzen diren prozesuak testuinguru gorenago batean tratatzeko joera izan dute, batez ere burgesia txikiaren intelektualek. “Askatasunaren”, “nazioaren” ideiak, ideien mundu platondarrean bizi direnak, defendatu zituzten bi libertadore hauek. Baina gizakien garun materialetan dauden ideia hauek ideien mundura eramán dituzten bezala, batasun prozesu hauek ere euren mundu imaginarioa eramán dituzte. Har dezagun euren baieztapena egiaztat: “Bismarckek eta Cavourrek batasunaren alde egin bazuten, herri alemaniarra eta italiarra maite zituztelako izan zen”. Hau honela bada, nola uler liteke Bismarckek beste eskualde alemaniarretako herritarrek sarraskitzea printzerri hura indarrez Alemaniara sartzeko? edota nola ulertu era berean Cavourren lehen ardurak, batasuna baino lehen, Garibaldiren mugimendu iraultzailea, italiar herritarrek osatua, erreprimitzea izatea? Langile klasearen metodoak berriro ere emango die lezioa burges txiki hauei. Klase izaera, klase interesak.

Cavour Errusiaren aurka joateko Britainia Handiarekin eta Frantziarekin elkartu zenean, hau izan zen adierazi ziena potentzia hauei gerra osteko goi bileretan: Inperio Austro-Hungariararen politika erreakzionarioa zela Italia osoan sortzen ari ziren mugimendu iraultzaileen eragilea eta hau Europa osotik zabal zitekeela; honekin amaitzeko hoberena Italia bere esku jartzea zen. Bismarck askatasunaren maitaleak ere bere botere erreakzionarioa sozialistak eta komunistak eta gutxiengo poloniarra erreprimitzeko erabili zuen, hara gure askatasunen defendatzailea!! Langile klaseak bere independentzia man-

tentzeak bere biziko garrantzia du. Burgesiarekin batera borroka daiteke, eta hala egin zen feudalismoaren aurkako borrokan edota neurri liberalen defentsan, baina burua makurtu gabe, independentziaz. Burgesiaren helburua beti izango da langile klasearekin kolaboratzea, ez anai sentimendu batengatik, langileak bere kontrolpean izan nahi dituelako. Baina gaur egun bizi dugun unea ez da burua makurtzekoa. Burgesia bere erreinua galtzen ari dela ikusten ari da eta langile klasearen apostuak soilik izan dezake arrakasta. Gu gara etorkizuna duen klase bakarra. Guk eta gure metodo iraultzaileek ekarriko diete askatasuna nazio zapaldu guztiei eta batasuna nazio zatikatuei. Guk eta gure borrokak Munduko Nazio Askeen Federazio Sozialista bat ideia utopiko bat ez dela frogatuko dugu ez burges txiki eta erromantikoen mundu idealean, mundu material honetan baizik.

MARX, ENGELS ETA ARAZO NAZIONALA

Arazo nazionalak historia luzea du marxismoaren artsenal teorikoan.

Marxen eta Engelsen idatzietan aipamen benetan sakon eta interesgarriak aurki ditzakegu auzi honi buruz. Lenin, gerora, idazki hauetan oinarritu zen nazionalitatei buruzko bere teoria klasikoa taxutzeko. Marxismoaren kritikari askok Marxek arazo nazionalari garrantzirik ez ziola eman argudiatzen badute ere, honi erantzuteko modurik hoberena testu orijinalak irakurtzea da, lehen pertsonan ikustea nola bai Marxek eta bai Engelsek nazioen auzia tratatzen duten Manifestu Komunistatik bertatik abiatuta euren azken artikuluetaraino.

Marxek zehaztasun handiz aztertu zituen Poloniako eta Irlandako auzia, XIX. mendean zehar langile mugimendu europarraren atentzio puntu izan zirena. Alde horretatik, interesgarria da Marxek arazoa planteatzeko duen modua, ez bere inguruko arau finkoak ezarriz baizik eta modu dialektiko batean, kasuan kasuko erantzuna emanez.

Dialektika iraultzailearen eta pentsamendu abstraktuaren arteko ezberdintasuna argi geratu zen Marxek eta Proudhonek Lehen Internazionalaren garaian arazo nazionalari buruz izan zituzten eztabaidetan. Proudhonek, sozialista frantziarra eta anarkismoaren aitzindaria izan zenak, arazo nazionalaren existentzia ukatzen zuen. Lehen Internazionalaren Kontseilu Orokorrean proudhondarrek poloniarren, italiarren eta irlandarren askapen nazionalerako borrokek ez zutela garrantzirik azpimarratzen zuten. Beharrezkoa zen gauza bakarra iraultza bat zen Frantzia eta dena perfektua izango zen, denbora kontua zen dena. Baina herri zapalduak ezin zuten itxaron eta ez zuten itxarongo. 1866an Marxek Engelsi honako hau idazten zion Parisko “kamarilla proudhondarra” salatuz: “...nazionalitatea absurdua dela dio, Bismarck eta Garibaldi erasotzen ditu. Txobinismoaren aurkako polemika bezala, bere taktikak

erabilgarriak eta ulergarriak dira. Baina Proudhonen jarraitzaileek (zeintzuen artean Lafargue eta Longuet nire lagun onak aurkitzen diren) Europa osoa lasai egon daitekeela eta hala egon behar duela pentsatzen dutenean, bere ipurmasailak aulkiari itsatsita, Frantziako jaunek miseria eta ezjakintasuna ezabatzen duten arte... irrigarri bilakatzen dira “(Marxen gutuna Engelsi, 1866ko ekainaren 7an).

Lehen Internazionalaren Kontseilu Orokorrean edota Langileen Nazioarteko Elkartean Marxek bi frontetan egin behar zuen borroka: batetik Mazzini bezalako nazionalista burges txikien aurka, eta bestetik Proudhonen jarraitzaile erdianar-kisten aurka. 1866ko ekainaren 20an honako hau idatzi zuen Marxek: “Atzo Internazionalaren Kontseiluan egungo gerrari buruzko eztabaida bat izan genuen...Eztabaida, pentsatzekoa zen bezala, “nazionalitateen” auzira eta gure posiziora mugatu zen orokorrean... “Frantzia gaztearen” ordezkariak (langileak ez direnak) nazionalitate oro eta nazioa bera “aurreiritzi kadukatuak” zirela defendatu zuten. Stirnearianismo proudhondarraren ustez... gainerako herrialdeen historiak gelditu egin behar du eta mundu guztiak itxaron ea frantziarrak iraultza sozialerako prest noiz dauden...”. Baina Marxek eta Engelsek arazo nazionalari duen garrantzia ematen bazioten ere, Proudhonen aurrean beti langileen auziaren barruan ipintzen zuten, hau da, langile klasearen eta iraultza sozialistaren ikuspuntutik soilik tratatzen zuten.

POLONIAREN AUZIA

Leninek bezala, Marxek oso jarrera malgua zuen arazo nazionalaren inguruan, proletalgoaren eta nazioarteko iraultzaren ikuspuntutik tratatu zituen beti. 1840, 1850 eta 1860ko hamarkadetan Marxek Poloniarentzat ez zuen autodeterminazio eskubidea soilik defendatu, baita independentzia ere, une hartan, mugimendu independentista poloniarra aristokrata poloniar erreakzionarioenek zuzendurik bazegoen ere. Bere azken lanetako batean, Tsarismo errusiarraren kanpo politikan, Engelsek azpimarratu egiten zuen nola herri poloniarrek, Errusia tsaristaren aurkako bere borroka heroikoengatik, Europako iraultza asko

salbatu zituela. 1792-1794 bitartean, esaterako, poloniarren eta errusiaren arteko gatazkak Frantziako Iraultza salbatu zuen.

1863an, poloniarrek beste behin matxinatu egin ziren. Altxamendua Polonia osoan zabaldu zen eta gobernu nazional baten osaketa eman zen. Baina mugimenduaren zuzendaritza noblezia txikiaren eskuetan geratu zen eta berau ez zen gai izan masak matxinadan parte hartzera bultzatzeko. Boterea lurjabe handien eskuetara igaro zenean, hauek Frantziaren eta Britainia Handiaren esku-hartze diplomatikoa espero zuten, tsarrarekin akordio batera iristeko. Errusiak berehala apurtu zuen akordioa eta mugimendua zapaldu zuen. Britainiarrek eta frantziarrek ez zuten behatzik ere mugitu. Poloniarren matxinadak Europako langileen atxikimendua eta elkartasuna piztu zuen. Lehen Internazionalaren sorrera bera, mugimendu iraultzaile poloniarren laguntzeko sortu zen nazioarteko ekimen baten emaitza zuzena izan zen 1863an. Matxinada poloniarren itxaropen bakarra langile klase europarra zela zioen Engelsek. “Denbora batez mantentzen badira” idatzi zion Marxi 1863ko ekainaren 11ean “mugimendu europar orokorrera gehituko dira, eta honek salbatuko lituzke. Baina ez badute lortzen, Polonia borrokatik kanpo geratuko da hamar urtetan zehar; halako altxamendu batek herriaren borroka gaitasuna erabat xahutzen baitu denbora luzerako” (Engelsen gutuna Marxi, 1863ko ekainaren 11ean).

Marxek auzi poloniarrarekiko zuen jarrera mundu mailako iraultzaren estrategia orokorrak determinatzen zuen. Une hartan Errusia tsarista zen langile klasearen eta demokraziaren etsairik nagusiena, Europa osoan eragina zuen elementu erre-akzionario izugarri bat, bereziki Alemanian. Errusian langile klaserik ez zegoenez, ez zegoen aukerarik berehalako iraultza batetarako. Leninek aurrerago esango zuen bezala: “Errusia ez zegoen aktibo eta Polonia irakiten” (Lenin, Nazioen autodeterminaziorako eskubidea). Marxek independentzia poloniarra babesten zuen etsai nagusiari, tsarismo errusiarrari, kolpe gogor bat emateko baliabide gisa. Bai Marxentzat bai Leninentzat, autodeterminazioaren eskaera eta arazo nazionala beti klase borrokaren eta langile iraultzaren perspektibaren barruan zeuden.

ARAZO NAZIONALA, MARXISMOA ETA INTERNAZIONALISMOA

Frantziako Iraultzak, bere erradikalizazio fase gorenean, monarkiari burua moztu zion, modu literal batean. Jaun feudalen eta Elizaren agintea irauli zuten iraultzaileek. Euren botere ekonomikoa (lurraren gaineko jabegoa, batez ere) nekazarien artean banatu zen, Frantziaren oinarri sozial garrantzitsuenetakoa izango zen nekazal burgesia txikia sortuz.

Luis XVI.aren buru ebakia Konkordia plazan erakutsia zen bitartean, klase pribilegiatuen botere politikoa ere geraldian zertorren burgesiaren artean banatu zen. Feudalismo garaian, erregeari atxikitzen zitzaion subiranotasuna; iraultza ostean, subiranotasuna “Herriarena zen”, “Nazioarena”. Feudalismo garaian indibiduoak bere fideltasun erlazioekin identifikatzen zen, errege honen edo jaun haren zerbitzaria zinen, dominus baten servusa, Orleansko dukearen edota Foixeko kondearen morroia, oinaztarra edo ganboarra... Orain identitatea Nazioak ematen zuen, Nazioari izan behar zitzaion fidela eta leiala, jauntxoekin jada erlazio hauek izatea ezinezkoa baitzen, jauntxorik geratu ere ez baitzen geratzen.

Aldaketa politiko hauen guztien atzean burgesiaren eskua nabaria zen. Izan ere, eta paradoxikoa badirudi ere, burgesiak feudalismo garaiko klase zapalduak, morroi edo jopuak, askatu egin behar zituen erlazio feudaletatik. Burgesiak jaun feudalen agintetik askatu behar izan zituen masak, bere agintepean lotzeko. Zapaltzeko lehenbizi askatu egin behar zituen. Kapitalismoak langileek euren jaun berria, euren kapitalista, euren zapaltzailea aukeratzeko “askatasuna” izatea nahitaezkoa du. Enplegua merkatuaren legeek erregulatuko dute, lan indarraren eskaintzak eta eskariak. Denok uler genezake zein kaltegarri litzatekeen ekoizpen kapitalistarentzat proletarioak eurekin behin-betiko loturik egotea enpresa kostuak murriztu behar diren une batean, esaterako. Jaun feudalek ez

zuten soldatarik ordaindu behar, ez zen ekoizpen kapitalistaren dinamika; jaun feudalarren betekizun bakarra babesa ahalbidez zen bere fideltasunpeko morroiek zergak eta errentak ordaintzen zizkieten bitartean. Fideltasun hori oztopo bat zen burgesiarentzat.

Era berean, burgesak beste arazo batekin topatu ziren: jaun feudal hauek euren dukerri, konderri, printzerri... eta abarretan zerga ezberdinak ezartzen zizkieten merkatal jarduerai euren diru sarrerak handitzeko, ez soilik kanpotik barrura sartzen zirenei, baita barrutik kanpora zihoazenei ere. Kontua ez zen feudoko ekoizpena babestea, kontua dirua ateratzea zen. Ekoizpen kapitalistarentzako muga hauek guztiak suntsitu zituen burgesiak, Estatuak merkaturak eratzeke antolatu zituen. Era honetan, nazio ezberdinak biltzen zituzten Estatu-lurraldeak ekoizpen kapitalistaren arabera antolatu zituzten. Garraio sistema estatalak ezarri ziren, eskualde batzuk alor batzuetan espezializatu zituen eta besteak besteetan, diru sistema bakarrak finkatu zituen, hizkuntza bakar bat inposatu zuten estatutik guztian (gutxiengo nazioak kontuan hartu gabe) komunikazioak errazteko eta ekoizpenari bultzada emateko.

Burgesiak, aldi berean, estatu merkatu bat eratzeke bidean gutxiengo ziren nazioentzat kaltegarri izango ziren neurriak hartu zituen: nazio zapaltzailearen hizkuntza eta ohiturak zapaldu zituen, baita erlijioa ere, inoiz ospatu ez ziren ospakizunak zabaldu ziren, hezkuntza sistema “nazionalaren” helburuetako bat nazio sentimendua zabaltzea izan zen, joera sezesionistak apaltzeko nahian. “Hiritar” guztiek nazioaren parte sentitu behar zuten, azken finean hiritar hauek ziren “Nazioa”.

Egitura sozio-ekonomikoaren antolaketa berri honen has-tapenetan, ezin pentsa zitekeen etorkizuneko arazoetan. Izan ere, ekoizpen kapitalistak bere-bereak diren ezaugarriak gehitzen dizkio Estatu sakrosantuari: eskualde batzuk besteak baino gehiago aberasten ditu, besteetako baliabideak aldiz xahutu, nazioarteko kapitalista handiek arrain txikiak jaten dituzte, lehen gain-produkzio krisiak sortzen dira...”Baina krisiak zergatik datoz? Ilustratuek esan ziguten guztia egia baren, zergatik berriro ere arazoak?” galdetzen du herri xeheak. “Erregeek, jaunak, apaizek omen zuten gure egoeraren errua, baina orain denok berdinak gara, denok askeak, denok Nazio

beraren kide, Nazioaren onura nahi dugu eta horrexegatik ez ginateke gai izango gure nazio-kideei ere kalte egiteko. Edo bai?"

Burgesiaren komunikabide makineria martxan ipintzen da. Bere erantzuna ulertzeko erraza da: "denok onartzen dugu nazio-kide guztiok anaiak garenez, elkarri gaitzik opa ez diogula eta elkar laguntzen diogula, beraz, errua beste nazioena da. Judutarrak, islamiarrak, beltzak... Ikusi besterik ez dago kalte egin nahi digutela, beraiei bost axola gure Nazioa!" Auzi nazionala burgesiarentzat tresna bikaina bilakatu da bere interesak kolokan jarri direnean klase baxuenen begiak beste alde batzuetara begiratzeko. Askotan nazio zapaltzaileek beraien sustatu dituzte euren Estatuko gutxiengoak. Beltzak eta judutarrak ez zeuden lekuetan irlandarrak, euskaldunak, kataluniarrak... etab. jarri zituzten arazoan erruduntzat. Oren gainetik langile klasea zatitu behar zuten, eta beste behin Julio Zesar berpiztu zuten divide et impera ahoskatzeko.

Marxek, Engelsek eta euren inguruko iraultzaile ugari, kolore eta ideologia ezberdinetakoek, Langileen Nazioarteko Elkartea eraikitzeko burgesiaren gezurak azaleratzeko eta zatiketa hauen aurrean langile klasea baturik mantentzeko bataila garrantzitsua burutu zuten. "Herrialde guztietako langileok, elkar zaitezte!" Manifestu Komunistako gerra oihua Internazionalaren bandera eta filosofia bilakatu zen, internazionalismo proletarioaren lehen adibidea. Herrien arteko elkartasuna bultzatzen zen, baina ez modu sentimental batean; internazionalismoa sustatzen zen ez teorian bakarrik, baita praktikan ere. Posizioa laburki azal daiteke: burgesia (eta garai hartan feudalismoa) internazionalki antolatzen bada langile klasea zapaltzeko (gogoratu Manifestuaren haseran: "Europa zaharreko botere guztiak gurutzada santuan elkartu dira [komunismoaren] mamu horren aurka, Aita Santua eta Tsarra, Metternich eta Guizot, erradikal frantsesak eta polizonte alemaniarrek"), langile klaseak ere internazionalki antolatu behar du burgesia zapaltzeko.

Internazional haren praktika honakoa zen: atzerriko greba mugimenduez langile klasea informatu, atzerriko eskirolak ez erabiltzeko, elkartasun kanpainak antolatu atzerriko borroka babesteko (lehen Internazionala bera, poloniarren askapen nazionalako matxinada bati babesa emateko nazioarteko

kanpaina batetik sortu zen), borrokak bateratu langile klasearen mailua sendoagoa izan zedin... Maiatzaren 1a langile internazionalismoaren adibiderik ederrenetakoa dugu. Aldi berrean, mundu osoan, milioika proletario irteten dira kalera euren indarra erakustera. 8 orduko lanegunaren errebindikazioa bera halako mobilizazioetan lortu zen. Bateraturiko halako borrokek burgesiari beldurra besterik ez diote eragiten. Klase kontzientzia nabaritzen da, nazio zapaltzaileko eta nazio zapalduko langile klasea elkartuago sentitzen da. Esan behar baita arazo nazionalarekin ez dela nazio zapalduko langileria soilik zapaltzen, nazio zapaltzaileak berak bere langile klasea areago zapaltzeko erabiltzen du auzia, langile haien esplotazioaren arrazoia nazio zapalduari botaz. Elkartasun hau ez du gogoko ez Madrilgo ez Bilboko burgesia handiak bere interesak babestu nahi baditu. Elkartasun hau nahitaezkoa du Madrilgo eta Bilboko langileriak askatu nahi badu.

Arazo nazionalak kausa sozialak ditu. Antolaketa sozio-ekonomiko jakin bat da bere eragilea. Inperioen edota kolonien existentzia ez du nazioen izaera edota arimak eragin, burgesia ingelesak ez zuen ia mundu osoa konkistatu bere izaera adoretdua, borrokalaria eta ausarta zelako, Indiako lehengaiak eta eskulana merkeagoak zirelako baizik. Amerika latinoko indigenak ez zituzten azpiratu hauen izaera apalak morroi izatera kondenatzen dituelako, euren gizartearen garapenak espainiar inperioaren garapenari aurre ezin ziolako egin baizik.

Iraultza sozialistak herri batzuek besteak zapaltzeko arrazoiak ezabatuko ditu, iraultza sozialistak langile klasearen zatiketa bultzatzen duten interesak ezabatuko ditu, ez arrazoi sentimentalengatik, gizateriarentzat oparotasun material eta intelektual handiena ahalbidetzeko modua delako baizik. Trotskyk Iraultza Errusiarraren garaian zera idatzi zuen: "Iraultza sozial garaileak talde nazional bakoitzari bere kultura nazionalaren arazoak berak nahi bezala ebazteko gaitasuna emango dio, baina iraultzak —langileen mesederako eta euren baiespenarekin— eginkizun ekonomikoak batuko ditu, honen konponbide arrazional bat baldintza historikoen eta teknikoen menpe baitago, baina ez talde nazionalen izaeraren menpe. Federazio Sobietarrak estatu modu erabat mugikorra eta ari-na sortuko du, eta honek behar nazional eta ekonomikoak ba-

tuko ditu modurik harmonikoenean.” Langile klasearen borroka borroka sozial bezala ikusi ohi izan dira edo hala ikusarazi nahi izan dizkigute. Baina arazo nazionala soziala ere den heinean, Maiatzaren 1eko nazioarteko festa hau, aldi berean, nazioen askapenaren aldeko borroka ere bilakatzen da eta internazionalismoa, langile klasearen armarik honenetakoa, eraginkorra dela frogatuko dugu, burgesiaren harridura aurregien aurrean. Haiek Julio Zesar berpiztu zuten, langile klaseak aldiz Manifestuaren oihua: Herrialde guztietako langileok, elkar zaitezte!

MARX, ENGELS ETA ARAZO NAZIONALA II: IRLANDAREN AUZIA

Marxen eta Engelsen filosofia etnozidatzat kalifikatu dituzten tesiei aurka egiteko eman genion hasiera artikululu zerrenda honi eta oraingo honetan ere bi filosofoen testuetara joko dugu hori horrela ez dela frogatzeko. Britainia Handian eman zuten euren bizitzaren zati handi bat bai Marxek eta bai Engelsek, eta noski, ezin landu gabe utzi orduan ere egun bezala pil-pilean zegoen irlandarren askapen borrokaren gaia.

Marxismoak irlandar auziaren inguruan izandako jarreraren adibide klasikoak ditugu artikululu honetan azalduko diren gutunak eta Lehen Internazionalaren aktak. Marxek Irlandarekiko hartu zuen posizioak Poloniakoarekin hartu zuenarekin antzekotasun handiak gordetzen ditu zalantzarik gabe: herri irlandar zapalduaren alde ipini zen alde batetik, baina burges txiki nazionalistak kritikatu zituen. Irlandaren nazio askapena emantzipazio sozialaren aldeko borrokarekin lotu zuen. Herrialde nekazaria zen Irlanda, baina bertako biztanleak ez ziren lantzen zituzten lurren jabe. Latifundista britainiar handiak eta hauen adiskide ziren irlandar latifundistak ziren zoruaren jabegoa zutenak, eta ondorioz, lurraren arazoari konponbiderik eman gabe, jabego honen mantentzea bermatzen zuen sistema irauli gabe, irlandarrak ez ziren aske izango, britainiarren eta bertako irlandar oligarkiaren menpe jarraituko baitzuten. Britainiarrek burutzen zuten zapalkuntza nazionala zapalkuntza oso ukigarri eta praktikoa zen, nekazarien egoeran eta bizi baldintzetan zuzenki eragiten zuena. Borroka nazionala eta soziala bakar bat eta berbera zen.

Engelsek 1882ko ekainaren 26ko gutun batean Irlandako bi mugimenduri buruz idazten zion Bernsteini: nekazal mugimendu erradikalari buruz batetik, bere adierazpen politiko gisa demokrazia iraultzailea defendatzen zuelarik, eta burgesia hiritarraren aurka egiten zuen oposizio liberal nazionalari buruz bes-

tetik. Landa munduak, ordea, bere lan baldintzengatik, jabegoaren banaketa moduengatik eta ekoizpen nazionalen jokatzaren paperagatik, ezin zuen klase iraultzailearen paperik jakatu. Irlandaren egoera kapitalismotik eratortzen zen, kapitalismoaren jabego eta ekoizpen moduetatik, eta ondorioz, kapitalisten zapalkuntzatik. Industria kapitalismoaren, eta kapitalisten, biziraupenaren oinarri nagusia izanik, nekazal borrokak ezin zituen bere helburuak bete beste klaseren batekin aliantzan sartzen ez bazen, behinik behin. Burgesiarekin elkartzeko aukera ere hor zegoen, eta iraganean hau behin eta berriz gertatu zen feudalismoaren aurkako borrokan bai burgesen eta bai nekazarien interesak batu zirenean. Garai honetarako, ordea, burgesia irlandarra ez zen gai buruzagitza hartzeko, ahulegia zen Irlandako kapitalismo ia kolonialaren garapen eskasagatik eta Londreseko burges inperialistei lotuegia zegoen alde batetik eta bestetik. Ez zen gai iraultza burgesak historikoki planteatu zituen aldaketak (nekazal erreforma, eliz-estatu bereizketa, askapen nazionala...) aurrera eramateko.

Proletalgoan zegoen gakoa. Bere hastapenetan aurkitzen zen garai hartan eta alde horretatik bere indar guztiak biltzeko gaitasunik gabe aurkitzen zen oraindik, baina kapitalismoaren garapena langileria elkartzen ari zen, lantegi handietan batzen zituen, ekoizpenean batzen zituen, interesetan batzen zituen, patriaren aurka batzen zituen. Irlandaren egoera koloniala eta inperialismo kapitalista gauza bera ziren, eta ondorioz, inperialismo horrekin apurtzeko modua kapitalismoarekin amaitzea zen, Irlanda menperatzen zuten erlazio sozio-ekonomikoekin amaitzea. Engelsek 1848an idatzi zuen bezala: "Herri irlandarrak gogor borrokatu behar du, eta langile klase ingelesarekin eta kartistekin elkartu, Herriko Kartaren sei puntuak eskuratzeko (urteroko parlamentua, sufragio unibertsala, parlamentarien soldatak, hautes-barrutien antolaketa,...). Sei puntu horiek lortu ondoren, eta ordutik aurrera, izango dira herriaren, hau da, Nazioaren ordezkariak". Argi dago Kartaren aldeko borroka, mugimendu kartista, ez zela mugimendu iraultzaile sozialista bat, eta Marxek eta Engelsek babestu bazuten Ingalaterrako, Galeseko, Eskoziako eta Irlandako langileria britainiar inperialisten aurkako borrokan bazeko eta entrenatzeko izan zen.

Langile klasea zen bere izaeragatik Irlandari askapena ekarriko ziona, eta horrexegatik, langileen eta nekazarien nahi nazionalekin bat eginez hauen alde agertu ziren bitartean, Irlandako burgesia txiki nazionalista gogor kritikatu zuten. Daniel O'Connell esate baterako, kontakatilu eta herriaren traïdore gisa salatu zuten. Engelsek 1867ko azaroaren 29an honako hau idatzi zion Marxi: "...ez dugu ahaztu behar hein handi batean astoak eta beste hein handi batean esplotatzaileak direla...". Burgesia txiki honen eta langileriaren interesak ezberdinak eta askotan kontrajarriak ziren. Burgesia txikia, bere enpresatxoaren edota negoziotxoaren jabe, bere buruari begiratzera beharturik zegoen aldi-oro bere biziraupena bermatzeko. Bere etorkizuna gainerako burges txiki irlandarrekin lehian oinarritzen zen, konpetentzia egiten zien bere klaseko kideei, eta ondorioz indibidualismo absolutuan erortzen zen. Klase kontzientziarik ez zuen, bera bakarrik ikusten zen munduaren aurrean, eta beraz, munduaren eraldaketarako ikuspegirik ez zuen. Britainiarrak ziren bere egoeraren erantzuleak bere negozioa gaizki zihoanean, eta ingeles proletarioen eta kapitalisten arteko bereizketarik egiten ez zuenez, langile klasea ingelesen aurka egitera bultzatzen zuen orokorrean, eta langile mugimenduaren batasuna apurtzea besterik ez zuten lortzen. Zuzendaritza mota honekin ezin ziren Marx eta Engels inolaz ere ados egon.

Hala ere, langile klasearen garapena oraindik murrizta zen Irlandan, eta burgesia txiki honek osatzen zuen mugimendu demokratiko iraultzaile irlandarrari babes kritikoa eman zioten bere garaian, iraultza sozialista ordezkatzeko ez bazuten ere, momentuko mugimendurik aurreratuena baitziren langile klase baten faltan. Burgesia txiki honen kideak kartzelaratutak zirenean ere, hauen amnistiaren alde azaldu ziren, baina beti ere ikuspegi sozialista batetik, ikuspegi internazionalista batetik. Behin eta berriz azaldu zuten euren artikuluetan langile klase irlandarraren etorkizuna estuki lotua zegoela langileria eskoziarraren, galestarraren eta ingelesaren etorkizunarekin. 40ko eta 50eko hamarkadetan Irlandak langile klase britainiarraren garaipenarekin soilik lortuko zuela independentzia defendatu zuen Marxek. 1860tik aurrera berriz, Irlandaren independentzia langile mugimendu britainiarraren bo-

rrokarako txispa izango zela azpimarratu zuen sozialismorako bidean. Lehen Internazionalaren Kontseilu Orokorraren Akte-tan aurkitzen den Marxen 1870eko hitzaldi bat froga benetan bikaina da marxismoaren internazionalismoa erakusteko. Hitzaldi horren hiru zati dira ondorengo hauek:

“Ekimena ziurrenik Frantziatik etorriko bada ere, soilik Ingalaterrak balio dezake iraultza ekonomiko serio baterako palanka bezala. Nekazari gutxien dagoen eta lurraren jabegoa esku gutxienetan kontzentraturik dagoen lurralde bakarra da. Modu kapitalistak —kontrol kapitalistaren menpeko eskala handiko lan konbinatuak— ia ekoizpen osoa hartzen duen herrialde bakarra da. Biztanleriaren gehiengoa soldatapeko langileek osatzen duten herrialde bakarra da. (...) Kapitalismoa eta lurraren errentamendu sistema adibide klasikoak baldin badira Ingalaterran, bestalde berauen suntsipenerako baldintza materialak ere oso garatuta daude.”

“Ingalaterra errentamendu eta kapitalismo europarraren bastioia bada, Ingalaterra indarrez kolpatu daitekeen puntu bakarra Irlanda da.

“Batetik, Irlanda errentamendu sistema ingelesaren bastioia da. Irlandan ehun aldiz errazagoa da borroka ekonomiko lurraren jabegoan kontzentraturik baitago eskusiboki, eta gainera borroka honek aldi berean izaera nazionala du, herria iraultzaileagoa da eta Ingalaterrakoa baino haserreago dago. Errentamendua Irlandan ejertzito britainiarrari esker mantentzen da soilik. Bi herrialdeen arteko indarrezko batasuna apurtzen denean, iraultza sozial bat piztuko da berehala Irlandan. Lurjabe ingelesek ez dute aberastasun iturri handi bat soilik galduko, baita beraien indar moral handi bat ere, zeina Irlandaren gaineko Ingalaterraren dominaziotik datorren.

“Bestetik, burgesia ingelesak ez zuen soilik pobrezia irlandarra esplotatzen Ingalaterrako langile klasea kontrolatzeko txiro irlandarrak bertara emigratzera behartuz, proletalgoa bi bando etsaietan bereizten du. Langile zeltaren su iraultzailea ez da ongi konpontzen langile anglosaxoiaren izatasunarekin, zurruna baina motela. Ingalaterrako industria zentro handi guztietan proletalgo irlandarraren eta ingelesaren aurkako antagonismo sakona aurkitzen da. Langile ingeles ertainak gorroto du langile irlandarra, bere lehiakide bezala ikusten bai-

tu, zeinak soldata eta bizi maila murrizten dizkion. Berarenganako ezinikusi nazionala eta erlijiosoa sentitzen du. Amerikako hegoaldeko Estatuetakozuri txiroek esklabo beltzak ikusten dituzten moduaren antzeko zerbait da. Ingalaterrako proletalgoaren arteko antagonismo hau burgesiak elikaturik eta babesturik dago. Badaki zatiketan aurkitzen dela bere bosterea mantentzeko egiazko sekretua.”

“Amnistia irlandarraren inguruko Kontseilu Orokorren erresoluzioek beste erresoluzio batzuen sarrera gisa soilik balio dute, zeintzuek erakutsiko duten langile klase ingelesaren emantzipaziorako eta oraingo indarrezko batasuna eraldatzeko nahitaezko aurrebaldintza izango dela (Irlandako askapen nazionalari buruz ari da), konfederazio aske eta parekide bat osatuz, edota beharrezkoa balitz, erabateko banaketa burutuz.”

Beste behin ere, askapen nazionala defendatzen ikus ditza-kegu Marx eta Engels, langile klaseari berau lortzeko protagonismoa emanez eta iraultza sozialistaren testuinguruan kokatuz.

LENIN ETA ARAZO NAZIONALA I

Zalantzarik gabe, V.I. Lenin marxista eta iraultzaile errusiarra izan da arazo nazionalaren gaia, ikuspuntu marxista batetik, gehien eta sakonen aztertu duen teoriko marxista. "Nazioen autodeterminaziorako eskubidea" lan zabalean modu zehatz batean azaldu eta laburbildu zituen marxismoak auzi honen inguruan agertzen dituen ideia eta jarrera ezberdinak, eztabaidak, estrategiak eta abar.

Ez da kasualitatea errusiar bat auzi honen inguruko aditu marxista garrantzitsuena izatea. Herrialde hartako iraultzaile batek bereziki ahanzt ezin zezakeen gai bat zen. Ezin zitekeen Errusiako iraultza sozialistarako estrategia garbirik finkatu arazo honi konponbiderik eman gabe. Errusia Handiko %43a zen soilik errusiar handia, hau da, nazionalitate zapaltzaileko kidea; gainerako %57a gutxiengo nazional ezberdinek osatzen zuten: ukrainarrek, georgiarrek, estoniarrek, lituaniarrek, poloniarrek, finlandiarrek, judutarrek...

Errusiaren espantsionismoaren testuinguruan mendebaldeko nazio konkistatuak, ekonomikoki eta kulturalki gorago zegoen maila batean aurkitzen ziren Errusian baino. Ekialde-
ra, Kaukaso aldera eta orokorrean Asia Erdira burutzen ari ziren hedapena erlatiboki aurrerakoia zen, ekoizpen baliabideen garapenaren testuinguruan beti ere, ez ikuspegi kultural batetik; baina mendebaldeari dagokionean, esan liteke, kaltea bikoitza zela. Nazio txikien babesa edota errusiar guztien batasuna erabiltzen zituen argudiotzat tsarismoak zabalpen hau justifikatzeko, Engelsek argi zuen, ordea, jazotzen ari zena: "Hemen duguna lurralde arrotzen indarrezko konkista lotsa-gabea da, horixe bakarrik".

Zapalkuntza nazionala benetan anitza zen. Erljioa, hizkuntzak, ohitura etniko-kultural ezberdinak...Nazionalitateen arteko gorrotoa sustatzen zuen klase agintariak, nazionalitate zapalduen aurka edota antisemitismoa bultzatuz, erruduntza eta gorrotoa beste talde sozial batzuek izan zezaten.

Mujikak, nekazari errusiarrak, ez zuen gosea pasatzen bere jaun feudalak hezurretaraino xurgatzen zuelako eta elikagarrik uzten ez ziolako, judutar diruzaleek prezioen gora-beherak kontrolatzen zituztelako eta besteen negozioak lur jotzera eramaten zituztelako baizik!! Absurduan erortzea dirudi, baina gizarteko talde batzuek, batez ere burgesia txikiak, bikain irensten ditu halako aurreiritziak, berak ekoizten duen gainbalioa zuzenean kentzen dion esplotatzailerik gainean ikusten ez duenez, bere negozioaren jabe delako, bere egoera jasan gaitzaren arrazoiak beste lekuetan bilatzen baititu: zergak ko-bratzen dizkion Estatuan, gobernari kaxkarretan, Jaungoikotan eta nazionalitate zapalduetan, orokorrean gezurtiak, lapur-
rrak eta gaizkileak izan ohi direnak.

Pentsa liteke ez duela zentzurik klase agintariak batetik Errusia Handiaren batasun zatiezina aldarrikatzea eta bestetik desberdintasun nazionalak bultzatzea. Argi dago, ordea, zein helbururekin egiten dituen bai bata eta bai bestea, eta bi helburuak bateragarri dira: bere ekoizpen baliabideak eta aberastasuna areagotzea, eta bere egoera pribilegiatuan mantentzea, bere gainbehera ekar lezakeen batasuna zatituz. Ez dirudi oso morala denik, baina klase agintaria ez da sekula oso abila izan berak aldarrikatzen duen morala betetzen.

Herrialde atzeratua eta erdifeudala zen Errusia oraindik ere XX. mendearen hastapenetan. XIX. mendean legalki morrontza desagerrarazi bazen ere praktika guztiz bestelakoa zen. Abolizio hark ez zuen jaun feudalen boterearen beherakadarik ekarri, eta ez zuen burgesiaren gorakadarik adierazi ere. Iraultza burgesak historikoki bete zuen eginkizunetako bat, bai Britainia Handian, bai Frantzian, bai Herbehere-tan...nekazal arazoarekin amaitzea izan zen. Errusian, ordea, latifundio handiak, teknologia eskasia eta nekazari txiroa zegoen. Burgesia txikiaren multzoan sar daitezke azken hauek gizarteari begira duten pentsamoldeagatik, euren ekoizpen moduak ez baititu kontzientzia kolektibo bat izatera eramaten, eta gainera, landako atzerapenak eta analfabetismoak sineskaria eta dogma erlijiosoak bereganatzea errazten baitie. Proletalgoak kontzientzia kolektiboa du, batetik, eta industriak eskatzen duen kultura maila jakin batek (makina nola erabili, eskariak bidaltzeko irakurtzen jakin, matematikak,...)

alfabetatu egiten du. Horregatik zioten autore marxistek arazo nazionala, batez ere, burgesia txikiaren arazoa zela, hauek euren arazoen kausa arrazoi nazionaletan ikusten baitute arazo sozialetan baino lehen. Proletarioak aldiz zapalkuntza modu gordinago batean ikusten du, eta klase borroka ulertzeko prestatuago dago izatez, bizi dituen produkzio eta erreprodukzio erlazioengatik.

Hauxe zen, bada, Alderdi Boltxebikeak bere aurrean zuen egoera. Divide et impera zen tsarismoaren leloa, eta batasunarekin erantzun behar zion langile klaseak. Lehen esan bezala, Errusia herrialde atzeratua zen ordea, langileri ahul eta oraindik garatu gabe batekin, eta nekazal masak ezinbestekoak ziren borrokarako aliatu gisa. Arazo nazionalaren konponketa, historikoki hau ere burgesiak bere gain hartu zuena Herbehereen independentzia lortzeko edota Alemaniako eta Italiako batasuna eskuratzeko, adibidez, langile klaseak hartu behar izan zuen eginkizuntzat masa guztiak bildu eta tsarismoari aurre egiteko.

Boltxebikeen estrategiaren barnean masak goi klase nazionalisten eta nazionalista burges txikien eraginpetik askatzea aurkitzen zen. Ez soilik errusiar handi pribilegiatuen eraginek, baita nazionalitate zapalduetako goi klaseen hatzaparretatik ere. Hau benetan kontuan hartzeko gaia da marxismoaren ikuspuntutik. Zapaltzaileak ez daude nazionalitate zapaltzailean soilik, nazio zapalduetan ere zapaltzaileak daude, zapaltzaile autoktonoak. Errusian jaun feudal errusiar handiak zeuden, baina baita jaun feudal georgiarrak, jaun feudal poloniarak, burges judutarrak, etab. ere. Klase agintariak (Errusiaren kasuan, jaun feudalek eta burgesek), hainbat nazionalitateetako kideak biltzen dituela ere, klase bakar bat osatzen du, klase interes komunak dituzte, behe klaseak, proletalgoa eta nekazariak, ditu etsai, eta etsaitasun horrek batzen ditu. Bost axola matxinatu dena errusiar handia den edota georgiarra den, bai jaun errusiarrek eta georgiarrak bat egingo dute errebolta zapaltzeko.

Jaun errusiar handiek euren nazionalismoa bultzatuko dute, sinbolo “nazional” batzuekin identifikarazi nahiko dituzte euren Estatupean dauden nazionalitate ezberdin guztiak euren eragin eremua baturik mantentzeko. Zentzu horretan

nazionalitate zapalduetako klase agintarien jarrera hipokritagoa izan ohi da. Klase agintari errusiar handiak Estatuaren batasuna nahi du eta defendatzen du publikoki, klase agintari georgiarrak jendaurrean zapalkuntza salatuko du eta askatasunaren alde hitz egingo du, baina izatez bere nahia aurka-koa da. Klase agintari georgiarrak (eta hemen georgiarra aipatzen den bezala beste edozein nazionalitate zapaldu aipa daiteke) ez zuen Estatu georgiar baten antolaketa bere helburuen artean. Lotura izugarriak zituen klase agintari errusiar handiarekiko eta indartsuagoa zen Errusiaren barnean egonda bertatik bereizita baino. Batzuetan independentziaren mehatxua eta herri mugimendua erabiliko zituen Estatu zentraletik hainbat onura eskuratzeko, baina bere askapen borroka nazionala ez zen hortik igarotzen. Errusiako nazionalitate zapalduetako goi klaseek une batean bakarrik defendatu zuten aktiboki eta euren interes osoarekin euren nazioaren independentzia: 1917ko Errusiako iraultza sozialista hasi zenean. Une hartan euren klaseko interesak eta pribilegioak kinka larriaripini ziren, eta olatu gorri hartatik ihes egiteko modu bakar bezala ikusi zuten independentzia, baina beti ere klaseko ikuspuntu batetik.

Goi klaseek nazio auziarekiko zuten jarrera klaseko ikuspuntutkoa zen bezalaxe, boltxebikeek ere horixe aldarrikatu zuten langileentzat, nazio arazoarekiko klase ikuspuntu bat. Nazionalitate zapalduetako goi klaseak, nazio zapalduko kide izanik ere, ez ziren zapalduak: bost axola euren hizkuntza eta ohiturak diruaren hotsa entzuten zuten bitartean. Nazionalitate zapalduetako behe klaseak ziren hau pairatzen zutenak, gorroto etnikoak jasaten zituztenak eta etniagatik soldata baxuagoak eta baldintza okerragoak jasotzen zituztenak, egun ere beltzekin, latinoamerikarrekin eta abar gertatzen den moduan. Eurak ziren zapaldu nazionalak eta baita klaseko esplotazioa jasaten zutenak ere. Gainera, ezaugarri gehiago zituzten errusiar handi proletarioekin lotzen zituztenak euren nazioko goi klaseekin baino. Kapitalista berdinek zapaltzen zituzten, eta Estatu tsarista berberak erreprimitzen zituzten. Boltxebikeen estrategia garbia zen: zapaldu guztien batasuna goi klaseen aurka, nazionalitatea edozein zela ere, eta denak itotzen zituen Estatu tsarista berberaren aurka.

Leninek lan eremu hau aurrean zuela burutu zuen bere lan teorikoa eta bere fruitua eman zuen, 1917an hasi zen prozesu iraultzailearen arrakastarako ezinbestekoa izan baitzen. Nazionalitate guztiak batu ziren orduan etsai komunei aurre egiteko eta feudalismoarekin eta kapitalismoarekin amaitu zen. Hurrengo aleetan Leninen lanari gainbegiratu bat emango zaio aurrez aurre bere esentzia osoa ulertu eta tergibertsazioak erantzuteko.

LENIN ETA ARAZO NAZIONALA II

Lehen Mundu Gerraren aurreko urteetan, Leninek denbora asko eskaini zion arazo nazionalaren lanketari, batez ere Otto Bauerren ideia errebisionistei erantzuteari. 1908-1910 bitartean, Lenin erbestean egon zen eta ia-ia isolaturik. Errusiarekiko kontaktu gutxi zituen, kolaboratzaile eta lagun gutxi zituen inguruan, eta gogo betez hartu zuen gazte georgiar baten etorrera; gazte hura Stalin zen.

Gazteekin beti egin ohi zuen moduan, hari ere animoak eman zizkion eta nazionalitate zapaldu batekoa izanik, Leninek arazo nazionalaren inguruan zituen oinarritzko ideietan hezi zuen gaztea. Erlazio honen fruitua Stalinekin idatzirik Arazo nazionala eta marxismoa izan zen, alderdiaren barnean urteetan zehar arazo nazionalaren inguruko eskuliburu gisa funtzionatu zuena. Izatez, artikulua Stalinekin idatzia izan bazen ere, honek islatzen zituen ideietan argi geratzen zen idatzi haren atzean ezkutatzen zen jeinu politikoa Leninen zela. 1917ko iraultza-ren burokratizazioarekin ikusi zen Stalinekin beste bide bat hartu zuela arazo nazionalarekiko, errusiartasuna bultzatuz eta Sobietar Batasuneko gainontzeko nazioak erreprimituz.

ZER DA NAZIOA?

Mahai gainean zegoen lehen arazoetako bat nazio kontzeptuaren definizioa zen, hau azaltzea ez baita dirudien bezain erraza. Denbora definitzea bezalakoa da. San Agustinek esan zuen berak bazekiela denbora zer zen, baina definitzeko eskatzen bazitzaion ez zekiela nola egin. Gauza berbera gertatzen da nazioarekin. Aipaturiko artikulua hau definizio bat ematen saiatzen da eta emaitza, izatez, formulazio nahiko asegarria da. Bauerren definizio subjektiboaren kasuan ez bezala, hemen zentzu zientifiko marxista batean azaltzen da: “Nazioa giza komunitate egonkor bat da, historikoki eratu dena eta hizkuntz-komunitatea, lurralde-komunitatea, bizitza ekonomikoaren inguruko ko-

munitatea eta komunitate psikologikoa, kulturaren komunitate gisa islatzen dena, oinarritzat harturik sortu dena”.

Nazio batek hizkuntza eta lurralde komunak izan behar ditu, elkarbanatzen dituen historia bat eta kultura bat, eta lokarri ekonomiko botereitsu batzuek baturik ere egon behar du. Hain orokorra da definizio hau ezen zalantzarik gabe Otto Baeren azalpen psikologikoa baino askoz zuzenagoa eta hobeagoa dela. Hala ere, bizitza errealean beti aurkituko ditugu definizio hau aspekturen batean edota gehiagotan kontraesaten duten aldagaiak. Nazio bat zer den erantzutea oso eremu irristakorra da eta analisi bat baino gehiago eraman du bere hondamenera.

Esaterako, har dezagun hizkuntzaren auzia. Nazio batentzat hizkuntzaren garrantzia begi-bistakoa da. Nazionalitate baten ikur bereizgarria dirudi. Errusiako Iraultzaren Historia lanean, Trotskyk hizkuntzaren garrantzia ondoko modu honetan azaldu zuen: “Hizkuntza gizakien loturetarako instrumenturik garrantzitsuena da, eta ondorioz, ekonomiaren loturetarako ere bai. Hizkuntza nazional bilakatzen da merkatal zirkulazioaren garaipenak nazio bat batzen duenean. Oinarri honen gainean sostengatzen da Estatu nazionala, erlazio kapitalisten bilakaerarako eremurik erosoena, arruntena eta abantailatsuenena.”

Baina salbuespenak ere badaude halako erregela garrantzitsu batean. Gutzik esango lukete Suitza ez dela nazio bat. Suitzako identitate nazionala mendeetan zehar identitate nazional indibidual bat mantentzeko eman den borroka batean eraiki da, batez ere Austriaren aurrean. Suitzarrek ez dute hizkuntza komun bat, Leninek azpimarratu zuen bezala: “Suitzan hiru hizkuntza ofizial daude baina erreferendumetan zehar lege-proiektuak hiru hizkuntzetan inprimatzen dira, hau da, hiru ofizialetan eta bi dialekto ‘erromantzetan’. 1900eko erroldaren arabera, Suitzak dituen 3.315.443 biztanleetatik 33.651ek dialekto hauek hitz egiten dituzte, hau da, %1ak baino ez askok gehiagok. Ejertzitoan ofizialek eta subofizialek ‘askatasun osoa dute euren ama hizkuntzan hitz egiteko euren soldaduei’. Valaisko eta Grisoietako kantoietan (bakoitzak ehun mila biztanle baino zertxobait gehiago duelarik) bi dialektoek eskubide berdintasun osoa dute” (Lenin, Ohar kritikoak arazo nazionalari buruz).

Auzia ulertzeko gakoa haserako proposizioan agertzen da, nazio bat historikoki eratu den entitate bat da. Nazio bat ikeritzeko hurbilketa burutzen dugunean hau elementu bizi bat bezala hartu behar dugu, eboluzioa jasaten duen zerbait bezala, aldatzen eta garatzen dena. Nazio bat ez da finkoa edo estatikoa den zerbait. Nazioak sor daitezke lehen ez zeuden lekuan, kontzientzia nazionalak sortzen dira lehen ez zeuden lekuetan. Hau da Hegoamerikako lurralde askoren kasua, inperialismo espainiarretik eta portugaldarretik bereizi zirenean identitate nazional bat eraikitzen hasi baitziren, espainiarrengandik edota portugaldarrengandik bereiziko zituen zerbait. Edota hauxe da, era berean, Indiako kontzientzia nazionalarena, hau inperialismo britainiarrak sortu baitzuen oharkabean.

Historikoki, nazioen garapena baimendu duten lehengaiak anitzak izan dira: gerrak, inbasioak, iraultzak... iraganeko loturak apurtzen dituztenak, muga berriak sortzen dituztenak, kontzientzia berriak sortzea ahalbidetzen dutenak. Prozesuak, gainera, bere aurkako bilaka daitezke. Lehen nazio zapaldu bat zena edota kolono esklabo bat zena Estatu inperialista ankerrena eta zapaltzaileena bihur daiteke. Adibiderik hoberena Estatu batuen kasua da, iraganeko kolonia britainiar bat izan zena eta orain munduko Estatu inperialista boteretsu eta erreakzionarioena bezala ikus dezakeguna. Eta berdin duela gutxi atzerriaren menpetik askatu ziren Estatu burges batzuekin eta oraindik potentzia inperialista handien aurrean makurturik jarraitzen duten haiekin, lekuko potentzia inperialista bezala jokatzen baitute askotan. Indiak, esaterako, paper inperialista bat jokatzen du Nepalekiko, Assamekiko eta Kaxmirrekiko. Errusia 1917 aurretik potentzia inperialista garrantzitsuenetarikoa bat zen, kapitala esportatzen ez bazuen ere eta herrialde atzeratu eta erdi-feudal bat izanik ere, baina erlazio erdi-kolonial bat mantentzen zuen Britainia Handiarekiko, Frantziarekiko eta beste herrialde kapitalista garatu batzuekiko.

KLASEKO AUZI BAT

Auzi nazionala, beste auzi sozial guztiak bezala, izatez klaseko auzi bat da. Hau izan zen Leninen jarrera. “Kultura nazio-

nal bakoitzean, garaturik ez badaude ere, kultura demokratiakoaren eta sozialistaren elementuak daude, nazio bakoitzean langile masa zapaldu bat baitago, bere bizi baldintzek ideologia demokratiko eta sozialista bat garatzea ekartzen duelarik nahita ez. Baina nazio bakoitzean aldi berean kultura burges bat dago (eta gainera, kasu gehienetan, ultraerreakzionarioa eta elizkoia), eta ez 'elementu' soil baten itxuran bakarrik, kultura agintari bat bezala baizik. Horrexegatik, 'kultura nazionala' orokorrean lurjabeen, apaizen eta burgesiaren kultura izan ohi da" Lenin, Ibid.).

Marxisten eginkizuna arazo nazionala klaseko auzi bezala argitara ematea da, bereizketa hau ez estaltzea, eta hau berdin-berdin gertatzen da nazioa zapaltzailea izan edota zapaldua izan. Leninekin jarraituz: "Elkarte anonimoetan nazio ezberdinetako kapitalistak erabat bat eginik aurkitzen ditugu. Lantegietan hainbat naziotako langileek batera egiten dute lan. Auzi politiko benetan funtsezko eta sakon guztietan elkar-etak klaseen arabera egiten dira eta ez nazioen arabera" (Lenin, Ibid.).

"Langile klasearen interesek eta kapitalismoaren aurkako bere borrokak nazio guztietako langileen arteko elkartasun eta batasun handiena exijitzen dute, edozein naziotako burgesiaren politika nazionalista errefusatzeko exijitzen dute".

"(...) Soldatapeko langileari bost axola dio bere esplotatzailer nagusia burgesia errusiarra edota alogeniarraren den, edota burgesia poloniarra edota hebraitarra den, etab. Bere klasearen interesek kontzientea den soldatapeko langileari berdin zaizkio kapitalista errusiarren estatu-pribilegioak edota kapitalista poloniarrek edota ukrainarrek beraiek estatu-pribilegioak eskuratzen dituztenean lurrean paradisu bat ezartzeari buruz egingo dizkioten promes guztiak".

"(...) Edonola ere, soldatapeko langileak esplotazioaren objektu izaten jarraituko du, eta honen aurka arrakastaz borroka egiteko proletalgoa edozein nazionalismorekiko independentea izatea beharrezkoa da, proletarioek neutraltasun jarraia erabatekoa mantentzea hainbat naziotako burgesiek euren artean nagusigoagatik egiten dituzten borrokekiko. Edozein naziotako proletalgoak, oso gutxi bada ere, 'bere' burgesia nazionalaren pribilegioak babesten baditu, ezinbestean beste na-

zioetako proletalgoaren mesfidantza eragingo du honek, langileen nazioarteko klaseko elkartasuna ahulduko du, banandu egingo du burgesiaren bozkariorako. Eta autodeterminaziorako, edota bereizkuntzarako, eskubidea ukatzeak, praktikan, nazio menperatzailearen pribilegioak babestea adierazten du.” (Lenin, Nazioen autodeterminaziorako eskubidea).

“Burgesiaren kultura nazionala izate bat da (berriro ere errepikatzen dut, burgesiak, leku guztietan, lurjabeekin eta apaizekin elkar hartzen duenaren berezitasunarekin). Burgesiaren nazionalismo militantea, langileak kirtentzen, engainatzen eta banantzen dituen, burgesiari atzetik jarraitzeko, gure garaiko oinarrizko izate bat da.”

“Proletalgoari zerbitzatu nahi dion orok nazio guztietako langileak batu beharko ditu, nazionalismo burgesaren aurka borrokatuz nahitaez, bai bakoitzaren bai besteren nazionalismo burgesaren aurka” (Ibid.)

Argi geratu da Leninek auzi honekiko zuen jarrera. Beste hainbat eta hainbat aipu aurki ahal daitezke bere lanean zehar.

LENIN ETA ARAZO NAZIONALA III

Eskaera nazionalak izaera demokratiko bat dute, ez izaera sozialista bat. Zapalkuntza nazionalak ez dio langile klaseari bakarrik eragiten, honek gehiago pairatzen badu ere, gainerako zapalkuntza moduekin gertatzen den bezala. Arazo nazionalak biztanleria osoari eragiten dio, masei eta bereziki burgesia txikiari. Hala ere, aurreko artikuluetan ikusi dugun bezala, Leninek gai hau beti ere klaseko ikuspegi batetik landu zuen.

KLASE INDEPENDENTZIA

Auzi honek, izatez, historia luzea zuen Errusiako langile mugimenduaren barnean, Bundein izandako eztabaidak horren adibide, Errusiako Langile Alderdi Sozialdemokrataren bigarren Kongresutik (1903) aurrera eman zirenak. Nola landu zuen Leninek auzi nazionala? Boltxebike errusiarrak, behin eta berriz azaldu zuen bezala, zapalketa nazionalaren forma guztien aurka zeuden, edozein zapalkuntza nazional linguistiko edota arrazazkoren kontra. Baina Leninek ez zuen sekula ere esan burgesia nazionalista edota burgesia txiki nazionalista babestu behar zenik. Alderantziz, Leninen posizioaren baldintza edota oinarri esanguratsuena, tinkoena eta garrantzitsuenaren erabateko klase independentzia izan zen.

Leninismoaren lehen printzipioa burgesiaren aurka borroka egiteko beharra izan zen beti, bai burgesia hau nazio zapaltzailekoa izan edota zapaldukoa izan. Leninek arazo nazionalari buruz egindako idatzi guztietan burgesia nazionalistaren aurkako kritika gogorrak eta zorrotzak aurkituko ditugu, baina ez honen kontrakoak bakarrik, baita burgesia txiki nazionalistaren aurkakoak ere. Ez da kasualitatea. Leninen ustez langile klaseak nazioaren buruan ipini behar zuen masak gizartearen eraldaketa iraultzailerantz eramateko. Arazo nazionalaren inguruko ohar kritikoak idatzian honakoa dio Leninek: “Aurrera egiten du masen esnatzeak lozorro feudalaren ostean; aurrera egiten du zapalkuntza nazionalaren aurkako

bere borrokak, herriaren subiranotasunaren aldeko bere borrokak, subiranotasun nazionalaren aldekoak. Hemendik eratoritzen da marxista ororen ezinbesteko betebeharra demokraziarik sakonena eta kontsekuenteena defendatzea dela arazo nazionalaren aspektu guztietan.” Baina aldi berean marxismoak ezin zuen edozein mugimendu nazionalista babestu, asko eta asko, ia gehienak ez esateagatik, burgesiaren kontrolpean aurkitzen baitziren eta nazionalismo horri babesa emateak burgesiari babesa ematea ekartzen baitzuen.

“Edozein nazionalismo liberal-burgesek ustelkeriarik handiena darama langile klasearen lerroetara eta kalte izugarria eragiten dio askatasunaren kausari eta klase proletarioaren borrokari. Eta hau arriskutsuagoa bilakatzen da, tendentzia burgesa (eta feudal-burgesa) kultura nazionalaren leloarekin estaltzen baita. Ultraerreakzionarioek eta elizkoiek, eta hauen atzetik nazio guztietako burgesek, negozio atzerakoia eta zikinak egiten dituzte kultura nazionalaren (errusiar handiaren, poloniarren, hebraitarren, ukrainiarren, etab.en) izenean.

“Halakoa da gaur egungo bizitza nazionalaren errealtatea ikuspuntu marxista batetik lantzen badugu, hau da, klase borrokaren ikuspuntu batetik lantzen badugu, leloak klaseen interes eta politikarekin konparatzen baditugu eta ez printzipio orokorrekin, deklamazioekin eta edukirik gabeko esaldiekin”. (Lenin, Arazo nazionalaren inguruko ohar kritikoak).

Euskal Herrian gertutik ezagutzen dugun egoera da hau. Euskal Herritar guztiek batera borrokatu beharraren ideia erabat arriskutsua da. Batetik, langile klasearen erradikalizazioa kontrolatzea ekartzen du, politika ez proletarioak defendatuz eta politika iraultzaileak alde batera utziz. Bestetik, burgesia nazionalak ez du interesik Euskal Herri askatu bateran. Are gehiago, Estatu espainiarren testuingurua nahiago du, interesatzen zaio eta ez du beragandik bereizi nahi. Eta ez gara ari Alderdi Popularrak ordezkatzeko dituen Euskal Herriko burgesi buruz bereziki. Hauek espainiartasuna defendatzen dute, euskalduntasun ororen aurkako gorrotorik garratz eta agerikoenarekin, eta ondorioz, nolabait esateko, kontsekuenteagoak dira esaten dutenarekin eta egiten dutenarekin. Eusko Alderdi Jeltzaleari buruz ari gara. Leninek azaltzen zuen

kultura nazionalaren auziak atzo idatzia dirudi. EAJk “la-guntzak” ematen ditu Euskararen alde eta kultura sustatzeko, baina ogi apur hutsak dira gaur egun dauden baliabideekin egin daitezkeen gauzen aldean. Txapela janzen du, ikurrinaren pin bat eramango du paparrean eta aurreku bat prestatuko dute kanpotik datorren autoritate bati agurra eskaintzeko, baina beste eskuarekin Ertzainak bidaltzen ditu manifestazioak erreprimitzera, gaztetxeei bisitak egitera, herriko tabernak ixtera, askapen nazionalaren aldeko borrokalaria torturatuzera... Euskal kulturaren alde borroka gehien egiten duen sektore haien aurka egiten du!! Ez dago honi “logikarik” bilatuko dion Aristotelesik.

Baina logika aristoteliarraren ordez logika dialektikoa, Marxen metodoa, erabiltzen badugu, arazoa bi-hiru lerrotan konpontzen da buru-hauste handiegirik gabe. Euskal burgesia, burgesa den heinean, bere klase interesei begira dago, hori defendatuko du, ezkutuan bada ere, eta burgesak Jainko bakar bat gurtzen du beste guztien aurretik: Irabazia. Estatu espainiarraren barnean irabazi ederrak segurtatuta dituela? Bada Estatu espainiarraren barnean jarraitzen da, autodeterminazio eskubidea praktikan ez ipintzeko trikimailu guztiak erabiltzen dira, ez baitago oso argi zer gertatuko litzatekeen Irabaziarekin euskal herritarrek independentzia babestearen kasuan, eta funtsik gabeko galderak dituen galdeketak proposatzen dira, auzi garrantzitsuenari buruzko galdera bakar bat ere ez duena. Euskal Herriko mugimendu sozialek, bere gehiengoa langile klaseak osatzen duenak, euskal kulturaren alde borroka egiten duten haiek, Irabaziarentzat mehatxu bat suposatzen dutela? Bada erreprimitu egiten dira.

Leninen proposamena honakoa da: “Nazionalismo burgesa eta internazionalismo proletarioa: hauek dira bi lelo antagoniko adiskide-ezinak, mundu kapitalistako bi klase eremu handiekin bat datozenak eta arazo nazionalaren inguruko bi politika (are gehiago, bi ikuskera) adierazten dituztenak.” Laburbilduz, iraultzaile ororen eginkizuna nazionalismo burgesaren eta burges txikiaren eragina langile klasearengandik bereiztea da, langile klasea izango baita arazo nazionalari konponbidea emango dion bakarra.

ROSA LUXEMBURGO

Leninek, burgesia txikiaren eraginpean zeuden ideia oportunistei eta errebisionistei aurre egiteaz gain, arazo nazionalak bat ere garrantzirik ez zuela ziotenei ere aurre egin behar izan zien. Urteetan zehar, Rosa Luxemburgo poloniarrek auzi nazionalaren inguruan zituen iritziei aurre egin behar izan zien. Garai hartan Polonia Errusiaren menpean aurkitzen zen eta Rosa Luxemburgo iraultzaile eta internazionalista garrantzitsua izan arren, bere internazionalismoa nahikoa abstraktua zen. Herri poloniarren autodeterminazio eskubidea ukatzen zion eta nazio ukraniarra intelektualen asmakeria bat zela zioen.

Nondik nora iritsi zen iraultzaile poloniar hau ideia haue-tara? Rosa Luxemburgo Poloniako Alderdi Sozialistako kidea zen, baina izatez alderdi hau ez zen sozialista, izaera burges txikikoa baizik. Ondorioz, alderdiaren barnean bi hegal anto-latu ziren: batzuek burgesia txiki nazionalistaren inguruan, eta besteak hegal honen erreakzio gisa, klase independentzia eta internazionalismoa defendatuz. Hegal honetan aurkitzen zen Luxemburgo eta hegal burges txikiak eragiten zituen kal-teak ikusirik, azken finean, azken hauek langile poloniarren eta errusiarren arteko zatiketa sustatzen baitzuten, ondorioz sozialismorako bidea ezinezkotuz, kontrako posizio bat hartu zuen, baina oso muturrekoa. Rosaren arabera, autodetermina-zio eskubidea defendatzeak langileak zatitzea zekarren. Leni-nek iraultzaile poloniarrei eman zien erantzuna ondorengo izan zen:

“Begira, zuen posizioa ulertzen dut. Sozialdemokrata polo-niarrak zarete. Zuen lehen eginkizuna nazionalista poloniar-ren aurka borroka egitea da. Jakina, hori egin behar duzue. Baina adiskide errusiarrok ez dizuegu zuen programatik herri poloniarren autodeterminazio eskubidearen leloa ezabatze-ko eskatzen, sozialdemokrata errusiar bezala, gure lehen egin-kizuna gure burgesiaren aurka borroka egitea baita, burgesia errusiarren eta tsarismoaren aurka. Modu honetan baka-rrik erakutsiko diegu poloniarrei gure asmoa ez dela beraiek zapaltzea, honetan datza bi herrien batasuna borroka iraul-tzailean”. Paradoxikoa badirudi ere, autodeterminazio eskubi-dearen defentsak, bereizketatik urrun, langile klasearen bata-

suna sustatzen du, izan ere, borroka nazionala eta soziala borroka internazional bat baita eta langile klasearen gehiengoaren batasunik gabe bi helburuak ezingo dira sekula bete. Nazio zapaltzaileetako langileak, euren burgesiaren aurkako borrokan, nazio zapalduetako langile klasearen aliaturik hobere-
nak bilakatuko dira.

LENIN ETA ARAZO NAZIONALA IV

Zein arrazoik zeraman Lenin nazioen autodeterminaziorako eskubidea babestera? Klase borroka sustatzeko ikuspegiak, langile klasearen batasuna lortzeko ikuspegiak. Boltxebikeentzat arazo nazionalak ez zuen arazo eta oztopo bat bakarrik suposatzen, baita potentzial iraultzaile izugarri bat ere.

LANGILE ERAKUNDEEN BATASUNA

Behin baino gehiagotan aipatu dugu Alderdi Boltxebikeak auzi honen inguruko politika egoki bat jarraitu ez balu, ez zukeela sekula 1917ko Iraultzako arrakasta lortuko. Leninek, batez ere 1903tik aurrera, langile klasearen eta bere erakundeen batasuna mantentzeko beharra azpimarratu zuen behin eta berriro, nazionalitate, hizkuntza, arraza edota erlijio desberdintasunak alde batera utzita, izan ere, garai haietan, Bund alderdi judutarra langile judutarrak gainerako langileetatik bereizirik antolatzeko lanetan ari baitzen.

“Alderdi burgesek hizkuntzaren auziaren, etab.en inguruan dituzten higuin nazionalen langile demokraziak baldintzarik gabeko batasuna eta erabateko fusioa kontrajartzen die, nazionalitate guztietako langileena eta langile erakunde guztietakoa: profesioaletakoa, kooperatibistetakoa, kontsumokotakoa, kulturaletakoa eta nazionalismo burgesaren aurkako kontrapisu den guztietakoa. Batasun eta fusio horrek bakarrik babes ditzake demokrazia, langileek kapitalaren aurrean dituzten interesak —azken honek izaera internazionala baitu eta egunetik egunera are gehiago— eta pribilegio eta zapalkuntza orotatik aske legokeen bizitza-erregimen berri baterako gizateriaren garapenaren interesak”. (Lenin, Arazo nazionalaren inguruko ohar kritikoak).

Trotskyk azaldu zuenez, autodeterminazio eskubidea Leninek arazo nazionalaren inguruan zuen posizioaren erdia besterik ez da. Txanponaren beste aldea langile klasea lerro nazionaletan bereiztearen aurkako oposizio zorrotza da. Ongi be-

reizi behar dira bi elementu hauek. Autodeterminazio eskubidea eskaera demokratiko bat da edota, hobeto esanda, eskaera demokratiko-burges bat, historikoki iraultza burgesaren egin-kizunei lotua. Programaren erdi hau nazioaren osotasunarekin dago lotuta. baina proletalgoari ez zaio langile erakundeak lerro nazionaletan bereiztea interesatzen. Arraza —edota nazionalitate— talde ezberdinentzat erakunde bereiziak sortzea hilgarria da proletalgoarentzat, berau zatitzea eta ahultzea suposatzen baitu jokabide horrek. Gauza bat arrazismoaren eta nazionalitate zapaltzailearen txobinismoaren aurka borroka egitea da, eta bestea, langile klasea zatitzea, nazionalitatearen, hizkuntzaren, erlijioaren eta arrazaren arabera.

Hau ez zen sekula izan Alderdi Boltxebikearen eta bere aurreko Errusiako Langileen Alderdi Sozialdemokrataren jokabidea. Errusiako tendentzia sozialdemokrata bat bera ere (Bund-eko buruzagiak alde batera uzten baditugu) ez zegoen mugimendua lerro nazionaletan zatitzearen alde. Mentxebikeek ere, boltxebikeen posizio berbera defendatzen zuten. Gai hau Alderdi Sozialdemokratan hasera hasieratik hasi ziren eztabaidatzen, sozialdemokrata judutar batzuek Alderdiaren barnean erakunde bereizi bat eskatu zutenean. Bund-ak, Errusia Mendebaldean eta Lituania —han populaketa judutar handia baitzen— indar handia zuenak, langile judutarren izenean hitz egiteko eskubideaz gain erakunde sozialdemokrata judutar bat eratzeo eskubidea ere bazuela zioen. Leninek eta marxista errusiarrek errefusatu egin zuten nahi hau eta alderdi eta langile sindikatu bakar baten beharra azaldu zuten behin eta berriz. Azalpena? Langile klasearen armarik indartsuena batasuna izatea, eta hau kosta ahala kosta defendatu beharra. Laburbilduz, klase ikuspuntua arazo nazionalaren inguruan, berriro ere.

JUDUEN AUZIA

Askotan, langile mugimendua zatitu nahi izan dutenek, demagogia lotsagabea eta sentimentalismo negartia erabili izan ohi dute, zapalduen egoera zaila edota pairatzen dituzten injustizia latzak direla eta, beltzak eta zuriak, nazio zapaltzaileko

langileak eta nazio zapaldukoak, gizonezkoak eta emakumeak... borrokan batzea ezinezkoa dela azalduz. Boltxebismoaren historia baieztapen honen aurkako frogarria da, judutarren auziari begirada bat ematea nahikoa. Juduak Errusian zapalduak eta sistematikoki diskriminatuak ziren, besteengandik bereizita zeuden auzoetan bizitzera behartuta zeuden eta programo odoltsuen jo puntu ziren. Ehuneko mugatu batek bakarrik zuen Estatuko zerbitzuetan lan egiteko aukera eta goi hezkuntzako ikasketak burutzekoa. 1917an judutarren eskubideak mugatzen zituzten 650 lege zeuden. Zapalkuntza nazionalaren forma krudelenetakoa baten adibide eztabaidaiezina.

Leninek beti azaldu zuen langileen betebeharra euren berrezko burgesiaren aurka borroka egitea zela. Honek langile guztiak hartzen ditu beregan, baita zapalduenak ere. Horrengatik egin zieten uko sozialdemokrata errusiarrek Bund-aren eskakizunei. Judutarrek zapalkuntza izugarri bat pairatzea ez zen hauek mugimendutik bereizteko arrazoi bat. Bund-ak "autonomia kultural nazionalaren" leloa defendatzen zuen, Otto Bauerren eta marxista austriarren programatik hartu zutena. Lelo honek are eta zentzu gutxiago zuen judutar errusiarren kasuan Inperio Austro-Hungariarrean baino. Populazioa han-hemenka sakabanaturik, batez ere hirietan bizi ziren juduak, ez ziren lurralde definitu batean bizi, nazio baten existentziarentzako baldintzetako bat. "Autonomia nazional kulturalaren" ideiak populazio judutar sakabanatua eskola eta erakunde eskusiboki judutarretan biltzea suposatzen zuen. Eskaera honek, Trotskyk utopia erreazionariotzat kalifikatu zuenak, judutarrak gainerako populazioarengandik geroz eta gehiago bereizteko eta isolatzeko balioko zuen, arrazagatik tentsio eta gatazkak handitzeko.

Judutarrek ez zuten ez lurralde ez hizkuntza komunik. Errusiako eta Europa Ekialdeko judutar askok yiddish-a hitz egiten bazuten ere, beste askok ez zuten egiten. Herrialde kapitalista aurreratueta judutarrek bizi ziren herrialdeko hizkuntza hitz egiten zuten. Espainiar jatorriko judutar sefardiek mendeetan zehar gaztelera mantendu zuten euren ama hizkuntza bezala. Errege Katolikoen garaian kanporatuak izan ostean, Mediterraneo osoan zabaldu ziren eta aukera zuten aldi oro bizi ziren biztanlerian integratzen saiatzen ziren.

Baina erdi aroko Eliza katolikoaren fanatismoak eta oskuran-
tismoak integrazio hau erabat oztopatu zuen. Juduak gizarte-
tik baztertuak izan ziren. Debekatua zuten lur-jabe izatea, gi-
zarte feudalaren marjinetan zeuden ogibideak izatera behar-
turik zeuden, merkatal edota lukurreria aktibitateak batez
ere. Judutarren bortxazko bazterketa bihozgabeagoa izan zen
Errusia tsarista atzeratuan.

Leninek, judutarrak klasifikatzeko izan zuen zailtasuna
erakutsiz, kasta zapaldu berezia deitu zien: “Gauza bera esan
dezakegu nazio hebraitarren inguruan, zapalduena eta ja-
rraituena dena. Kultura nazional hebraitarra errabinoen eta
burgesen leloa bat da, gure etsaien lelo bat, baina kultura he-
braitarrean eta herri hebraitarren historia osoan badaude
beste elementu batzuk ere. Munduan dauden hamar milioi eta
erdi hebraitarretatik, erdia baino zerbait gehiago Galitzian
eta Errusian bizi dira, herrialde atzeratu eta erdi-basatietan,
hebraitarrek indarrez kasta egoera batean egotera beharturik
daudelarik. Gainerako erdia mundu zibilizatuan bizi da, non he-
braitarrek kasta bezala isolaturik ez dauden. Han begi-bistan
gelditu dira kultura hebraitarren ezaugarri aurrerakoiak,
mundu mailako esangurakoak: euren internazionalismoa eta
garaiko mugimendu aurreratuenen oihartzun bilakatzeko gai-
tasuna (mugimendu demokratiko eta proletarioetan parte
hartzen duten hebraitarren ehunekoa, leku guztietan, popula-
zioan duten ehunekoa baino handiagoa da)” (Lenin, *Ibid.*).

Judutarrek nazio ezaugarriak ez bazituzten ere (lurralde,
hizkuntza... batasun eza), Urriko Iraultzaren ostean boltxebi-
keek autodeterminazioa eskaini zieten judutarrei, aberri bat
bermatuko zitzaienten, eurek nahi bazuten hara (Birobiyanera)
emigratu zezaketelarik, nahiz eta gutxik aukeratu zuten au-
kera hau. Hau mila aldiz hobe zen Palestinan Estatu judutar
bat sortzea baino, mendeetan zehar arabiarrek aurkitzen ziren
lekuan, azken aldian berriro ere bortiztasun osoz azaleratu di-
ren gatazka amaigabe eta odoltsua eraginez. Israelgo Estatu-
aren sorrera marxistek arbuiatu zuten ekintza erreakzionario
bat izan zen. Trotskyk ohartarazi bezala, herri judutarraren-
tzako ere tranpa krudel bat bilakatuko zen. Eta hala da. Is-
raeldarrek irudi erreakzionarioa dute mundu mailan, kultura
itxi bat bezala erakusten dira, euren tradizioak muturreraino

defendatzen dituztenak bezala, handik kanpoko ezer onartzen ez dutelarik, eta normalean kalifikazio hauek egiten direnean ez da israeldar proletarioen eta israeldar kapitalisten artean bereizketarik egiten. Kultura baten izaera irekia edo itxia ez du bere izaera propioak, izaera kultural metafisiko batek determinatzen, egoera sozialak baizik. Urriko Iraultzaren ostean judutarrak bikain integratu ziren gizartean, askapen zibila eta berdintasuna eskuratu zuten. Euren nahiak asebate zituzten eta horrexegatik gehienek egin zioten uko aberri berri horretara joateari. Kultura hebraitarra kultura zapaltzaile eta atzerakoi bezala erakustean, eta benetan zapaltzaileak gainerako kulturetan bezala judutar gutxi batzuk direla esaten ez denean, berriro ere langileriaren batasuna apurtzen da, eta ez langile israeldarrak bakarrik, mundu osoko proletalgora ere tranparik krudelenean erortzen da, kapitalistek (judutarrak izan edota palestinarrak izan) eskuak igurzten dituzten bitartean.

ERRUSIAKO IRAULTZA ETA ARAZO NAZIONALA

*“Demokraziaren erreibindikazio ezberdinak, autodeterminazioarena barne, ez dira zerbait absolutua, mundu mailako mugimendu demokratikoaren (gaur egun sozialistaren) partikula bat baizik. Gerta liteke beraz, osotasunaren testuinguruan, baztertu behar izatea. Posible da herrialde batean, mugimendu errepublikarra apaizen azpikerien edota beste herrialdeetako intriga finantziero-monarkikoen arma bat izatea; kasu horietan guk ezin dugu mugimendu jakin hori babestu. Baina irragarria litzateke arrazoi honengatik errepublikaren leloa nazioarteko sozialdemokraziaren programatik baztertzea”
(Lenin, Politika nazionalaren eta internazionalismo proletarioaren inguruko arazoak).*

Hitz hauek erakusten dute autodeterminazio eskubidea esku-bide erlatibo bat bakarrik dela. Langile klaseak autodeterminazio eskubidea babestea kasu bakoitzaren testuinguru konkretuak baldintzatzen du. Auzi konkretu bat da. Ezinezkoa da jarrera orokor bat izatea, kasu guztientzako balio duena. Leninek ez zuen sekula horrela ikusi. Beharrezkoa da auzi bakoitza kontu handiz aztertzea eta atzerakoia zer den eta aurrerakoia zer ongi bereiztea. Bestela nahaspila batean bukatuko genuke. Eta Leninen jarrera 1917ko praktikan baieztatua izan zen. Errusian arazo nazionala ez zuen burgesiak konpondu, iraultza sozialistak baizik. Boltxebismoaren kalumnietazailer guztiek onartu nahi ez duten zerbait da. Arazo nazionalaren inguruko jarrera marxista ulertu nahi duten guztientzat beharrezkoa da boltxebikeek urte haietan izandako jokabidea eza-gutzea.

Leninek aurreikusi bezala, poloniarrek euren independentzia Errusiako iraultzaren ondorioz eskuratu zuten. Urriko Iraultzak Poloniaren bereizketarako baldintzak sortu zituen. Poloniako Alderdi Sozialistaren eskuin hegala, gobernuaren jabe bilakatu zena, azkar mugitu zen botere guztia burgesia

poloniarrari emateko, mehatxu boltxebiketik ihes egin nahian. Burgesia honek Frantzia eta Britainia Handia Errusiari gerra aldarrikatzera bultzatu zituen 1920an. Boltxebikeek burgesia poloniar erreakzionarioaren aurrean defendatzeaz gain, gerra izan zuten Poloniarekin. Honek autodeterminazio poloniarra ukatzea esan nahi al zuen? Leninek berak eman zuen erantzuna:

“Marxen garaian tsarismoak nazioarteko politikan zuen eragin gaileneko egoera hura beste modu batean errepikatuko balitz, hau da, hainbat herrik iraultza sozialistari ekingo baliote (1848an Europan iraultza demokratiko-burgesa hasi zuten bezala) eta beste herri batzuk erreakzio burgesaren oinarri garrantzitsuenak balira, guk ere herrialde horien aurkako gerra iraultzailearen babesle izan behar genuke, beraiek “zapatzearen” alde egon, euren abangoardiako postuak suntsitzearen alde egin, haietan sortuko liratekeen nazio txikien aldeko mugimenduak edozein direla ere” (Ibidem).

Lerro hauetan modu argian ikusten da Leninek autodeterminazioaren inguruan zuen jarrera. Arazo nazionala (autodeterminazioa barne) proletalgoaren eta mundu mailako iraultzaren interes orokorren menpe dago beti. Proletalgoak nazio zapalduetako askapen nazionalerako borrokak babestu behar ditu, borroka hauek inperialismoaren aurka zuzendurik dau den heinean. Zentzu honetan mugimendu nazionalak, nekazalgoak bezala, proletalgoaren aliatu izan behar du. Baina mugimendu nazional hauek iraultzaren aurka zuzendurik badoaz, nazio txikiak inperialismoaren eta erreakzioaren instrumentu bezala erabiltzen direnean (historian hainbatetan eta hainbatetan gertatu den bezala), langile mugimenduaren jarrera etsaitasun osokoa izango da, mugimendu hauen aurkako borroka ere hasterainokoa. Erabat argi dago hau Leninen hitzetan.

Arazo nazionalaren inguruko programa boltxebikearen helburua Errusia tsaristako nazionalitate guztietako langileak eta nekazariak batzea zen tsarismoa modu iraultzailean eraisteko. Behin langileek boterea hartu zutenean, autodeterminazio eskubidea eskaini zitzaien nazionalitate zapalduetara, baina kasu gehienetan herri hauek elkarturik jarraitzea eta boluntarioki Federazio sobietar batean parte hartzea erabaki zuten. Egia da Poloniak eta Finlandiak bereiztea erabaki zutela, eta bietan botere sobietarraren aurkako diktadura erre-

akzionarioak finkatu ziren. Ukraina Alemaniaren menpe erori zen. Boltxebikeek ez zuten Finlandian eta Polonian esku hartu, ez hauen autodeterminazio eskubideagatik, borroka bati ekiteko ahulegi zeudelako baizik. Beranduago bai, Polonian, Ukrainian eta Georgian esku hartu behar izan zuten.

Urriko Iraultzaren ostean, behin baino gehiagotan gobernu boltxebikeak zenbait mugimendu nazionalista erreakzionarioen aurkako gerrak aldarrikatu behar izan zituen, Dashnaks armeniarren edota Rada ukraniarraren aurka esate baterako, hauek Errepublikak sobietarraren aurkako esku hartze inperialista atzerritarren mozerro bat baitziren. 1920an Lenin Poloniaren aurka gerra iraultzaile bati ekitearen aldekoa zen, baina Trotsky asmo honen aurka agertu zen, ez printzipio kontuengatik edota autodeterminazio poloniarrengatik (Poloniako Pilsudskiren erregimen erreakzionarioa inperialismo ingelesaren eta frantziarraren txotxongilo bat besterik ez zen, azken hauek Errusia sobietarraren aurka bultzatzen zutena), arrazoi praktikoenengatik baizik.

Otsailetik Urrira Errusian eman zen prozesu iraultzailean zehar burgesia finlandiarra bere eragina zabalduz joan zen diskurtso nazionalista batekin. Behin iraultzak garaipena eskuratu zuenean inperialismoak bere babes osoa eman zion burgesia honi botere sobietarra zultzeko estrategiaren barnean. Mugimendu nazionalista erreakzionario honen aurka ezin zen ordea indar militarrekin egin. Masa finlandiarrak erakartzeko eta nazionalismo burgesaren eragina murrizteko asmoz, gobernu sobietarrak independentzia onartu zien 1917ko abenduan. Ekintzarekin bakarrik erakutsi zezaketen boltxebikeek ez zirela tsarren berdinak.

Gerora askotan landu zuen Leninek kasu finlandiarra. "Ikus dezagun Finlandia: herrialde demokratikoa, gurea baino garatuagoa, kultuagoa. Bertan bereizketa prozesua ematen da, proletalgoaren desberdintze prozesua, modu berezi batean, gurean baino modu mingarriagoan. Finlandiarrek Alemaniaren diktadura jasan dute, orain Ententearena jasaten dute. Baina guk nazioen autodeterminaziorako eskubidea onartu dugunez, diferentziazio prozesua errazagoa izan da. Ongi oroitzen dut Smolnyko eszena hura, Svinhufvudi, burgesia finlandiarraren ordezkariari eta borrero papera jokatu zuenari, akta

eman behar izan nionekoa. Adeitasun osoz eman genion eskua elkarri eta begirunezko zenbait hitz elkarbanatu genuen. Zein desatsegina izan zen hura! Baina egin beharra zegoen, burgesia finlandiarrak herria engainatzen baitzuen, langile masak engainatzen baitzituen, Moskukoek, chauvinistek, errusiarrek finlandiarrak ito nahi zituztela esanez. Nahitaezkoa izan zen hura egitea.” (Lenin, Errusiako Alderdi Komunistaren (boltxebikea) VIII. Kongresua, 1919ko martxoaren 18tik 23ra).

Beste batean berriz hala zioen: “Estatu poloniarren, letoniarren, lituaniarren, estoniarren eta finlandiarren independentzia onartu izanagatik hain zuzen ari gara orain Estatu bizilagun txiki hauetan kapitalistek engainatzen eta zapaltzen dituzten masa atzeratueneen konfiantza mantsoki baino tinko irabazten. Hau da, bereziki, euren kapitalista nazionalen eragina apurtzeko modurik seguruena, euren konfiantza erabat konkistatzeko bidea eta etorkizuneko Nazioarteko Errepublika Sobietar bakarrera erakartzeko modua” (Leninen, Ukrainiako langile eta nekazarienezako gutuna, Denikinen lortutako garaipenen inguruan).

Iraultzaren ondoren, Finlandian gerra zibil odoltsu bat piztu zen burgesia nazionalistaren, guardia zurien eta langileen artean. Zilegi ote zen, autodeterminazio eskubidea eman ostean gobernu boltxebikeak langileen alde borroka honetan esku hartzea? Leninen ustetan bai. Hala egin ez bazuten indar faltagatik izan zen. Une hartan Errepublika Sobietar jaio berria potentzia inperialisten tropen erasoak jasotzen ari zen fronte askotan. Arrazoi materiala izan zen, eta ez zuen zerikusirik “autodeterminazio eskubidearekin”. Behin eta berriz buruzagi boltxebike hark esan zuen bezala, autodeterminazio eskubidea ez da zerbait absolutua, zeruan edota ideien mundu platonikoan bizi den eskubide aldaezin bat. Eskubideak ez dira, askotan pentsatu ohi den bezala, zerbait unibertsala, hor dauden zerbait, elementu oso praktikoak baizik, borrokarekin eskuratzen direnak, eta ez inbokazioz. Autodeterminazio eskubidea oinarritzko elementua da nazio zapalduak dauden tasinguruetan hauek borroka iraultzailera ekartzeko eta zapalketa horixe bera eragin duen kausak suntsitzeko. Baina beti ere nazioarteko proletalgoaren estrategia orokorraren barnean ikusi behar da, askotan eskubide honen defentsa helburu

atzerakoiekin egiten baita. Trotskyk moral iraultzailearen inguruko lan batean esaten zuen bezala, sozialismoaren alde, zapalkuntza ororen aurka, borroka egiten duen iraultzailearen moralala, “ona dena eta txarra dena”, elementu batek finkatzen du: sozialismoaren ezarpenaren ikuspegiak. Ondorioz, langile klaseak autodeterminazio eskubidea iraultzaren estrategiara egokitzen den heinean bakarrik defendatuko du. Askapen borroka horiek helburu kontrairaultzaileekin sustatzen badira, langileriaren etsai bilakatuko dira.

ARAZO NAZIONALA ERRUSIAKO URRIKO IRAULTZAREN OSTEAN I

Ale honetan eta ondorengoetan agertuko den artikulu sailean Errusiako Iraultzaren ondoren eta Sobiet Errepublikak Sozialisten Batasuna ezarri ostean arazo nazionalaren inguruan agertu ziren auzi teoriko eta praktikoak agertzen saiatuko gara, SESBaren bilakaeran zehar nazionalitateen auziak buruzagi boltxebikeen eskutik izan zuen trataera azalduz.

LENIN ETA NAZIONALISMO “ERRUSIAR HANDIA”

Leninek Errusiako tradizio nazionalak, historia, literatura eta kultura ezagutzen eta maitatzen zituen. Bihotzez internazionalista zen, baina irmoki Errusiako bizitzara eta kulturara lotua. Leninek inoiz ere ez zion kontzesiorik egin chauvinismo errusiar handiari; honen aurka gupidarik gabeko borroka mantendu zuen bizitza osoan zehar. Iraultza proletarioaren garai-
penak ez zuen aurreiritzien eta ohitura mentalen berehalako desagertzea edota tradizioaren bat-bateko likidazioa ekarri, Marxen hitzetan giza kontzientziarengan “mendi garai batek” adina pisatzen dutenak. Gizonen eta emakumeen adimena ez da gauetik goizera aldatzen esplotatzaileen zapalkuntza ezabatzeagatik eta ekoizpen baliabideak nazionalizatzeagatik. Gizarteak oraindik ere iraganeko ordenaren orbainak eta deformazioak sufritzen ditu, ez bizkarraren gainean bakarrik, baita buruetan ere.

Gizonen eta emakumeen arteko egiazko giza erlazioak sortzeak, iraganeko nazio zapalduen eta zapaltzaileen arteko erlazioak sortzeak denbora bat eskatzen du, ekoizpen indarren garapen mailak, lan egunaren iraupenak eta masen kultura mailak baldintzatzen dutena. Horixe da, hain zuzen kapitalismoaren eta sozialismoaren arteko trantsizio garaiaren esangura. Errusiaren kasuan, zeinetan iraultza atzerapen baldintza ikargarrietan isolaturik aurkitzen baitzen, botere

sobietarrak aurre egin beharreko arazoak izugarriak ziren. Honak azar nazionalari zuzen-zuzenean eragiten zion. Lehen Mundu Gerraren bezperetan, Leninek idatzi zuen “Demokrazia proletarioak nekazari errusiarren nazionalismoa kontuan hartu behar du (ez kontzesioen zentzuan, borrokaren zentzuan baizik). (...)”

“Halako egoerak Errusiako proletalgoari eginkizun bikoi-tza aurkezten dio, edota hobeto esanda, aldebikoa: nazionalismo ororen aurka borroka egitea, eta lehen lekuan, nazionalismo errusiar handiaren aurka; ez nazio guztiek orokorki dituzten eskubideen berdintasuna aitortzea bakarrik, baita estatu eraikuntzarako dituzten eskubideen berdintasuna ere, hau da, autodeterminaziorako nazioek duten eskubidea ere, bereizketarakoa, aitortzea; eta aldi berean, eta hain zuzen nazio guztietako nazionalismo mota guztien aurkako borrokaren arrakastaren alde, borroka proletarioaren eta erakunde proletarioen batasuna sustatzea, nazioarteko komunitate batean fusiorik hertsiena eman dadin, isolamendu nazionalerako joera burgesen aurka.

“Nazioen eskubideen berdintasun osoa; nazioen autodeterminaziorako eskubidea: horixe da marxismoak langileei erakusten dien programa nazionala, mundu guztiko eta Errusiako esperientziak erakusten diena” (Lenin, Nazioen autodeterminaziorako eskubidea).

Leninek sentiberatasun handia erakutsi zuen Estatu sobietarreko nazionalitateekin izandako erlazioetan. Boltxebikeek euren eginkizun guztiak bete zituzten inperio tsarista zaharreko nazio zapalduekin. Hasieran Errusia hitza desagertu zen dokumentu ofizial guztietatik eta honen ordeztan Langile Estatua erabiltzen hasi ziren. Geroago Errepublika Sobietarren Batasuna eratu zuten. Lenin, begi bistan denez, borondatezko federazio baten alde zegoen, baina, aldi berean, nazionalitate ez errusiarrek boltxebikeen nahia inperio tsarista zaharra izen berri batekin berreraiki nahi izatea zela pentsatzea saihestu nahi zuen bide guztietatik. Ardura eta pazientzia eskatzen zituen. Alabaina, Stalinekin, georgiarra izateagatik Nazionalitateen Komisarioa zenak, beste ideia batzuk zituen. Gauza jakina da gehiengoaren nazio zapaltzailearen gobernuko buruzagi postuetara iristen diren nazio txikietako kideek

chauvinista okerrenak bilakatzeko joera izaten dutena. Adibidez, Napoleon Bonaparte bera, korsiarra izanik, zentralismo frantziarraren fanatikorik esanguratsuen bilakatu zen.

Stalin, burokraziaren kumea, chauvinista errusiar handi amorratu bat bilakatu zen, azentu georgiarreko errusiera oso pobre bat hitz egiten bazuen ere. 1921ean, Leninen objektzioei aurre eginez, Stalinek Georgiaren inbasioa antolatu zuen, zeina (teorian) Estatu independente bat zen. Behin hau jazo eta gero, Leninek onartu egin behar izan zuen, baina georgiarrak kontu handiz tratatzea temati defendatu zuen, edozein harrokeria errusiar handi saihestuz. Garai hartan Georgia, herrialde batez ere nekazaria eta burges txikia, mentxebikeek gobernatzen zuten. Lenin politika kontziliatzaile baten alde zegoen, georgiarren konfiantza irabazi nahi baitzuen. Garrantzia handia ematen zion nazionalitateen arteko anaitasun erlazioak mantentzeki, eta behin eta berriro edozein batasun edota federazio borondatez egiteko beharra azpimarratu zuen. Stalinek, bestalde, Georgia kosta ala kosta Federazio Sozialista Errusiarrera bultzatu nahi zuen Federazio Transkaukasiarrarekin, Ukrainiako Errepublika Sobietarrarekin eta Bielorrusiakoarekin batera. Stalinek bere zirriborroa Komite Zentralera pasa zuenean, Leninek gogortasunez kritikatu zuen eta alternatiba desberdin bat proposatu zuen. Leninek federazioaren berdintasuna eta borondatezko izaera azpimarratzen zuen: “Ukrainiako Errepublika Sobietarrarekiko eta besteekiko berdintasuna aitortzen dugu, berauekiko berdintasun baldintzetan, batasun berri bat sortuz, federazio berri bat” (Lenin, Politika nazionalaren eta internazionalismo proletarioaren auziak).

Bien bitartean, alderdiaren zuzendaritzatik alde batera, Stalinek, Ordzhonikidze bere morroiaren laguntzarekin (hau ere bera bezala georgiar errusiartu bat) eta Dzerzinskirenarekin (poloniarra), kolpe bat antolatu zuen Georgian. Mentxebike georgiarrak purgatu zituzten eta buruzagi boltxebike georgiarrak honen aurrean protesta egin zutenean, hauek alde batera bota zituzten gupidarik gabe. Stalinek eta Ordzhonikidzek kritika guztiak zapaldu zituzten. Beste hitz batzuetan, Leninenaren kontrakoa zen politika bat eraman zuten aurrera Georgian. Boltxebike georgiarrak mehatxatu zituzten eta biolentzia fisikoa erabiltzera iritsi ziren, Ordzhonikidze berak

boltxebike georgiar bat jipoitu zuelarik. Leninek, bere gaixota-sunagatik ezgaiturik zela, gertakari hauen berri izan zuenean gutun sail bat diktatu zizkien bere idazkariei Stalinen jokabidea salatuz era tinko batean, eta Ordzhonikidzerentzat zigorgogor bat exijituz.

1922ko abenduaren 24-25ean diktaturiko testu batean, Leninek Stalin “egiazko nazionalista sozialista eta errusiar handi doilor eta zabar” bezala kalifikatzen zuen. Ondorengo hau idatzi zuen: “Beldur naiz Dzerzinski kamarada ere, sozialchauvinista horien krimenak ikertzeko Kaukasora bidaiatu zuena, egiazko sentimendu errusiar batengatik bakarrik nabarmendu ote den horretan (jakina da beste nazionalitateetako jende errusiartuak beregan duen egiazko sentimendu errusiar bat exajeratu egiten duela beti) eta bere komisio osoaren inpartzialitateak Ordzhonikidzeren ‘ekintzaren bidearen’ etsenplua izan ote dituen ezaugarri hein handi batean” (Lenin, Burokraziaren aurka).

Leninek liskar honen errua Stalini egotzi zion: “Uste dut Stalinen presak eta bere posizio administratiboak eta sozialismo nazionalista famatuaren aurkako bere higuinak, paper tamalgarri bat jokatu zutela honetan. Orokorrean higuinak, politikan, paper benetan dohakabea jokatzeko du” (Ibid.).

Leninek, Stalinek Georgian izandako jokabidea Estatu sobietarraren aparatatu burokratikoaren degenerazioarekin lotzen zuen zuzenki. “Estatu aparatatu batu” bat izateko beharraren argudioak ez zuen balio Leninentzat gertakari hau justifikatzeko eta burokraziari zerion chauvinismo ustelaren emaitza bezala ikusi zuen, neurri batean tsarismoaren herentzia zena: “Aparatuaren batasuna beharrezkoa zela baieztatzen da. Baina nondik zetozen baieztapen horiek? Ez al zetozen bada Errusiaren aparatutik bertatik, zeina, egunkariko aurreko ale batean esan nuen bezala, tsarismotik hartu baikenuen, barniz sobietar batekin apur bat estaltzera mugatuz?

“Zalantzarik gabe, neurri hori hartzeko, gure aparatuen gaineko ardura, aparatatu hau benetan gurea izatera iritsiko litzatekeen egunera arte itxaron behar genuen. Baina orain, zinez, kontrakoa esan behar dugu: gurea dela badiogu ere aparatatu hau, izatez, oinarrian arrotza zaigu eta biziraupen burgesen eta tsaristen nahasketa bat erakusten du; eta esan behar

dugu ezinezkoa izan zaigula bost urtean eraldatzea, izan ere ez baikenuen beste herrialdeen laguntzarik eta “eginkizun” militarrek eta gosearen aurkako borroka gailentzen baitziren.

“Baldintza hauetan ulertzekoa da ‘batasunetik irteteko askatasuna’, justifikazio gisa balio diguna, Errusiako kide diren beste nazionalitateak egiazko errusiarrengandik, chauvinista errusiar handien inbasiotik, errealtatean burokrata errusiarra den jendaila eta zapaltzaile horretatik, defendatzeko gai ez den formula burokratiko bat bezala agertzea. Ez dago zalantzarik langile sobietarren eta sobietartuen portzentaia oso txiki bat lortuko duela olatu chauvinista errusiar handi honen, euli bat esnetan bezala” (Ibid.).

Leninek geratzen zitzaion indar apurra Stalin idazkari nagusi postutik kentzeko erabili zuen, baina alderdiaren zatiketa ireki baten beldurra ere bazuen, borroka zuzendaritzaren barnean mantendu nahi izan zuen. Leninek sekretuan idatzi zien beste boltxebikeei, eta Trotskyri eskatu zion georgiarrak Komite Zentralean defendatzeko. Stalinen aurka Leninek izan zuen borrokaren froga dokumentala hamarkadetan zehar debekaturik egon zen Sobiet Batasunean, Alderdi Komunistaren oinarriei eta mundu guztiko langileei ezkutaturik. “Leninen Testamentua” izenarekin ezaguna den testua 1956ean atera zuen Jrushchoven gobernuak argitara, Georgiaren inguruko beste dokumentuekin batera, Leninek egiazko boltxebismoaren eta internazionalismo proletarioaren defentsa bere bizitzaren azkenera arte mantendu zuela erakutsiz.

ARAZO NAZIONALA ERRUSIAKO URRIKO IRAULTZAREN OSTEAN II

HERRIALDE BAKAR BATEKO SOZIALISMOA

1924an Stalinek oraindik ere Leninen posizio internazionalista defendatzen zuen. Urte hartako otsailean Stalinek Leninek sozialismoaren eraiketaren inguruan zituen iritzia laburbildu zituen Leninismoaren oinarriak lanean:

“Herrialde batean burgesiaren boterearekin amaitzea eta gobernu proletario bat eratzea ez da sozialismoaren erabateko garaipenaren berme. Sozialismoaren eginkizun nagusiak —ekoizpen sozialistaren antolaketak— egiteke jarraitzen du. Eginkizun hau burutu al daiteke herrialde bakar bateko sozialismoaren garaipenarekin, herrialde garatu ezberdinetako proletalgoaren esfortzu eta babesik kontuan hartu gabe? Ez, ezinezkoa da. Burgesia garaitzeko ez dira nahikoa herrialde bakar baten esfortzuak, gure iraultzaren historiak hori baieztatzen du. Sozialismoaren erabateko garaipenerako, ekoizpen sozialistaren antolaketarako, ez dira aski herrialde bakar baten esfortzuak, eta bereziki Errusia bezalako herrialde nekazari batenak. Honetarako herrialde garatuetako proletalgoaren esfortzuak ezin bestekoak dira.”

Hauxe da hain zuzen “iraultza proletarioaren teoria leninistaren ezaugarri nagusia”, Leninek ehundaka hitzaldi, artikulua eta dokumentutan errepikatu zuena 1905etik aurrera. Baina 1924aren azkenetan Stalinen liburua errebisatua izan zen eta honen lekuan kontrako ideia ipini zen. 1926ko azaroan Stalinek aurretik esandakoaren justu kontrakoa baieztatu zuen: “Alderdiak beti herrialde bateko sozialismoaren garaipenaren ideia hartzen du abiapuntutzat, eta eginkizun hori herrialde bakar baten indarrekin aurrera eraman daitekeela”.

Lerro hauek Leninen internazionalismo proletarioaren politikarekin erabat hausten dute. Stalin ez zen sekula halakorik esatera ausartuko Lenin bizi izan zen artean. Hasera batean,

herrialde bakar bateko sozialismoaren teoriak iraultzarekin loratu berri zen burokraten kastan zegoen giroa islatzen zuen, haizete iraultzaileen aroari amaiera eman nahi baitzioten. Urriaren aurkako erreakzio burges txiki baten adierazpen teorikoa zen. Herrialde bakar bateko sozialismoaren banderapean, burokrazia stalinistak aldebakarreko gerra bat zuzendu zuen boltxebismoaren aurka, Leninen alderdiaren suntsipen fisikoa eta erregimen totalitario iguingarri baten sorrera ekarriz.

Alderdi Boltxebikearen hezurren gainean eraikitako errejimena azkenean Urriko Iraultzaren aztarren guztiak deuseztu zituen. Baina hori ezin zitekeen aurrikusi. Errusiako iraultzaren ostean, Internazional Komunistak berriro ere posizio zuzen bat defendatu zuen arazo nazionalaren inguruan. Baina stalinismoaren garapenarekin eta Internazional Komunistaren degenerazioarekin oinarrizko ideia hauek guztiak galdu egin ziren. Atzerriko alderdi komunistetako buruzagi gehienekitsu-itsuan jarraitu zuten Moskuk ezarritako politikaren bidea. Posizio independente bat izaten saiatu zirenak espulsatuak izan ziren. Kominterna iraultza proletarioa mundura garraiatzeko herraminta izatetik, Stalinen kanpo politikarako instrumentu politiko bilakatu zen. 1943an, jada erabilgarria ez zitzaionean, Stalinekin, mespretxu osoz, desegin egin zuen kongresurik ere gabe.

Gizon bakarra izan zen herrialde bakar bateko sozialismoaren teoriak zer ekarriko zuen aurrikusteko gai. 1928aren haseretan, Leon Trotskyk ohartarazi zuen Kominternak teoria hau onartzen bazuen, ekarriko zuen ondorioa munduko alderdi komunistak guztien degenerazio erreformista nazionala izango zela, berauek boterean egon edo ez. Hiru belaunaldiren ostean, Sobiet Batasuna eta Internazional Komunistak suntsituta aurkitzen ziren eta alderdi komunistek egiazko politika leninista bat defendatzeko nahia erabat alboratu zuten.

UKRAINAKO AUZIA

Trotskyrentzat, Leninrentzat bezala, autodeterminario eskubidearen eskaera babesteko auzia auzi konkretu bat zen: erantzuna proletargoaren interesek eta munduko iraultzarenak deter-

minaturik zegoen. Trotskyren metodoaren adibide argia Ukrainarekiko izan zuen jarrera izan zen 30eko hamarkadan. Burokrazia estalinistak Ukrainarekiko izan zuen jokabide nardagarriak erabat kaltetu zituen Urriko Iraultzak Errusiaren eta Ukrainaren artean sortu zituen elkartasun lokarriak.

Georgiaren moduan, Ukraina herrialde nekazaria zen ia bere osotasunean, populazio nekazaria gehiengoa zen. Herrialde handi bat, Estatu Frantziarrarekin konpara zitekeen biztanlegoa eta tamainua zituen, eta garrantzia estrategiko handikoa boltxebikeentzat. Ukrainan iraultzak arrakasta izatea ezinbestekoa zen iraultza Poloniara, Balkanetara eta garrantzitsuena zena, Alemaniara zabaltzeko. 1919ko urtarrilean Christian Rakovskik, Ukrainako Errepublika Sobietarreko Komisarioen presidenteak, zera zioen: “Ukraina da sozialismoaren puntu estrategiko nagusia. Ukraina iraultzaile bat sortzeko Balkanetan iraultza eragitea esan nahiko luke eta proletalago alemaniarren goseari eta munduko inperialismoari aurre egiteko posibilitatea emango luke. Ukrainako iraultza mundu mailako iraultzaren faktore erabakigarria da”.

Botere sobietarra zenbait zailtasunekin ezarri zen Ukrainan. Handiena nekazarien nagusigo izugarria zen. Egoera arazo nazionalagatik zaildu zen. Ukrainiera errusieraren oso antzekoa izan arren, eta bi herri hauek mendeetan zehar historia komun bat izan badute ere (Kiev hasera batean Rus zahararren hiriburua izan zen), halaber, ukrainiarrek herri desberdin bat osatzen dute, euren hizkuntzarekin, kulturarekin eta identitate nazionalarekin —chauvinista errusiarrek onartu ohi ez zuten errealtatea, tradizionalki errusiar txikiak deitzen zieten larik—.

Ukrainan bereizketa nazionala gizarte ukrainiarren klase bereizketarekin bat zetorren. Biztanlegoaren %80a ukrainieraz hitz egiten zuten nekazariak ziren, eta biztanlego hiritarraren zati handi bat errusiarrek. Boltxebikeek oinarri tinko bat zuten hirietan, baina landan oso ahulak ziren. Boltxebikeen ahultasuna zera zen, alderdi errusiar eta judutar bat bezala ikusiak zirela. Baina iraultza Ukrainara nahita ez iritsi zenez, nekazalgoaren artean klase desberdintasuna agertu zen eta hau Ukrainako erakunde tradizional zaharretako eszisiotan islatu zen. Gertakaririk garrantzitsuena borotbistsen ebo-

luzioa izan zen, ezkerreko sozialiraultzaile errusiarren lerro ideologikoarekin aldera daitezkeenak. Gerra Zibilean zehar, borot'bistsak boltxebikeekin elkartu ziren zurien aurka borroka egiteko. Boltxebike ukrainarrek zalantzak izan bazituzten ere, Leninek behin eta berriro borot'bists hauekin elkartzeko eskatu zien. Zailtasun askoren ostean Alderdi Komunistarekin fusionatu ziren, alderdiari lehenengo aldiz masa oinarri bat emanez nekazalگو ukrainarraren gainean. Hau erabakigarria izan zen Ukrainako iraultzaren garaipenerako.

Egia da gero zailtasun asko sortu zirela alderdi ukrainiarreko desbideraketa nazionalistarekin. Baina gaindituak izan ziren Leninek eta Trotskyk arazo nazionalaren inguruan izando politikak ezaugarritzat zituen pazientziarekin eta sentsibilitatearekin. Stalinen etorrerak giroa aldatu zuen ordea. Alderdiaren XX. Kongresuan, 1923an, Rakovskik burokratizaziorako eta chauvinismo errusiar handirako zetorren joera gorakorren aurkako borroka zuzendu zuen. Ausartki honako hau jaurti zuen: "Stalinek azalpenaren erdia bakarrik eman du. Bada bigarren azalpen bat, garrantzitsuagoa, batetik gure alderdiaren eta gure programaren eta beste aldetik gure Estatu aparatuaaren artean dagoen diferentzia. Hau da auzi zentrala eta garrantzitsua.

Gure autoritate zentralak, geroz eta gehiago, herrialdearen administrazioa konbenientziaren ikuspuntutik ari dira begiratzen. Noski, aspergarria da hogeï errepublika administratzea eta baliagarriagoa litzateke herrialde guztia bateraturik balego. Ikuspuntu burokratikotik hau sinpleagoa, errazagoa eta gustagarriagoa litzateke".

Boterea burokraten aristokrazia pribilegiatu berri baten eskuetan kontzentratu izanak eragin erabat hondagarria izan zuen auzi nazionalarengan Sobiet Batasunean. Indarrezko kolektibizazioaren abentura burokratikoak ondorio suntsitzailerak ekarri zituen Sobiet Batasun osoan, baina batez ere Ukrainan. Stalinen purgak lehenago hasi ziren bertan gainerako errepubliketan baino, nekazari ukrainarrek erokeria hari oposizioa aurkeztu ziotelako. Aldi berean, oposizioa ikusgai zegoen Alderdi Komunista Ukrainarraren lerroetan. 1933 eta 1936 bitartean, Stalinek alderdi ukrainarra suntsitu zuen. Urte bakarrean, 1933an, alderdiko lurraldekako ordezkarien ia er-

diak purgatuak izan ziren. Asko ziren Stalinen aldekoak, Skrypnik bezala, baina boltxebike zahar honek, alderdi ukrainarreko buruzagi gailenak, bere buruaz beste egin zuen purgen aurkako protesta gisa. Hau lehen kolpea bakarrik izan zen. 1938an, Moskuko Purgen puntu gorenean, alderdiko erakundeetako idazkarien ia erdiak purgatuak izan ziren berriro ere. Hau ohar argi bat zen Stalinen burokraziaren aldetik: Moskuko burokraziarekiko erabateko morrontza bakarrik izango zen onartua. Arazo nazionalaren ebazpena ibilbide berri bat hartzen hasi zen kasta berri honen goraldiarekin.

ARAZO NAZIONALA URRIAREN OSTEAN III

Burokraziaren goraldiaz eta honetatik sortu zen Stalinen boterera iristeaz aritu ginen aurreko alean, eta prozesu honen ondorioz nazioen auziaren inguruan boltxebikeek izandako politika erradikalki itxuraldatu zela azaltzen genuen, Moskuren boterea handituz eta gainerako errepublikak nazionalismo errusiar handiaren menpeko bilakatur.

UKRAINAKO AUZIA ETA TROTSKY

Trotskyk erbestean zela ikusi zuen prozesu hau. Ukrainan berrezi, purgatu inon baino gogorragoak izan zirela azaldu zuen eta burokrazia errusiarraren neurri zapaltzaileek Ukrainako eta Sobiet Batasuneko gainerako lurraldeen arteko lokarrien artean tentsio onartezin bat ekarriko zutela. Trotskyrentzat begi-bistakoa zen nazionalismo burges kontrairaultzaile ukrainar bat birsortzeko aukera, eta testuinguru hartan joera horiek nekazariengan oinarri oso zabala aurkituko zuela. Mundu Gerra berri baten ezinbestekotasunaz ere hitz egin zuen Trotskyk Hitler Sobiet Batasuna inbaditzen saiatzen bazen, eta egoera honetan auzi ukrainarrak oinarritzko garrantzia hartzen zuela munduaren etorkizunerako.

Baldintza hauetan Trotskyk Ukraina sobietar sozialista eta independente baten kontsigna aurreratu zuen. Bere nahia argia zen: Ukraina Sobiet Batasunetik oinarri erreakzionarioekin bereizi nahi zuten nazionalista burges ukrainarren zutabeak suntsitzea, bereizketa horrek Ukraina, bere nekazal eta industria potentzial izugarriarekin, Hitlerri oparitzea suposatuko baitzuen. Trotskyk, Ukrainako iraultza politiko baten ezinbestean arazo nazionala puntu garrantzitsu bezala ipiniko zuela ulertzen zuen, eta gauzak jada hain urrun joan zirela ezen ezinezkoa zela Ukraina beharturiko batasun hartatik askatzea saihestea, nekazariak bortizkeriarekin, sufri-

menduarekin eta umilazio nazionalarekin identifikatzen zutena. Boltxebike-leninista ukrainarren eginkizuna, beraz, mugimendu nazional ukrainarrari eduki sozialista eta ez burges bat ematea zen.

Ukrainan iraultza arrakastatsu bat aurrera eramateak izugarritzko eragina izango zuen Errusian eta estatu bizilaguetan, batez ere mendebaldeko Ukrainan, Poloniako Pilsudskiren diktadura bonapartistapean itorik baitzegoen. Ukraina erregimen sozialista sobietar independente baten oinarrietan birbateratzeak Pilsudskiren gainbehera eta Polonian iraultza sozialista bat hastea ekarriko zuen. Honek, aldi berean, langile klase alemaniarren indarra emango zion Hitlerren aurka altxatzeko. Horregatik hartzen zen Ukraina “munduko iraultza-ren giltzarri” gisa, langile klasea boterera iritsi bazen, Errusiagandik bereizirik ere, federazio baterako atea gerora ere irekiko baitzen iraultza aurrera eramanez gero. Hala ere gauzak ez ziren Trotskyk espero bezala irten, eta Bigarren Mundu Gerrak ikuspegi hauekin amaitu zuen.

1939an Stalinek Hitlerrekin Itun famatua sinatu zuenean eta Ejertzito Gorria Poloniaren zati bat okupatzera bidali zuenean, Mendebaldeko Ukraina barne, Trotskyk ohartarazi zuen Hitlerrek bere hitza hautsiko zuela eta Sobiet Batasunari erasoko ziola. Egoera honetan Ukrainako deskontentu nazionala Sobiet Batasunarentzako mehatxu hilgarri bilakatuko zen. “Honekin Hitlerrek bi helburu betetzen ditu: lehena, Sobiet Batasuna bere orbita militarrean erakartzea; bigarrena, Ukraina Handi bat eraikitzearen programaren konponbidean aurrerapauso bat gehiago ematea. Hitlerren politika honako hau da: bere konkistentzako ordena jakin bat ezartzea, bata bestearen atzetik, eta konkista bakoitzarekin laguntasun sistema berri bat sortzea. Egungo etapan Hitlerrek bere lagun Stalini Ukrainan Handia eskaintzen dio barne gordailuzain bezala. Hurrengo etapan Ukrainaren jabea nor ote den planteatzen duen auzia azaleratuko du, edo bera edo Stalin.” (Trotsky, Idatzia).

Trotskyk ohartarazi zuenez, burokrazia stalinista errusiarrak Ukraina nazionalki zapaltzeak ukrainarrak Hitlerren besoetara bultzatzea ekarriko zuen. Arrazoi honexegatik beragatik, eta testuinguru historiko jakin batean, Trotskyk “Ukraina sobietar eta independente” baten leloa aurreratu zuen, nazio-

nalismo burges ukrainar erreakzionarioari aurre egiteko eta langile eta nekazari ukrainarrak botere sobietikoaren ideia bereganatzeko. Bigarren Mundu Gerraren bezperetan haxe idatzi zuen:

“Ukrainako iritziaren sektore batean Alemaniaren aldeko orientazioa bere izaera erreakzionarioan eta bere utopismoan agertuko da orain. Orientazio iraultzailea bakarrik gelditzen da. Gerrak prozesua martxa bikoitzean joatea ekarriko du. Honek oharkabea har ez gaitzan, auzi ukrainarraren inguruko posizio argi eta apropos bat hartzea eskatzen du.” (Ibid.)

1941ean, hain justu Stalinen agente batek Trotsky erail eta urte betera, honek aurreikusi bezala, Hitlerrek Sobiet Batasuna inbaditu zuen. Eta pentsatu bezala, ukrainar askok, bereziki nekazariak, hasieran Alemaniari itxaropentsu begiratu zioten, edota konformitatez behinik behin. Baina laster aldatu zen, nazien politika arrazista burugabea zela eta, honen azpiko arrazen erokeriarekin. Sobiet Batasuna tropa amerikarrek eta merkantzia amerikarrek inbaditua izan bazen emaitza desberdina izango zen. Baina Hitlerren tropak ez ziren merkantzia merkeekin etorri, gas kamarekin baizik. Emaitza zera izan zen, ez Ukraina bakarrik, baizik eta Sobiet Batasun osoa, nazi okupatzaileen aurka borroka egiteko altxatu zela. Azkeneko kolaboratzaileen kopurua oso txikia zen, baita Ukrainan bertan ere. Stalinismoak buruturiko krimen guztiak hor bazeuden ere, hau gutxieneko gaitz bezala hartu zuten.

Garrantzitsua da Trotskyk Ukraina kasu berezi bat bezala ikusten zuela ulertzea. “Ukraina sozialista sobietar” independentearen behin behineko leloa arrazoi bereziengatik jaurti zuen, eta ez zen berdin gertatu SESBko gainerako errepublikekin. Areago, lelo hau jada ezin da aplikatu Ukrainan. SESBen gainbeheraren ostean, Ukrainak —gainerako errepublika zaharrek bezala— independentzia eskuratu du. Baina, hura gertatu zenetik ia bi hamarkadetara, masa Ukrainarrek ez daukate ezer, euren ekonomiaren eta kulturaren gainbeheratik ondorioak atera dituzte, eta Sobiet Batasun ohiarekin berriro ere elkartzearen aldeko giroa sektore zabalen artean hedatu da. Ukrainarrek euren eskubide demokratikoak nahi dituzte, noski, besteak beste euren auziak kudeatzeko autonomia eta euren nahi nazionalak, hizkuntza eta kultura errespetatzea. Ber-

dinak bezala tratatuak izan nahi dute, ez bigarren mailako “errusiar txiki” bezala. Beste hitz batzuetan, egiazko Federazio Sozialista bat nahi dute, printzipio leninistetan oinarritua.

Baina Trotskyk bere garaian erabili zuen kontsigna hura mekanikoki edozein egoerataraz aplikatzea ez da oso zentzuzkoa. Arazoak bere historikotasunean ulertu behar direla azaltzen du marxismoak, eta ondorioz, kontsigna unibertsalik ez dago: garai bakoitzak dagokiona exijitzen du. Ondorioz, kontsigna hau, Kosovoren independentzia defendatzeko hainbat talde ezkertiarrek eta nazionalistek erabili zuten bezala erabiltzea lekuz kanpo dago. Metodo dialektikoa, Leninek eta Trotskyk erabiltzen zutena, oinarritzko proposizio batetik abiatzen da: “egia beti konkretua da”. Eta Kosovoren kasuak ez zuen inongo erlaziorik Ukrainak garai hartan zuenarekin. Ikusi besterik ez da nola amaitu duen, izan ere, ikuspegi sozialista bat ezean, Kosovoren independentzia hitz joko huts bat bilakatu da eta imperialismoaren feudo berri bat bilakatu zaigu iraganeko Jugoslaviaren barrenean. Jugoslaviaren zatiketa ekintza erabat erreakzionarioa izan zen, eta historikoki eskualde horretan gertatu bezala atzetik inperio handien atzaparrak nabari ziren. Estatu Batuek NATOren mozorroa erabiliz egin zituzten azpijokoak izan ziren ekuazioko elementu garrantzitsuenak. Protektoratu amerikar bat sortu da Kosovorekin, autodeterminazioaren teoriaren izenpean. Azken finean, Kosovoko talde independentistak Estatu Batuen agente bilakatu dira, haien enbaxadore zuzenak. Balkanetako gerra berri bat pizteko aukerak ere bost axola ziela adierazi zuten behin baino gehiagotan, narkotrafikoa edota serbiarren, ijitoen eta beste gutxiengo nazionalen hilketa sistematikoak eguneroko ogi bilakatzuz. Kosovo independente baten izenean gainerako nazionalitateak zapaltzeko prest agertu dira, dirudienez nazio zapaldu gisa izandako iragana erabat ahaztuz. Eta lehen hain iraultzaile gisa aurkeztu zirenak erreakzioaren adibide nagusi bilakatu dira. Azken finean nazio auzia klaseko ikuspuntutik gabe hartzeak halako jarrera xenofobo tamalgarriekin amai dezake, langile klasea zatituz, errealitatean formala den independentzia baten izenean, Estatu Batuek berriro ere euren burua munduko inperioaren gidari bezala altxa dezaketelarik.

ARAZO NAZIONALA URRIAREN OSTEAN IV

Leninek azaltzen zuen auzi nazionala, funtsean, ogiaren auzi bat dela.

Sobiet Batasunaren garapen ekonomiko azkarrek, ekonomia nazionalizatuari eta planifikatuari esker, bizi mailaren eta kulturaren igoera izugarria suposatu zuen Batasuneko herri guztientzat.

ARAZO NAZIONALA ETA STALINISMOA

Konkistarik handiena Kaukasoko eta Asia Zentraleko errepublika atzeratuenetan eskuratu zen. 1917 eta 1956 bitartean, SESBeko ekoizpen industrialak 30 bider handitu zen, baina Kazajistanen 37 bider hazi zen, Kirgizistanen 42 eta Armenian 45; gauza bera gertatu zen Uzbekistanekin, Tayikistanekin, etab. Itzelezko aurrerapen hauek guztiak eman baziren ere, zapalkuntza nazionalak bizirik jarraitzen zuen Sobiet Batasunean. Bere handikeriazko aldarriak funtsik gabeak ziren. Ondorengo pasarte hau garaiko tipikoa da, Leninen lan batzuen berrargitalpen baten sarreran idatzi zuena burokrazia sobietarrak: “Sobiet Errepublika Sozialisten Batasuna, lehendik historian ezagutu ez zen bezalako Estatu multinazional mota bat da, lankidetza anaitiarraren eta elkarlaguntzaren printzipioen gainean fundatua. Nazio sozialistek —errusiarrek, ukrainarrek, georgiarrek, uzbekiarrek eta gainerakoek— osaturik dago. Klase berri bateko nazioak dira hauek, historian parekorik ez dutenak. Zapalkuntza eta esplotazio mota orotik aske dauden jende langileko nazioak dira. Batasun moralagatik eta politikoagatik baturik daude eta gizarte berri bat eraikitzeko herrien egiazko adiskidetzagatik. Nazio hauek kultura komun batean, eduki sozialista batean eta forma nazional batean islatzen den moral berri bat eta makillaje politiko bat dute. Alderdi Komunistak heziak izan dira patriotismoaren izpirituan, herrien arteko laguntasunean eta gainerako herri guztien eskubideen errespetuan, internazionalismoaren izpiritua-

rekin” (Leninen Politika Nazionaleko eta Internazionalismo Proletarioko Auziei Sarrera).

Burokraziak hedatu zituen mito hauek zerikusi gutxi zuten egoera errearekin. Stalinen eta burokraziaren munstrozko chauvinismoak Sobiet Batasuneko herrien artean zegoen elkartasuna zulatzeke balio izan zuen eta SESBen apurketarako bidea prestatu zuen, herri guztien kaltean. Ezin azal liteke SESBen gainbehera lasterra dena perfektua zenaren propaganda stalinista onartzen bada. Stalinen pean gauzatu ziren SESBeko gutxiengo nazionalen aurkako izugarrikeriak handienak. Purgek Stalinek 1922an hasi zuen eginkizuna amaitu zuten —Alderdi Boltxebiketetik geratzen zenaren likidazioa—. 1937ko erdialdera errepublika nazional guztietako alderdi komunisten aurkako eraso bati ekin zioten. Alderdi nazionaletak buruzagiak Bujarini 1938ko martxoan egin zitzaion epaiketa famatuko parte izan ziren. Buruzagien aurkako salaketa “nazionalista burgesak” izatea izan ohi zen eta exekutatuak izan ziren. Gero masa-atxiloketak eta deportazioak hasi ziren. Stalinen purgen kopuru zehatza ziurrenik ez da inoiz jakingo, baina milioika izan zirela argi dago. Ukrainarrek, armeniarrek eta georgiarrek ez zuten kontsolamendurik izan herri errusiarrak ere modu berean sufritzen zuela ikusita. Stalinen muturreko nazionalismo errusiarra Pravdak 1945eko maiatzaren 25ean berrargitaraturiko diskurtso batean laburtzen da, non Stalinek zioen herri errusiarra “Sobiet Batasuneko nazio guztien artean naziorik bikainena zela (...) SESBen gida eta indarra”. Beraz, gainerako nazionalitate guztiak bigarren mailako herriak ziren eta Moskuren gidaritzan onartu behar zuten. Ikuspegi honek arazo nazionalaren inguruko politika leninistaren letra eta izpiritua bortxatzen du.

Stalinek buruturiko krimenik bortitzena Bigarren Mundu Gerran zehar martxan jarri zituen nazionalitateen masa-deportazioak izan ziren. Gerran zehar zazpi herri gutxienez deportatu zituen Siberiara eta Asia Zentralera baldintza gupidagabeetan. Hauxe izan zen Krimeako tartaroen, Volgako germaniarren, kalмикiarren, karatxaiarren, baltariarren, txerkesiarren eta txetxeniarren jomuga. NKVDak (Stalinen polizia sekretuak) inguratu egiten zituen —gizonak, emakumeak, haurrak, agureak, gaixoak, komunistak eta sindikalistak— eta armekin meha-

txatuta bagoietan sartzera bultzatzen zituzten hartu ahal izan zituzten janzki gutxiekin. Kopuru handi bat bidean hil zen edota iritsitakoan, hotzez, gosez eta nekez. Guda lerroan borroka egiten zuten soldaduak, euren adoreagatik kondekortuak izan ziren haiek ere, atxilotuak eta deportatuak izaten ziren. Krudelkeriazko, basakeriazko eta zapalkuntza nazional-eko ekintza hauek sorturiko atsekabearen ondareak bizirik darrai oraindik ere. Sobiet Batasunaren apurketan eta Txetxeniako amesgaiztoan islatu zen.

Herri ez errusiarren errusiartzea Errepubliketako Alderdi “Komunisten” zuzendaritza organoen konposaketan ere argi ikusi zen. 1952an, baltikoko errepubliketako eta Asia Zentral-eko buruzagien erdia bakarrik zen bertako nazionalitatekoa. Beste leku batzuetan proportzioa are okerragoa zen. Esate baterako, Moldaviako alderdian %24,7 bakarrik ziren moldaviar-rrak, 1948an alderdi tajikistandarreko afiliatuen %38a bakarrik zen tajikistandarra.

Stalinismoaren ezaugarri higuingarrienetariko bat bere antisemitismoa izan zen. Alderdi Boltxebikeak beti egin izan zuen borroka antisemitismoaren aurka. Ondorioz, judutarrek euren salbazio bezala ikusi zuten Urriko Iraultza. Boltxebike-ek eskubide berdinak eta askatasun osoa eman zizkieten. Euren hizkuntza eta kultura sustatu ziren. Euren errepublika autonomo propio bat sortzeko eskubidea ere eman zitzaien, aberri bereiztu bat nahi zuket judutarrek hura izango zuten. Baina Stalinekin iraganeko zikinkeria arrazista guztiak berriro ere azalera irten ziren. Judutarrak berriro ere besteren bekatuak garbitzeko sakrifizioarako eskaintzen diren pizti bilakatu ziren. Hogeigarren hamarkadan jadanik Stalinekin antisemitismoa erabili zuen Trotskyren aurka. Judutarrek boltxebike zaharren zati garrantzitsu bat osatzen zutenenez, purgak neurrigabe pairatu zituzten. Bigarren Mundu Gerraren ostean, Stalin pozoitzen saiatzearen salaketapean, medikuen aurkako kanpaina antisemita bati ekin zitzaion, hauek batez ere judutarrak baitziren. 1948an Israelgo Estatua eratu ostean (hasera batean Moskuk babesturik) kultura judutarra, ordura arte onartua, debekatua izan zen. Yidishean idatziriko argitalpen guztiak itxi egin ziren eta berdina gertatu zen antzoki yidishekin. 1952an, Stalinen heriotzaren aurreko urtean, kultu-

ra judutarreko ia lider guztiak erail zituzten eta judutar ugarri atxilotu zituzten. Stalinen heriotza izan zen purga berri bat saihestu zuena. Egun ere bizirik dira antisemitismo elementuek Errusiako Alderdi “Komunista” deiturikoan. Hau, bere kasa, nahikoa da stalinismoa egiazko leninismotik bereizten duen amildegia erakusteko.

SESBak gerra eta gatazka nahasketa batean amaitu zuen. “Bizitzak erakutsi egiten du”, esan ohi omen zuen Leninek. Eta bizitzak irakaspen oso krudelak erakutsi dizkie Sobiet Batasuneko herriei. Herrialde bakar bateko sozialismoaren porrotak burokraziaren sudurraren aurrean egin zuen eztanda eta honen berehalako eginkizuna esplotatzaile kapitalisten klase berri bat bilakatzea izan zen. Inork ezin dezake ahaztu garai modernoan mundu-ekonomia faktore baldintzatzailea dela. “Herrialde bakar bateko sozialismoa” utopia erreakzionario bat bezala geratu da.

Iraganeko Sobiet Batasunaren erorketarekin ikusi ahal izan zen gainbehera ekonomikoa, gerrak eta gatazka etnikoak Moskuko aginte burokratiko totalitarioaren herentzia pozoitua izan ziren. Hala ere, argi geratu da kapitalismoak ezin izan diela etorkizun duinik ez irtenbiderik eskaini SESBeko errepublika zaharrei. Independentzia formalak ez die oinarritzko arazo nazionalik konpondu, eta izatez gatazka nazionalak areagotu egin dira. Kapitalismoaren premia inperialistek edota langile klasea zatitzeko beharrak gorroto nazionalak areagotu dituzte, baina konponbiderik ez dagoela ezin esan daiteke. Izan ere, Sobiet Batasuna izan baitzen halako egoera batek konponbidea izan dezakeela praktikan frogarazi zuena. Iraultza aurreko egoerak bere antzekotasun handiak izan zituen egungo gorroto nazional eta etnikoen zentzuan eta Iraultza giroak sorturiko anaitasuna, errepublika guztien planifikazio ekonomiko bat oinarri sakon zuena, izan zen amorru horiei irtenbidea eman ziena. Boltxebikeen arrakastaren osteko lehen urteetako esperientziak eta politikek irakaspen handiak izaten jarraitzen dute askapen nazionalaren aldeko langile klasearen borrokarentzat. Sobiet Batasunaren menpe elkarbizi izan ziren errepublikentzako konponbide bakarra, berriro ere, sozialismoaren aldeko borroka da.

ESTATU BURGES NAZIONALA GERRA HOTZAREN ONDOREN

Iraultza burgesaren aro klasikoan Europan – gutxi gora behera 1780tik 1871 bitartean – Estatu nazionalen eraketak paper erlatiboki aurrerakoia jokatu zuen, tokian-tokiko partikularismoekin eta feudalismoaren hondakinekin amaituz eta, merkatu nazionalaren sorreraren bitartez, ekoizpen indarren garapenerako oinarriak finkatuz. Baina ordutik hona egoera erabat aldatu da. Ekoizpen indarrek aspaldian gainditu zituzten Estatu burges nazionalaren muga hertsia.

Egun, Estatu burges nazionalak paper aurrerakoi bat jokatzeari utzi dio: ekoizpen indarrak garatu beharrean, berauentzako oztopo izugarria suposatzen dute. Burgesak berak ere honen jakitun dira. Europar Batasunaren eraketarekin Estatu europar nimenioek Estatu Batuetako inperialismoa eta Errusia stalinista boteretsua bezalako bi erraldoirekin ezin zutela lehiatu onartu zuen burgesia europarrak. Baina Europar Batasunaren eraketak ez zuen Estatu nazionala desagertarazi Europan. Alderantziz. Batasun hau hein batean, Gerra Hotzaren testuinguruan, bloke kapitalistaren liderra zen Estatu Batuen agintetik nolabait askatzeko modua izan zen eta Europako estatuak biltzen zituena hontatik askatzeko interesa bazen ere, behin hau lortutakoan argi ikusi zen “europar guztiak batzen zituen helburu haiek” ez zituztela denek elkarbanatzen. Estatu nazional guztien berdintasun idiliko batetik urrun, inperialismo alemaniarra Europaren agintari bilakatu zen Frantzia atzetik zuela. Antagonismo nazionalak bizirik zeuden eta daude, eta zalantzarik gabe areagotu egingo dira. Desberdintasun hauen adibide argi bat ikusteko hor dugu Irakeko Gerrarena, zeina Erresuma Batuak eta Estatu espainiarrak babestua izan baitzen, Alemaniak eta Frantziak gerran parte hartzea babestu ez zuten bitartean.

Gerra Hotzaren amaierarekin neoliberalismoa ideologia bakarra bilakatu zen. Kapitalismoaren apologistek globaliza-

zioa kolore politekin irudikatu zuten (eta irudikatzen dute), kontraesanik gabeko mundu bat, askatasun eta liberalizazio handiago batera alaiki zuzendua. Baina emaitzak argi geratu dira urte gutxira. Mundua ez da globalizatu eurek nahi edo pentsatu zuten moduan. Batetik, hiru bloke inperialista lehiakidetan apurtzeko joera hartu zuen. Estatu Batuen inguruan antolatzen zena, Kanada eta Hego Amerikarekin, batetik. Japonen agindutako Asiako bloke ahulagoa, bestetik. Europar Batasuna, azkenik, Alemania buru, eta Afrikako, Ekialde Hurbileko, Europa Ekialdeko eta Karibeko zati handi bat kontrolatzen zituela. Bloke inperialista lehiakide hauen arteko antagonismoak inoiz baino intentsoagoak bilakatu ziren. Beste edozein une historikotan bloke hauen arteko gerra eragingo zuen, baina Bigarren Mundu Gerraz geroztik, batez ere Estatu Batuen eta Sobiet Batasunaren arteko gatazkak sustaturik, garatutako baliabide suntsigarrien bilakabideak —arma nuklearrak, bakteriologikoak eta kimikoak— badirudi mundu gerra baten aukera alde batera uzten duela, izan ere, halako borroka batean lehiakideak erabat suntsituak izateko arriskua baitago. Baina merkatuengatik borroka gupidagabeak jarraitzen du, gerren biziraupena bermatzen duena munduko eskualde ezberdinetan. Afrika Zentralean eragin esferengatik, merkatuengatik eta meatzaritzak ematen dituen aberastasunengatik burutzen diren borrokak horren adibide dira. Gerra hauek tribalismoaren eta afrikarren basakeriaren emaitza bezala erakutsi ohi dira, baina praktikan, gatazka hauen atzean Estatu Batuen, Frantziaren eta Britainia Handiaren arteko borrokaren eraginak ikus ditzakegu euren txotxongiloak alde batean edo bestean jarritz.

Leninek Inperialismoa, kapitalismoaren fase gorena lanean deskribatzen zuen mundua Gerra Hotzaren ostean antolatu zen eta oraindik ere irauten duen munduaren islada zuzena da. Merkatuengatik borroka sakonak daude, baita merkatu txikienarengatik ere. Mundu hau oso urrun dago globalizazioaren apologistek kontraesanik gabeko mundu berri baten inguruan ematen zuten irudi erakargarritik. Ezkutuan bada ere, potentzia inperialistak hezurtxo ezdeusengatik borrokan ari dira, zakurrak bailiran. Ikusi besterik ez dago Afrikako mapa zer den, inperialismoaren krimenek milioika gizakiren

bizitza eta eboluzioa bortizki nola distortsionatu duten ikusteko. Estatu-mugak lerro zuzenak dira, erregela batekin mapan baten gainean marraztuak. The Economistek bikain azaldu zuen gertatu zena: “Burokrata europarrek 10.000 tribu eta nazio ezberdin dozena bat Estatu ia kolonialetan bildu zituzten”. Egungo Afrika Zentraleko gerrak, hein batean, banaketa geografiko, linguistiko eta tribal naturalak zatikatu zituen munstrozko banaketa baten heredentzia dira. Amaierarik gabeko munstrokeria eguneroko ogia bilakatu izanaren adibide ugari eman daitezke: Kongo, Ruanda, Burundi, Sierra Leona, Sudan, Somalia... The Economistek egoera honela deskribatzen zuen Sierra leonardoko gerra zibilean: “Euren gurasoak hiltzen dituzten haurrak, herrialdeetan zehar dabilen kanibal taldeak, kaosa, basakeria... Sierra Leona Afrikako azken herrialdea da kaos odoltsu batean desagiten. Eta emaitza are eta okerragoa izan daiteke”. Gerra zibil hau amaitu zen, baina amaiera horren emaitza herrialdearen suntsiketa sozioekonomikoa izan zen.

Arazo nazionalaz hitz egiterako orduan adibide “klasikoak” etorri ohi zaizkigu burura, hala nola Palestina, Irlanda, etab., baina auzi hau dela eta Afrikako kontinentean gertaturiko izugarrikeriak konparaezinak dira. Izatez, modu isilago batean bada ere, egunkaria edota web orri bat irekitzea nahikoa da Afrikan “beti” “zerbait” gertatzen ari dela ikusteko. Gatazka hauen jatorria mendealdeko potentzien menperaketa inperialistan topatzen da, baina ez da ahaztu behar XX. mendearen erdirako jada Afrikako zonalderik gehienak “independentzia” eskuratu zutela eta Estatu nazional gisa antolatuta zirela. Beste era batera esanda: independentzia prozesu hauek ez dute konponbiderik ekarri afrikarrentzat, eta kapitalismoaren barnean egiazko independentzia eskuratzeak dituen zailtasunaren frogaz argia bilakatu da Afrika.

Ikuspegi iraultzaile batetik Afrikaren arazoaren konponbiderako (nazionala barne) alternatiba Afrika ekonomia planifikatu batekin antolatzea izango litzateke eta betebeharrak hori langilegoarena eta sektore zapalduena da. Afrikako herrien miseriaren amaiera eta askapena, arazo sozialen eta nazionalen ebazpena, arazo sakonenen konponketarekin dator. Gatazkan dauden tribu edo talde ezberdinen buruzagiek euren jarraitzaileei

euren arazoen jatorria azaltzerakoan tribu baten edo bestea-
ren existentzia edota beste herri batzuek euren lurren jabego-
aren gain eginiko bortxaketa aipatzen dizkiete. Konponbidea,
beraz, beste tribuaren suntsiketa eta Estatu-mugen aldaketa
izan ohi da. Baina baieztapen horiek errealtatetik oso urrun
daude. Tribu horiek interes inperialisten peoi bilakatzen dira
eta lur haiek zein triburenak diren zehaztea formalismo hutsa
da: inperialismoa da Afrikako lurraren aberastasuna xurgatzen
duena. Afrikak ekonomikoki duen potentziala ikusita, nekazal
arloan izan dezakeen hedapenagatik, bere lehengai minera-
lengatik,... erabat alda lezake bertako biztanleen bizitza ustia-
keta hauen irabaziak gizartearen gainera eroriko balira. Eta es-
kasiaren amaierak tribu eta herri ezberdinen elkarrarteko uler-
menerako oinarri esanguratsua finkatuko luke ezbairik gabe.

Autodeterminazio eskubidearen manipulazioan ere, Afrika
izan daiteke adibiderik garbienetakoa, autodeterminazioaren
printzipioak helburu erreakzionarioetarako balio dezakeela
erakutsiz: Estatuak ahultzeko, eskualdeak euren baliabide mi-
neralen arabera zatitzeko eta potentzia inperialistek eta mul-
tinazionalek hobeto menperatzeko bidean. Inperialista estatu-
batuarrek eta frantziarrek borroka titanikoak izan dituzte
Afrikan eta Asian merkatuengatik eta bi Estatu hauek auto-
determinazio eskubidearen defentsa egitearen hipokresia be-
gibistakoa da. Adibide gutxi batzuk emateagatik, Frantziak
bere lurraldeak mantentzen jarraitzen du Amerikan edota Ozea-
no Bareko irletan, besteak beste. Estatu Batuek, berriz, inoiz
gutxitan egin diote kasu gainerako Estatuaren subiranotasun
nazionalari (Latino Amerikako gobernuetan esku hartzeak,
Irak, Afganistan, etab. luzea).

Bigarren Mundu Gerraren ostean iraultza kolonialaren go-
raldi itzela eman zen. Agian historiako herri zapalduen mugi-
mendurik handiena, Txina, Afrika, Ekialde Hurbila, Indone-
sia, India edota Pakistan bezalako lurralde zabalak esnarazi
zituena. Milioika esklabu kolonial euren ugazaben aurka al-
txatu ziren eta euren askapen nazionalaren alde egin zuten
borroka. Marxistek iraultza koloniala babestu zuten, begibis-
takoak diren arrazoiengatik: mugimendu iraultzaile bat zen,
inperialismoaren aurkako kolpe bat, masak altxatzea ahalbi-
detu eta klase borrokak aurrera egitea baimendu zuena. Men-

de erdi bat baino gehiagora, zer konpondu dute herrialde “independiente” hauetako burgesiek? Independentzia formala lortu zuten, baina kapitalismoan ez da independentzia. Herrialde kolonial ohiak mundu-inperialismoaren zalgurdiari loturik daude mundu-merkatuaren mekanismoen bitartez. Errealitatean, egun esklabizatuago daude garai kolonialean baino. Desberdintasuna zera da, aginte burokratiko eta militar zuzen bat beharrean, zeharkako aginte bat dutela euren gain, merkataritzaren eta zorraren bidez antolatzen dena. Konponbide bakarra iraultza sozialistaren bidetik etorriko da.

LENIN, IRAULTZA SOZIALISTA ETA NAZIOEN AUTODETERMINAZIORAKO ESKUBIDEA I

Askotan uste denaren aurka, nazio arazoa ez da bereziki nazio zapalduko langileei eragiten dien fenomeno bat. Nazio zapaltzaileko langileei ere eragiten dien fenomeno bat da, noski, aurreko artikuluetan behin eta berriro azaldu dugun bezala; baina izatez, ez dago nazio zapalketako egoera baten presentziaren beharrik langile batek arazo honen sufrimenduak pairatzeko. Esan nahi dena da, nazio aske bat hartzen badugu, inork zapaltzen ez duena eta inor zapaltzen ez duena, horrek bost axola du, eliteen diskurtso nazionalista langile klasearen konkistak erasotzeko erabiliko baita.

Krisiaren aurrean elite hauek herriari, euren ustezko anaiei, zera esango diete: Gerrikoa estutu behar dugu nazioaren onerako! Soldatak izoztu behar dira interes kolektiboaren mesedetan! Denok batera jokatu behar dugu egoera latz honen aurrean! Estatu Batuetako nazionalismoaren adibidea paradigmatikoa da. Ezin esan liteke Estatu Batuek beste naziorik zapaltzen ez dutenik, baina modu agerikoan, okupazioz edota beste herrialde bati euren kultura inposatuz egiten ez dutenez (salbuespenak albuespen, hor dugu Guantanamoren kasua), euren agintea eta kultura bide ekonomikoen bitartez egiten dutenez, ezin esan liteke Estatu Batuek “etsai nazional” jakin bat dutenik, palestinarrek Israelgo estatua bezala, irlandarrek Britainiar boterea duten bezala edota euskal herritarrek Estatu espainiarra eta frantsesa dituzten bezala. Estatu Batuetako diskurtso nazionalista mesianikoaren bitartez, askotan langile klasearen kontzientzia deuseztatzeko trikimailuak erabiltzen dira, klase interesen ordeztu, nazio interesak defendatzen dira: hobe nazioarte mailako Estatu Batu indartsu eta hegemoniko bat, barne arazo sozialak konpontzea baino, nazioak sakrifizioak eskatzen baitizkio herriari.

Baina Maiatzaren 1ean aurkitzen gara, akaso munduko ospakizun eta aldi berean borrokarik internazionalenean, Eguberriak edota Aste Santua izan daitezkeena baino gehiago. Maiatzaren 1a borroka klasista baten isla argia da, mundu mailako borroka klasistarena, internazionalismoaren adibiderik puruena. Munduaren luze zabalean langileak kalera irteten dira euren aldarrikapen eta eskakizunekin, egun jakin batean, une berean. Batez ere Bigarren Internazionalak bere garaian sustaturiko mobilizazioa izan zen eta lan itzela egin zuten nazioarte mailan koordinaturiko halako mugimendu bat egiteko, pentsa honek langilieriarentzat izan dezakeen garrantzia politikoa eta estrategikoa! Halako antolaketa gaitasunarekin mundu mailako burgesiak beldurturik beharko luke! Tamalez, masa erakundeetako burokrazietan emaniko degenerazio prozesuek halako mobilizazio baten ikuspegi iraultzaile guztia murrizten dute, baina langilieriaren nazioarteko antolaketa posible dela erakusten digute, eta are gehiago, gaur egun, telefonoa edota Internet bezalako erremintekin, Bigarren Internazionalak antolatutako lehen mobilizazio haiek, XIX. mendearen, baldintza okerragoetan egin baitziren. Klase mobilizazio baten aurrean gaude, mundu osoan aurkitzen den klase baten mobilizazioa da. Tailandiarra izan, groenlandiarra izan, kongoarra izan, estoniarra izan edota euskal herritarra izan, ezaugarri kulturalen berezitasuna alde batera utzita, klase izaera hori da gu guztiok batzen gaituena muga guztien gainetik. Klase agintarien diskurtso nazionalistak ezin gaitu eurekin lotzera eramanez. Nazioaz edo interes kolektiboaz ari direnean, euren jabegoaz eta euren interesaz hitz egiten digute. Guk ez dugu horren iraupena luzatzeko inolako interesik. Gure interesak nazioarteko proletalgoarekin lotuta daude, gehiago baita haiekin lotzen gaituena gure burgesiarekin baino. Hemendik dator nazio arazoari marxismoak eman dion garrantzia, azken finean klase independentzia aldarrikatzeko nazio arazoaren ulermena ezin bestekoa baita.

INPERIALISMOA, SOZIALISMOA ETA NAZIO ZAPALDUEN ASKAPENA

Marxek edo Engelsek ez zioten lan jakin bat eskaini nazio arazoari, ekonomia politikoan edota filosofian gehiago sakondu

zutelako, baina arazo honen inguruko euren azalpenak euren artikululu eta liburu zatietan aurki ditzakegu. Honen aurrean eta bere herrialdean nazio arazoak zuen berebiziko garrantzia ikusirik, Lenin izan zen gai honetan gehien sakondu zuen autoren marxistetako bat. Bereak ditugu inperialismoaren analisi edota nazioen autodeterminazio eskubidearen inguruko lan mardulak. XX. mendearen hastapenetan eginak izan baziren ere, askotan zirraraz sortzen du lerro hauek irakurtzean topatzen den egunerokotasunak. Marxismoa nazio zapaltzaileen defendatzaile edota nazio zapalduen aurkako bezala azaldu duenik izan da eta baita kritika hauek irakurrita hori sinistu dutenak ere. Gezur horiek salatzeke modurik hoberena iturri-
ra jotzea da, Lenin zuzen-zuzenean irakurtzea, hark zer esan zuen jakiteko, bestela behin mito kaltegarri bat sorturik ipuin bat izan ohi da kritikariek errepikatu ohi dutena eta ez haiek errealitatean esana. Gu ere akats berean ez erortzeko Lenin bera zuzenean itzultzea iruditzen zaigu horri aurre egiteko modurik hoberena eta eszeptiko orok edozein baliabideetan, liburu, Internet edota halakoetan, ikus dezake testu horien existentzia.

Hala zion Leninek Iraultza sozialista eta nazioen autodeterminaziorako eskubidea artikuluan: "Inperialismoa kapitalismoaren garapen fase gorenarekin da. Herrialde aurreratuetan, kapitalak Estatu nazionalen esparrua gainditu zuen eta monopolioa ezarri zuen konpetentziaren lekuan, sozialismoa gauzatzeke premisa objektibo guztiak sortuz. Horrexegatik, mendebaldeko Europan eta Estatu Batuetan gobernu kapitalistak eraisteko eta burgesia desjabetzeko proletalgoaren borroka iraultzailea planteatzen da eguneko ordenan. Inperialismoak borroka honetara bultzatzen ditu masak, klase kontraesanak maila izugarrian areagotzean, bai zentzu ekonomikoan —trustak, biziaren garestitzea— bai politikoan: militarismoaren gorakada, gerren maiztasun handiagoa, erreakzioaren gordintzea, zapalkuntza nazionalaren zabalpena eta harrapakaria kolonialista. Sozialismo garaileak nahitaez demokrazia totala burutu behar du; ondorioz, ez du nazioen arteko eskubideen erabateko berdintasuna praktikan jarri bakarrik egin behar, nazio zapalduen autodeterminaziorako eskubidea ere burutu behar du, hau da, banantze politiko askeko eskubidea. Eu-

ren ekinbide osoan zehar, orain, iraultzan zehar, eta baita garaienaren ostean ere, nazio menderatuak askatzeko gai direla eta batasun askea oinarri hartuz —eta batasun askea, bantzeko askatasunik gabe, esaldi gezurtia da— hauekin erlazioak eraikitzeke gai direla frogatzen ez duten alderdi sozialistek traizioa egingo liokete sozialismoari.”

“Zalantzarik gabe, demokrazia ere Estatu forma bat da, Estatu desagertzen denean desagertu beharko dena, baina hori jada erabat garailea eta kontsolidatua den sozialismotik komunismo integralera burutuko den trantsizioa ematen denean gertatuko da.”

IRAULTZA SOZIALISTA ETA NAZIOEN AUTODETERMINAZIORAKO ESKUBIDEA II

Marxismoari egin zaizkion kritikei, behin eta berriro errepikatu diren gezurrei eta etengabeko birkontakteten harira “egia” bilakatu diren gezur horiei aurre egiteko modurik hoberena autore marxisten iturri zuzenetara jotzea zela aipatzen genuen aurreko artikuluko batean eta marxismoaren ikuspuntu nazionala tergibertsazio handienetakoa jasan duen auzia dela ikusirik Leninek gai honen inguruan idatziriko artikuluko interesgarri eta argigarri baten itzulpenari ekin genion. Asmoa irakurlea Leninek idatziriko testu batera hurbiltzea da, eta ez Leninek zer esan zuenaren inguruko testu bat erredaktatzea.

Era honetan, irakurleak, testua bera bere begien aurrean badu, bere ondorio propioak atera ahalko ditu Leninek esandakoaren gainean, tesi leninisten azalpenekin zerikusirik ez duten Leninen testuingururik gabeko testu zatiz eginiko artikuluko manipulatu baten “susmoa” erabat saihesteko. Era berean, aurrekoan aipatzen genuen bezala, eszeptiko orok izango du itzulpena beste hizkuntza batzuetako itzulpenekin edota Leninen errusierazkoarekin berarekin erkatzeko aukera, kontu garbia izan dadin.

Honela dio Leninek “Iraultza sozialista eta demokraziaren aldeko borroka” azpiatalean: “Iraultza sozialista ez da ekintza bakar bat, ezta gudalerro isolatu bateko bataila bat ere, klase gatazka sakonen aldi oso bat baizik, fronte guztietako bataila zerrenda luze bat, hau da, ekonomiaren eta politikaren arazo guztietako bataila multzo bat baizik, burgesiaren desjabetzearekin bakarrik amai daitekeena. Akats larria litzateke demokraziaren aldeko borroka proletalgoa iraultza sozialistaren aldeko borrokatik distraitu dezakeela, edota alde batera, gero-rako, utz dezakeela pentsatzea. Alderantziz, erabateko demokrazia burutuko ez lukeen sozialismo arrakastatsu bat ezinez-

koa den bezala, ezin presta daiteke burgesiaren gaineko garai-
pen baterako borroka iraultzaile orokor eta demokraziarekiko
kontsekuente bat burutuko ez lukeen proletalgo bat. “Larritik
ez luke gutxiago izango programa demokratikoaren puntueta-
ko bat, esate baterako, nazioen autodeterminaziorako eskubi-
dearena, ezabatzeak, hau inperialismoan “ezin daitekeela
burutu” edota “ametsezkoa” dela argudiatzean oinarrituz. Na-
zioen autodeterminaziorako eskubidea kapitalismoaren mugen
barrian burutu ezina denaren baieztapena zentzu absolutu
batean, ekonomikoan, interpretatu daiteke, edota baldintzaz-
ko zentzu batean, politikoan.

“Lehen kasuan, baieztapen hau erradikalki okerra da ikus-
puntu teoriko batetik. Lehenik, zentzu honetan burutu ezin
daitezkeenak, kapitalismoan, moneta-lana edota krisien eza-
baketa, etab. dira. Baina zentzu guztietan okerreko baieztapena
da nazioen autodeterminazioa burutu ezina dela. Bigarrenik,
1905ean Norvegia Suediatik bereizi izanaren adibidea bakar
bakarrik nahikoa litzateke zentzu honetako “burutuezintasun-
naren” baieztapenari erantzuteko. Hirugarrenik, irrigarria li-
tzateke Alemaniaren eta Ingalaterraren arteko erlazioek, poli-
tikoek eta estrategikoek, esate baterako, aldaketa txiki bat ja-
sango balute, gaur edo bihar Estatu poloniar berri baten,
edota hinduar baten, etab. sorrera erabat “burutugarria” izan
litekeela ukatzea. Laugarrenik, kapital finantzarioak, bere he-
datze joeran, “era askean” eros eta sobornatu dezake gobernu
demokratiko eta errepublikarrik askeena, eta edozein herrial-
deetako funtzionario hautatuak, herrialde hau “independien-
tea” balitz ere. Kapital finantzarioaren agintea, orokorrean
kapitalarena bezala, ezin ezaba daiteke demokrazia politikoar-
en esferako edozein eraldaketarekin, eta autodeterminazioa
esfera honetan kokatzen da erabat eta eskusiboki. Baina kapi-
tal finantzarioaren aginteak ez du suntsitzen inola ere demo-
krazia politikoak zapalketa klasistaren eta klase borrokaren
formarik askeen, zabalenen eta argien bezala duen esangura.
Beraz, kapitalismopeko demokrazia politikoaren erreibindika-
zioetako baten “burutze ezintasunaren” inguruko argudiatze
oro, zentzu ekonomikoan, kapitalismoaren eta demokrazi apo-
litikoaren arteko erlazio orokorren eta oinarritzkoen definizio
teorikoki zehaztugabe bat besterik ez da.

“Bigarren kasuan, baieztapen hori ez da osoa eta zehaztugabea da. Izan ere ez nazioen autodeterminazio eskubidea bakarrik, baizik eta demokrazia politikoaren oinarritzko erreibindikazio guztiak “burutugarriak” dira inperialismopean, baina modu ez osatu, deformatu eta salbuespenezko batean (adibidez, Norvegia Suediatik bereizi zenean 1905ean). Kolonien berehalako askapenaren eskakizuna ere, sozialdemokrata iraultzaile guztiek formulatzen dutena, “burutuezina” da kapitalismopean iraultza multzo bat gabe. Baina hemendik ondorioztatzen dena ez da inondik ere sozialdemokraziak erreibindikazio hauen guztien aldeko berehalako borroka ausartari uko egin behar dionik —ukazio hori soilik burgesiarentzat eta erreakzioarentzat izango litzateke abantailazkoa—, baizik eta justu kontrakoa, eskaera hauek formulatzea eta praktikan jartzea baizik, ez modu erreformistan, baizik eta iraultzailean; legalitate burgesaren mugek estutzen utzi gabe, baizik eta hauek hautsiz; interbentzio parlamentarioekin eta hitzezko protestekin asegeratu gabe, masak borroka aktibora erakarrit, oinarritzko eskaera demokratikoen aldeko borroka zabalduz eta sustatuz, burgesiaren aurkako proletalgoaren eraso zuzenera arte, hau da, burgesia desjabetuko duen iraultza sozialistara arte. Iraultza sozialistak eztanda egin dezake ez greba handi baten, edota kaleko manifestaldi baten, edo gosetuen mutin baten, altxamendu militar baten, edota matxinada kolonial baten ondorioz bakarrik, baita edozein krisi politikogatik ere, adibidez Dreyfus auziarekin, Saverneko gorabeheran, etab. gertatu zen bezala, edota nazio zapaldu baten bereizketarako erreferendum baten inguruko gertakariengatik, etab.

“Inperialismopean, zapalketa nazionalaren gordintzeak sozialdemokraziari exijitzen diona zera da, ez nazioen bereizketarako askatasunaren aldeko borrokari uko egitea —burgesiaren hitzetan “utopikoa” dena—, baizik eta alor honetan sortzen diren gatazkak geroz eta modu sakonago batean masen ekintzarako eta burgesiaren aurkako ekintza iraultzaileetarako arrazoi bezala erabiltzea”.

Artikuluari jarraituz, honakoa gehitzen du Leninek “Autodeterminazio eskubidearen esanahia eta federazioarekin duen erlazioa” azpiatalean: “Nazioen autodeterminaziorako eskubideak esklusiboki zentzu politiko bateko independentziarako

bere eskubidea esan nahi du, zapaltzen duen naziotik politikoki bereizteko eskubidea. Termino konkretuetan, demokrazia politikoaren errebindikazio honek bereizketaren aldeko propagandarako askatasun osoa esan nahi du eta arazo horren konponketa erreferendum baten bitartez bereizten den nazioan. Beraz errebindikazio hau ez da inola ere bereizketaren, fragmentazioaren edota Estatu txikien formakuntzaren parekidea. Zapalketa nazionalaren aurkako borroka kontsekuente baten adierazpena bakarrik esan nahi du. Zenbat eta gertuago Estatu baten erregimen demokratikoa bereizketarako erabateko askatasunetik, orduan eta ezohikoagoak eta ahulagoak izango dira praktikan bereizketarako joerak, Estatu handien abantailak zalantzaezinak baitira, bai aurrerapen ekonomikoaren ikuspuntutik bai masen interesen ikuspegitik, eta gainera abantaila hauek handitu egiten dira etengabe kapitalismoa hazten den neurrian. Autodeterminazioaren onarpena ez da federazioa printzipio bezala hartzearen onarpena. Posible da printzipio horren etsairik ausartena eta zentralismo demokratikoaren aldekoa izatea, baina federazioa nahiago izatea desberdintasun nazionalak baino, erabateko zentralismo demokratiko baterako bide bakar bezala. Hain zuzen ere ikuspuntu honetatik, Marxek, zentralista izanik, nahiago zuen Irlandaren eta Ingalaterraren arteko federazioa, ingelesek Irlanda indarrez menperatu edukitzea baino.

“Sozialismoaren helburua ez da gizateriaren Estatu txikitako frakzionamendua eta nazioen isolamendu oro ezabatzea bakarrik, ez da nazioen elkarrenganako hurbilketa bakarrik, baita hauen fusioa ere. Eta helburu hau lortzeko, alde batetik, masei Rennerren eta O. Bauerren “autonomia kultural nazionala” deituriko ideia-erreakzionarioa azaldu behar diegu, eta bestetik, nazio zapalduen askapena exijitu, ez esaldi orokor zirriborratuekin, ez edukirik gabeko deklamazioekin, ez arazoa sozialismora arte “alde batera utziz”, baizik eta argitasunez eta zehaztasunez formulatutako programa politiko batekin, nazio zapalduetako sozialisten hipokresia eta koldarkeria bereziki kontutan hartuz. Gizateria klaseen ezabapenera klase zapalduaren diktaduraren bitarteko trantsizioaren bidez soilik iritsi daitekeen bezala, bakarrik iritsi daiteke nazioen ezinbesteko fusiora, nazio zapalduen erabateko askape-

nezko garaiaren, hau da, euren bereizketarako erabateko askatasun garaiaren trantsizioaren bitartez”.

Laburbilduz beraz, itzulpen zati honetan jada Leninen tesi zatietan klabeak izango diren eta gerora begira ere behin eta berriro agertuko diren puntuak topatuko ditugu: askapen borroka langileriaren borrokarekin lotu beharra, kapitalismoan nazio zapalduak independentzia lortzea posible den neurrian “independentzia” hauek testuinguru inperialista batean duten ahultasuna, eta hertsikeria nazionalen desagerpena komunismoaren azken helburu bezala, internazionalismoaren ideiaaren defentsa kontsekuente bat eginez.

LENIN, IRAULTZA SOZIALISTA ETA NAZIOEN AUTODETERMINAZIORAKO ESKUBIDEA III

Arazo nazionalaren inguruko posizio marxista azaltzeko helburuz iturri zuzenetara jotzea erabaki genuen eta Leninen Iraultza sozialista eta nazioen autodeterminaziorako eskubidea artikulua itzultzeari ekin genion aurreko bi aleetan. Honako honetan, Leninek proletalgoak autodeterminazioaren auziaren inguruan duen ikuspegi iraultzaileaz eta marxismoak eta anarkismoaren adar batek, proudhonismoak, gaiaren inguruan dituzten iritzi ezberdinez hitz egiten digun bi azpiatal dakartzagu hona.

Proletalgoak nazioen autodeterminazio auziaren aurrean duen ikuspegi iraultzailea izendaturiko azpiatala da artikuluko bosgarrena. Honela jarraitzen du Leninek:

“Ez nazioen autodeterminazioaren errebindikazioa bakarrik, gure programa minimo demokratikoaren puntu guztiak ere lehenagotik planteatuak izan ziren jada XVII.en eta XVIII. mendeetan, burgesia txikiaren eskutik. Eta orain arte, burgesia txikiak haiek guztiak planteatzen jarraitzen du, forma utopikoan, klase borrokaz konturatu gabe, borroka hau demokraziaren pean suspertu egiten dela ikusi gabe, eta kapitalismo “baketsuan” sinestuz. Hain zuzen ere halakoa da eskubideetan berdinduriko nazioen batasun baketsu baten utopia imperialismoaren pean, herria engainatzen duen utopia eta kautskianoek defendatzen dutena. Utopia burges txiki, oportunistak, honen aurka, sozialdemokraziaren programak nazioak zapaltzaileetan eta zapalduetan bereiztea postulatu behar du, imperialismopeko errealitate oinarritzko, funtsezko eta halabeharrezko bezala.

“Nazio zapaltzaileetako proletalgoa ezin da esaldi orokor eta estereotipatuak ahoskatzera mugatu, anexioen aurka eta nazioen eskubideen berdintasunaren alde eginez orokorrean,

edozein burges bakezalek errepikatzen dituen esaldiak. Proletalgoak ezin du zapalkuntza nazionalean oinarritutako Estatu baten mugez inguruko arazoa, burgesia inperialistarentzat bereziki “desatsegina” dena, isildu. Nazio zapalduak Estatu jakin baten mugez barnean indarrez mantentzearen aurka borroka egitea ezin du alde batera utzi proletalgoak, eta horixe da hain zuzen autodeterminazio eskubidearen alde borroka egitea. “Euren” nazioak zapaltzen dituen kolonien eta nazioen bereizketa politikorako askatasuna exijitu behar du. Kontrako kasuan, proletalgoaren internazionalismoa hutsa eta hitzezkoa bakarrik izango litzateke; ez konfiantzarik, ez klase elkartasunik ez litzateke posible izango nazio zapalduko eta nazio zapaltzaileko langileen artean; autodeterminazioaren defendatzaile erformisten eta kautskianoen hipokresia mozorroa kendu gabe geratuko litzateke, ez baitute ezer esaten “euren” nazio propioak zapaltzen dituen eta “euren” Estatu propioaren barnean indarrez mantentzen diren nazioei buruz.

“Beste aldetik, nazio zapalduetako sozialistek nazio zapalduko eta nazio zapaltzaileko langileen arteko erabateko eta baldintzarik gabeko batasuna, antolaketa batasuna barne, defendatu eta praktikan jarri behar dute ahalegin horretan bereziki ekinez. Hau egin gabe ezinezkoa da proletalgoaren politika independentea eta gainerako herrialdeetako langileriarekiko klaseko elkartasuna defendatzea, burgesiaren amarru, traizio eta iruzur guztiak ikusita. Izan ere, nazio zapalduetako burgesiak askapen nazionalaren kontsignak langileentzako iruzur bilakatzten ditu beti: barne politikan kontsigna hauek nazio menperatzaileko burgesiarekin akordio erreakzionarioak egiteko erabiltzen ditu (adibidez, Austriako eta Errusiako poloniarrek, erreazioarekin tratuak egiten dituztenean juduak eta ukrainiarrak zapaltzeko); kanpo politikan potentzia inperialista etsai batekin negoziaketak egiten saiatzen da, bere harrapakeria helburuetarako (Balkanetako herrialde txikien politika, etab.).

“Potentzia inperialista baten aurkako askapen nazionalako borroka baten testuingurua, baldintza jakin batzuetan, beste potentzia “handi” batek bere helburuen mesedetarako, helburu hauek inperialistak izanik ere, aprobetxatu ahal izateak, ezin du sozialdemokrazia nazioen autodeterminaziorako eskubidearen onarpena ukatzera behartu, burgesiak iruzur politi-

koaren eta harrapakeria finantzieroaren helburuz kontsigna errepublikarrak erabiltzen dituenean, herrialde erromanikoe-tan egiten duen bezala, sozialdemokratak euren errepublika-nismoari uko egitera behartu ezin ditzakeen bezala.”

“Ez da beharrezkoa esatea autodeterminazio eskubidetik, dirudienez, “aberriaren defentsa” eratortzen dela argudiatuz honi uko egin behar zaiola defendatzea erabat irragarria litza-tekeela. Arrazoiketa berarekin —hau da, seriotasun falta ber-berarekin— 1914-1916 artean sozialchauvinistek demokrazia-ren edozein errebindikaziotara jotzen dute (adibidez, honen errepublikanismoa) edota zapalketa nazionalaren aurkako borrokaren edozein formulatara, “aberriaren defentsa” justifi-katzeko. Marxismoak gerretan aberriaren defentsa onartzea, adibidez, Europako Iraultza Frantses Handiarenean, edota Garibaldiren gerretan, eta era berean 1914-1916ko gerra inpe-rialistan aberriaren defentsaren ukapena ere deduzitzen due-nean, hau gerra bakoitzaren partikularitate historiko konkre-tuen analisisan oinarritzen da, eta ez inondik ere “printzipio orokor” batean, edota programaren edozelako puntutan.”

“MARXISMOA ETA PROUDHONISMOA ARAZO NAZIONALEAN”

Azpiatal honetan anarkismoaren adar honekiko konparaketara garamatza Leninek, eta honela dio: “Demokrata burges txikiek ez bezala, Marxek, errebindikazio demokratiko guztietan, sal-buespenik gabe, ez zuen izate absolutu bat ikusten, burgesiak feudalismoaren aurkako borrokan zuzenduriko masa herri-koien borrokaren adierazpen historiko bat baizik. Ez dago hauetako errebindikazio bakar bat ere burgesiari langileak en-gainatzeko instrumentu bezala balio ezin diezaiokkeenik edota testuinguru jakin batzuetan balio izan ez dionik. Zentzu hone-tan demokrazia politikoaren errebindikazioetariko bat nabarmen-tzea, hau da, nazioen autodeterminazioari azpimarra egitea, besteei kontrajartzeko, erradikalki okerra da ikuspuntu teoriko batetik. Praktikan, proletalgoak bere independentzia errebindi-kazio demokratiko guztien aldeko bere borroka, errepublikare-na alde batera utzi gabe, burgesia eraisteko bere borroka iraul-tzailearen menpe ipiniz bakarrik kontserba dezake.

“Bestalde, proudhonianoek kontrajarririk, zeintzuek arazo nazionala “iraultza sozialaren izenean” “ukatzen” zuten, Marxek, batez ere herrialde aurreratuetako proletalgoaren klase borrokaren interesak ikusiz, lehen lekuan internazionalismoaren eta sozialismoaren oinarritzko printzipioa nabarmentzen zituen: ezin daiteke askea izan beste herri bat zapaltzen duen herria. Hain justu langile alemaniarren mugimendu iraultzailearen interesen ikuspuntutik, Marxek, 1848an, Alemaniako demokrazia garaileak alemaniarrek zapalduriko herrien askatasuna aldarrikatu eta burutu zezala exijitzen zuen. Hain justu langile ingelesak borroka iraultzailearen ikuspuntutik, Marxek, 1869an, Irlanda Ingalaterratik bereiztea exijitzen zuen, zera gehituz: “bereizketaren ostean federaziora iritsiko balitzateke ere”. Errebindikazio hau formulatuz bakarrik hezten zituen Marxek benetan langile ingelesak izpiritu internazionalista batean. Honelaxe bakarrik, arazo historiko horren konponbide iraultzaile batekin, egin ahal izan zien aurre oportunistei eta erreformismo burgesari, orain arte, mende erdi bat igaro ondoren, oraindik ere “erreforma” irlandarra burutu ez duten horiei. Honelaxe bakarrik lortu zuen Marxek —kapitalaren apologistek kontrajarririk, zeintzuek nazio txikiak bereizketarako askatasunaren izaera utopikoa eta burutuezina oihukatzen duten kontzentrazioaren izaera aurrera, ez ekonomikoa bakarrik, baita politikoa ere, defendatuz— modu ez inperialista batean buruturiko kontzentrazioaren izaera aurrera defendatzea, eta nazioen elkarrenganako hurbilketa defendatzea, ez indarrezko oinarri batekin, baizik eta herrialde guztietako proletarioen batasun librearen oinarriarekin. Honelaxe bakarrik lortu zuen Marxek nazioen eskubide berdintasunaren eta autodeterminazioaren onarpen erretoriko eta askotan hipokritari masen ekinbide iraultzailea kontrajartzea arazo nazionalen konponbiderako ere. 1914-1916ko gerra inperialistak eta hipokresia oportunistaren eta kautskianoaren Augiasen ukuiluek, gerra honek agerian utzi zituenak, Marxen politikaren begi-bistako zuzentasuna baieztatu zuten, herrialde aurreratu guztientzat eredu bilakatu behar duena, gaur egun haietako bakoitzak beste nazio batzuk zapaltzen baitituzte.

“Argudiatzen da —esate baterako duela gutxi Lensch chauvinista alemaniarrek, Die Glockeren 8. eta 9. aleetan— herri

batzuen mugimendu nazionalekiko Marxen jarrera negatiborak, esate baterako, txekiarren ingurukoak 1848an, ikuspuntu marxista batetik nazioen autodeterminazioa onartzeko beharra ukatzen duela. Baina hau ez da zuzena, 1848an arrazoi historiko eta politikoak egon baitziren nazio “erreakzionarioen” eta demokratiko iraultzaileen arteko bereizketa bat finkatzeko. Marx zuzen zebilen lehenak kondenatzean eta bigarreni babesa ematean. Autodeterminazio eskubidea demokraziaren errebindikazioetako bat da, eta logikoki demokraziaren interes orokorren menpe ipini behar dena. 1848an, eta ondorengo urteetan, interes orokor horiek, lehen lekuan, tsarismoaren aurkako borrokan aurkitzen ziren.”

Hainbat ikasgai erator daitezke testu honetatik beraz. Lehen lekuan Leninek argi uzten ditu burgesia txikiak (chauvinistek, oportunistek, kautskianoek, proudhonistek...) eta proletalgoak arazo nazionalaren aurrean dituzten desberdintasunak eta euren estrategia politikoetan izan behar dituztenak. Bestetik berriz arazo nazionala ez zaigu printzipio edota dogma betiereko bezala agertzen. Alderantziz, arazo nazionalaren printzipioa unean uneko klase borrokaren baldintzek, baldintza politiko eta historikoek, determinatzen dute, estrategia iraultzailearen malgutasuna erakutsiz. Argi geratzen da, aldi berean, marxismoak nazio handiak nahiago dituenaren ideia eraginez nazio zapalketari jaramonik egiten ez dionaren salaketak ez duela inongo funtsik eta proletalgoak bere borroka-ren baitan hartutako eginbehar demokratikoetako beste bat dela, etengabeko iraultzaren teoria azpimarratuz. Marxen hitzak geure eginez, ezin daiteke askea izan beste herri bat zapaltzen duen herria, eta askapen nazionala borroka klabea da proletalgoaren programan, burgesiaren eta burgesia txikiaren engainu eta utopien aurrean klase independentzia erakutsiz.

LENIN, IRAULTZA SOZIALISTA ETA NAZIOEN AUTODETERMINAZIORAKO ESKUBIDEA IV

Ez da gaizki etorriko, beste behin bada ere, artikulua zerrenda hau argitaratzearen arrazoia zein den oroitzea. Teoria marxistan serioki murgildu nahi duen orok ezin du Leninen inguruan esan direnietara mugatu, Biblia ezagutu nahi duen oro Aita Santuaren eta elizgizonen hitzetara mugatu ezin daitekeen bezala. Leninen hitzak aurrez aurre jartzea da konponbide bakarra, beronen ahotan besteren hitzak jarri edota bere esaldiak testuingurutik kanpo eta itxuraldaturik agertuko dituen testuak irakurtzea baino. Horren harira, Lenin lehen mailako iturri izan dadin marxismoak arazo nazionalaren inguruan dioena ezagutzeko bidean, onako itzulpena aurkeztzen dugu, eginkizun honetan gure ekarpen txoa egiteko.

Lehen Mundu Gerraren testuinguru bete-betean, 1916an, Leninek idatzi zuen artikulua honetan ikusiko dugun gisan iraultza sozialistarako “5, 10 edo urte gehiago” itxaron behar-ko liratekeela ere aipatzen zuen une batean, hurrengo urteko 1917ko iraultzaren atarian. Bertan garaiko nazio arazoaren azalpena egiten digu, bai zapalketa praktikoaz eta zapalketa honek herrialdeen arabera hartzen duen moduz, eta bai zapalketa praktiko honek eragindako teoriaren inguruan eta langile mugimenduaren barnean sortzen diren iritzi kontra-jarriez. “Hiru herrialde mota, nazioen autodeterminazioari dagokionean” azpiztituluarekin eta honako esaldiarekin hasten da atala: “Gai honetan beharrezkoa da hiru herrialde mota nagusi bereiztea:

“Lehenik eta behin, Mendebaldeko Europako herrialde kapitalista aurreratutako eta Estatu Batuak. Mugimengu nazional burges-aurrerakoiak aspaldi amaitu ziren bertan. Nazio “handi” hauetako bakoitzak beste batzuk zapaltzen ditu kolonietan edota herrialdearen barnean. Nazio menperatzaileko

proletalgoak dituen eginkizunak Ingalaterrako proletalgoak XIX. mendean Irlandarekiko izan zituen berberak dira.

“1914-1916ko gerratik aparte gelditu ziren herrialde txiki batzuetan, adibidez Herberehetan eta Suitzan, burgesiak tin-ko zapaltzen du “nazioen autodeterminazioaren” leloa gerra inperialistan parte hartzea justifikatzeko. Hauxe da herrialde hauetako sozialdemokratak autodeterminazio eskubideari uko egitera bultzatu dituen arrazoiatariko bat. Argudio okerrak erabiliz, politika proletario egoki bat defendatzen da, hau da: gerra inperialistaren baitan “aberriaren defentsari” uko egitea. Honela tergibertsazio bat ematen da marxismoaren teorian, eta praktikan, hertsikeria nazionalista zeken antzerako bat, “potentzia handiek” menperaturiko nazioetako ehunka milioi biztanleren ahaztura bat. Gorter kamaradak, bere *Inperialismoa, gerra eta sozialdemokrazia* foileto bikainean, nazioen autodeterminazioaren printzipioari uko egiten dio modu oker batean, baina printzipio hau zuzentasunez aplikatzen du India herbeheretarren berehalako “independentzia politiko eta nazionala” exijitzen duenean eta oportunistak herbeheretarrei mozorroa kentzen dienean, hauek errefusatu egiten baitute aldarrikapen hau aurkeztu eta bere alde borrokatzea.”

Berriro ere sailkapenarekin jarraituz “Bigarrenik, Europa ekialdea: Austria, Balkanak eta, bereziki, Errusia. Hauetan, XX. mendeak bilakaera berezi bat eman zien mugimendu nazional demokratiko-burgesei, eta borroka nazionala sakondu zuen. Herrialde hauetako proletalgoaren eginkizunak, bai eraldaketa demokratiko-burgesa bere amaierara eramateari dagokionean, bai beste herrialdeetako iraultza sozialistari laguntzeari dagokionean, ezin dira bete nazioen autodeterminaziorako eskubidea defendatu gabe. Hemen bereziki zaila eta garrantzitsua da nazio zapaltzaileetako eta zapalduetako langileen klaseko borroka fusionatzeko eginkizuna.

“Hirugarrenik, herrialde erdikolonialak, Txina, Pertsia, Turkia eta kolonia guztiak; denera, 1.000 milioi biztanle inguru. Hauetan mugimendu demokratiko-burgesak, hein batean, ia euren hastapenetan topatzen dira eta beste hein batean oso urrun daude oraindik ere amaitzeko. Sozialistek exijitu behar dute, ez bakarrik kolonientzako baldintza gabeko eta berehalako askapena kalteordainik gabe —eta eskakizun horrek,

bere adiera politikoan, ez du autodeterminazio eskubidea onartzea besterik esan nahi—; sozialistek herrialde horietako askapen nazionalaren aldeko mugimendu demokratiko-burgesetako elementurik iraultzaileenei babesa eman behar diete modurik ausartenean eta euren matxinadari lagundu behar die —eta kasua ematen bada, baita euren gerra iraultzaileari ere— zapaltzen dituzten potentzia inperialisten aurka.”

“Sozialchauvinismoa eta nazioen autodeterminazioa” izena du hurrengo azpiatalak, hain zuzen Bigarren Internazionalaren baitan (ez da ahaztu behar Leninek, Rosa Luxemburgok, etab. artean bertan jarraitzen zutela eta Errusiako Iraultza ostera arte ez zutela Hirugarren Internazionala sortu) sortzen diren eztabaiden berri ematen duena, eta honela dio: “Aro inperialistak eta 1914-1916ko gerrak herrialde aurreratuenetan chauvinismoaren eta nazionalismoaren aurka borroka egiteko eginkizunak garrantzia berezia hartzea eragin zuten. Autodeterminazioaren arazoan bi matiz bereizten dira sozialchauvinisten artean, oportunistak eta kautskianoak, gerra inperialista erreakzionarioa edertzen dutenak, honi “aberriaren defentsaren” kontzeptua aplikatuz.

“Batetik, burgesiaren zerbitzari aski aitortuak ikusten ditugu, anxioak defendatzen dituztenak inperialismoa eta kontzentrazio politikoa aurrerakoiak direla argudiatuz, eta autodeterminazio eskubideari uko eginez, ustez utopikoa dena, ameskeriazkoa, burges txikia, etab. Berauen artean Cunow, Parvus eta Alemaniako ultraoportunistak, fabianoen zati bat eta Ingalaterrako buruzagi tradeunionistak, Errusiako oportunistak: Siemkovski, Libman, Iurkievich, etab. topatzen dira.

“Bestalde, kautskianoak ditugu, hauen artean Vandervelde, Renaudel eta Ingalaterrako eta Frantziako pazifista asko aurkitzen direlarik. Batasunaren alde daude hauek ere, aurretik aipatu ditugunekin batera, eta praktikan erabat egiten dute bat haiekin, autodeterminaziorako eskubidea modu erretoriko soil eta hipokrita batean bakarrik defendatzean: “gehiegizkoa” (zu viel verlangt: Kautsky, Neue Zeit-en, 1915eko maiatzaren 21ean) iruditzen zaie bereizketa politikorako askatasunaren aldarrikapena, nazio zapaltzaileetako sozialisten taktika iraultzailearen beharra ez dute babesten, alderantziz, hauen betebeharrak iraultzaileak ezkutatzeko dituzte, hauen

oportunismoa justifikatzen dute, hauek herria engainatzea errazten dute, euren eskubideez gabetu dituzten nazioak bere agintepean indarrez atxiloturik dituen Estatu baten mugen arazoa saihesten dute, etab.

“Bai batzuk nola besteak marxismoa prostituitzen duten oportunistak dira, Marxek Irlandaren kasurako azaldu zuen taktikaren esangura teorikoa eta premiatasun praktikoa ulertzeko gaitasun osoa erabat galdu dutelarik.

“Anexioei dagokienean, zehazki, arazo honek egunerokotasun berezia hartu zuen gerra zela eta. Baina zer da anxio bat? Erraza da iragartzea anxioen aurkako protesta, edo nazioen autodeterminazioaren onarpenean laburbiltzen dela edota fraseologia pazifista batean oinarritzen dela, statu quo defendatuz eta biolentzia orori aurka eginez, baita iraultzaileari ere. Halako fraseologia funtsean faltsua eta bateraezina da marxismoarekin.”

“Proletalgoaren eginkizun zehatzak berehalako etorkizunean” tituluarekin ekiten dio oraingoan hona dakargun azken azpitituluarekin: “Iraultza sozialista etorkizunik gertuenekoean has daiteke. Kasu honetan, proletalgoari Boterearen konkistaren berehalako eginkizuna, bankuen desjabetzearena eta beste hain bat neurri diktatorialena planteatuko zaio. Burgesia —eta modu berezi batean fabianoen eta kautskianoen erako intelektualitatea— iraultza hori parzializatzen eta oztopatzen saiatuko da momentu horretan, helburu demokratikoak, mugatuak, inposatuz. Soilik demokratikoak diren eskakizun guztiek, Botere burgesaren oinarrien aurka proletalgoak jada hasi duen eraso baten testuinguruan, zentzu batean iraultzaren oztopatzaileen papera joka dezakete; baina herrialde zapaldu guztien askatasuna aldarrikatzeko eta burutzeko beharra (hau da, euren autodeterminazio eskubidea) iraultza demokratiko burgesaren garaipenarentzat 1848an Alemanian edota 1905ean Errusian izan zen bezain premiazkoa izango da iraultza sozialistarentzat.

Hala ere, posible da iraultza sozialistaren hasiera baino lehen beste 5, 10 edo urte gehiago pasatzea. Orduan, egin beharreko lana masen hezkuntza iraultzailea izango da, langileen alderdian sozialchauvinisten eta oportunisten presentzia ezinezko bilakatuko duena eta euren garaipena, 1914-1916ko ga-

raipenaren antzerakoa. Sozialistek masei azaldu beharko die-
te sozialista ingelesek —kolonien eta Irlandaren bereizketara-
ko askatasuna exijitzen ez dutenek—, sozialista alemaniarrek
—kolonientzako bereizketarako askatasuna exijitzen ez dute-
nek—, alsaziarrek, daniarrek eta poloniarrek —berehalako
propaganda iraultzailea eta ekintza iraultzailea zapalkuntza
nazionalaren aurkako borrokaren esferara zabaltzen ez dute-
nek, Savernekoa bezalako gertakariak nazio zapaltzaileko
proletalgoan propaganda ilegal zabal bat egiteko, kale-mani-
festazioak eta masen ekintza iraultzaileak antolatzeke apro-
betxatzen ez dituztenek—; sozialista errusiarrek —Finlandia-
ren, Poloniaren, Ukrainaren, etab.en bereizketarako askata-
suna exijitzen ez dutenek— chauvinisten moduan jokatzeko
dutela, lekaioen moduan, monarkia inperialisten eta burgesia
inperialistaren odol eta lohiez estalita.”

Historia langile mugimenduak egin dituen “experimen-
tuen” laborategi antzeko bat da, eginiko frogek nola funtziona-
tu duten edo ez ikusteko eta bertatik ikasteko balio bikaina
duena. Horrexegatik Leninen hitz hauek duela ia mende bat
idatziak izan baziren, Euskal Herrian egun bizi dugun egoera
kokatzeko balio digute. Non txertatu Euskal Herria Leninen
testuan? Hain zuzen, iraultza demokratiko burgesa jada ema-
nik, erregimen burges-liberala eta kapitalismoa erabat finka-
tuta, lehen talde horretan, eta ez kasualitatez, Leninek aipa-
tzen duen Irlandaren kasu horrekin estuki erlazionatuta dago
hemengo kasua. Leninen ideiek baliagarri izaten jarraitzen
dute.

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

- 1 • Manifestu komunistari hitzaurrea
 - 2 • Ezkerkeria, komunismoaren haurtzaroko eritasunari hitzaurrea
 - 3 • Etengabeko Iraultzari hitzaurrea
 - 4 • Che Guevararen ondarea eta Latinoamerikako iraultza
 - 5 • Estatua eta Iraultzari hitzaurrea
 - 6 • Zer da sozialismoa?
 - 7 • Marxismoa eta artea
- MANIFESTU KOMUNISTA (K. Marx / F. Engels)
 - ERREFORMA EDO IRAULTZA (R. Luxemburgo)
 - ESTATUA ETA IRAULTZA (V. I. Lenin)
 - TRANTSIZIO PROGRAMA (L. Trotsky)
 - ANARKISMOA ETA KOMUNISMOA (E. Preobrazhenski)
 - SOZIALISMO UTOPIKOTIK SOZIALISMO ZIENTIFIKORA (F. Engels)
 - MARXISMOA ETA LANGILE KLASEA
 - MARXISMOA ETA ASKAPEN NAZIONALA

Liburuxka hauek EUSKAL HERRIA SOZIALISTA aldizkariak argitaratu ditu Federiko Engels Fundazioaren laguntzarekin.

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA aldizkaria edo liburuxkak jasotzeko, gurekin kolaboratzeko, marxismoari buruzko hitaldiak antolatzeko edo ideia hauekin interesatua bazaude:

JARRI HARREMANETAN:
euskalherriasozialista@hotmail.com
TEL.: 685 720 939
www.euskalherriasozialista.net

FEDERIKO ENGELS FUNDAZIOA

MARXISMOAREN KLASIKOAK bilduma

C. Marx / F. Engels

- Contribución al problema de la vivienda
- Crítica del programa de Gotha / Crítica del programa de Erfurt
- Del socialismo utópico al socialismo científico
- El 18 Brumario de Luis Bonaparte
- El Manifiesto Comunista (*castellano, català, galego*)
- El origen de la familia, la propiedad privada y el Estado
- Introducción a 'Dialéctica de la naturaleza' (y otros)
- La guerra civil en Francia
- Ludwig Feuerbach y el fin de la filosofía clásica alemana
- Salario, precio y ganancia / Trabajo asalariado y capital
- El Estado y la revolución

V. I. Lenin

- El imperialismo, fase superior del capitalismo
- La enfermedad infantil del 'izquierdismo' en el comunismo
- La revolución proletaria y el renegado Kautsky
- Las tesis de abril

L. Trotsky

- 1905 / Resultados y perspectivas
- ¿Adónde va Francia?
- Acerca de los sindicatos
- La lucha contra el fascismo
- El programa de transición
- Historia de la Revolución Rusa (2 vols.)
- Escritos sobre la revolución española (1930-39)
- La revolución permanente
- La revolución traicionada
- Mi vida
- Problemas de la vida cotidiana
- Qué es el marxismo / Su moral y la nuestra
- Terrorismo y comunismo

R. Luxemburgo

- Una escuela de estrategia revolucionaria
- Huelga de masas, partido y sindicato
- La crisis de la socialdemocracia
- La revolución alemana de 1918-19
- Reforma o revolución

E. Preobrazhenski

J. Plejanov

- Anarquismo y comunismo
- Contra el anarquismo
- La concepción materialista de la historia
- El papel del individuo en la historia / 'Cant' contra Kant
- Carlos Marx y la Internacional
- Sobre el materialismo histórico

KRITIKA MARXISTA bilduma

- Razón y revolución. Filosofía marxista y ciencia moderna
- Rusia, de la revolución a la contrarrevolución
- Lenin y Trotsky, qué defendieron realmente
- Bolchevismo, el camino a la revolución
- La revolución bolivariana. Un análisis marxista
- Euskal Herria y el socialismo. Marxismo y cuestión nacional
- Apuntes revolucionarios.
- Cuba, Venezuela y el socialismo internacional
- En defensa de la Revolución de Octubre
- Reformismo o revolución. Marxismo y socialismo del siglo XXI
- La batalla de Inveval
- Pirómanos apagando un fuego
- Revolución socialista y guerra civil

A. Woods / T. Grant
Ted Grant
T. Grant / A. Woods
Alan Woods
Alan Woods
Eloy Val / Alan Woods

Celia Hart

A. Woods
Pablo Cermenanza
Juan Ignacio Ramos
Juan Ignacio Ramos

LANGILE MEMORIA bilduma

- Rebelión obrera en Tejas y Ladrillos
- 3 de marzo. Una lucha inacabada
- Carrier. Lecciones de una lucha
- Historia del movimiento obrero en Guadalajara

José Martín
Arturo Val del Olmo
Felipe Palacios
Enrique Alejandre

